



Jesus Ugalde
kimikariari
elkarriketa

Erreportajea:
abiadura handiko
trenik motelena

INDARKERIA MATXISTARI ERANTZUNA

Kale agerraldiak eta adierazpenak
egin dituzte erakundeek, eragileek
eta herritarrek azaroaren 25ean / 4

Debagoieneko herri gehienetan bezala, Oñatin –argazkian– kalera irten dira eguaztenean, emakumeen kontrako indarkeria matxistarekiko "haserre erakustera". XABIER URZELAI

**Koronabirus kasuen
beheranzko joera
nabaritzen hasi da,
astean 357 kasu
zenbatu badira ere** / 2

**FEX elkarteak sortu
dute Bergarako eta
Euskal Herriko
torlojugintzako
hamasei enpresak** / 26

**Debagoieneko udalek,
batez beste, %7,3
gutxiago jasoko dute
Foru Funtsetik, eta
zorpetu egingo dira** / 6

**Azoka Telebista,
"inoiz baino
beharrezkoago",
egoerara moldatutako
Durangoko Azokan** / 41

**'Ekobulebar'-eko
lanak hasi dituzte
Arrasaten, Villa
Amparon ur-parkea
egitea aurreikusita** / 12

SINADURAK

 BERNARDO KORTABARRIA / 8	 ONINTZA LEGORBURU / 30
 PALOMA MARTINEZ / 10	 ONEKA ANDUAGA / 35
 ANA CARPIO / 27	 IDOIA ETXEBERRIA / 48

SKODA KODIAQ



DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 35 • ARRASATE • 943 71 18 70




Bailarako herrien intzidentzia tasa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

14 EGUNEKO TASA

100.000 biztanleko

- >=500
- 300-499
- 60-299
- < 60



Positibo kasuak

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak 1.000 biztanleko
Arrasate	188	194	1.482	67,19
Bergara	71	126	899	59,92
Eskoriatza	31	35	172	42,31
Aretxabaleta	27	40	304	42,83
Oñati	20	50	488	42,98
Antzuola	8	3	136	61,79
Aramaio	7	7	51	33,86
Elgeta	4	6	38	33,36
Gatzaga	1	0	2	8,00
GUZTIRA	357	461	3.572	55,23

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Azken aste bietan positibo gutxiago

Azken astean 357 positibo zenbatu dituzte –aurrekoan baino 104 gutxiago–. Bi aste dira beherako joerarekin. Aretxabaletarrak, eskoriatzarrak eta gatzagarrrak PCRak egitera deitu dituzte. Eguberrietara begira, "zuhurtziaz" jokatzeari eskatu du Sagarduik

Maialen Santos ARRASATE

Joan den egunetik eguazten honetara arte 357 positibo baieztatu dituzte Debagoienean, aurreko astean baino 104 gutxiago.

Herrika, Antzuolan, Aramaion eta Leintz Gatzagan izan ezik, gainontzeko herrietan behera egin dute positiboek. Nabarmenezkoa da Bergaran aurreko astean baino 55 kasu gutxiago erregistratu dituztela, eta Oñatin, bestalde, 30 gutxiago. Gauzak horrela, positiboek beherantzko joera igartzen hasia da bailaran. Azpimarratzekoa da Leintz-Gatzagako bigarren kasua hauteman zutela asteburuan –irailaren 17an lehena zenbatu zutenetik ez da besterik egon–.

Debagoieneko Ospitalean hamazazpi pertsona daude ingresatuta, eta beste bederatzi lagun daude etxean ospitaleratuta.

BAHEKETA HIRU HERRITAN

ARETXABALETAN BAHEKETA EGITEN DIHARDUTE, ATZO HASI ETA GAUR ARTE

Aretxabaletarrak, eskoriatzarrak eta leintz gatzagarrrak deitu dituzte PCR probak egitera; guztira, 13 eta 40 urte bitarteko 3.171 pertsona. Aretxabaletako osasun zentroaren ondoko Basotxo eraikinean ari dira lan horretan atzotik, eta gaur amaituko dute; 15:30etik 20:00etara egingo dituzte. Emaizak SMS bidez emango dituzte, bestalde.

Txanda hartzeko Aretxabaletako osasun zentrori (943 71 19 59), Eskoriatzakora (943 71 44 52) edo osasun-aholkurako telefonora (900 20 30 50) deitu behar da. Ikastetxeek dagokienek, PCRak egiteko zuzendaritza-

taldeekin antolatuko da osasun saila. Herri horietako ikastetxeetako 961 ikasle eta 120 irakasleri egingo diete proba, zehazki.

Joan den astean Arrasaten egindako baheketari dagokionez, Debagoieneko ESik emandako datuen arabera, 13 eta 40 urte arteko 6.161 lagun zeuden proba egitera deituta, eta 3.256k egin zuten; %52,8k, alegia. Probetako %2,2 izan ziren positiboak –71–. Azpimarratzekoa da, 13 eta 18 urte bitartekoak izan zirela PCRa egin zutenetatik %75,6.

Debagoieneko ESitik azaldu dute Bergaran eta Arrasaten egindako baheketan, deitutako herritarren %55ek baino gutxiagok egin zutela proba, eta egitearen garrantzia azpimarratu dute, "transmisio komunitarioa eteteko ezinbestekoa delako".

ADINEKOEN EGOITZAK

ARRASATEKO AITA MENNI OSPITALEAN BIGARREN BROTE BAT HAUTEMAN DUTE

Azaroaren 5ean hauteman zituzten lehen positiboak Aita Menni ospitaleko Benito Menni unitatean. Atzora arteko datuen arabera, sei kutsatu daude, eta hamalauk eman dute negatibo. Egoiliar bat hil da, gainera.

Eguaztenean, baina, bigarren agerraldi bat hauteman dute psikiatria legaleko unitatean, eta 34 egoiliar eta hamaika langile zeuden kutsatuta atzora arte, ospitaletik adierazi dutenez. Negatiboak, bestalde, sei ziren.

Azaldu dute unitate bietako kasuek ez dutela "elkarren artean harremanik".

Debagoieneko gainontzeko adinekoen egoitzetan ez da alaketarik egon azken astean: hamabost kutsatu daude Eskoriatzako Jose Aranan eta bakarra Arrasateko Iturbiden.

BIRUSAREN AURKAKO TXERTOA

BIRUSAREN AURKAKO TXERTOA JARTZEKO PLANA IRAGARRI DU SALVADOR ILLAK

Salvador Illa Espainiako Osasun ministroak asteon eman du planaren berri, eta azaldu du helburua dela ahalik eta jende gutxien kutsatzea, eta baita

ospitaleratzeak eta heriotzak ekiditea ere. Urtariletik aurrera, faseka aurreikusten dute txertoa jartzea, kolektibo zaurgarrienengatik hasita.

Planaren harira, Gotzone Sagardui Jaurlaritzako Osasun sailburuak adierazi du txertaketa-plana erkidego bakoitzak "doitzea" dela egokiena –irizpide orokorrak adostu arren–; izan ere, sailburuaren ustez, plan orokor bakarra egiteak "ez du zentzurik". Azken horri lotuta, Madrilgo Gobernuaren jarrera salatu du, erkidegoekin "komunikazio falta" duela iriztita.

GABONAK OSPATZEKO IRIZPIDEAK

JAURLARITZAK USTE DU GABONETAN ERE "ZUHURTZIAZ" JOKATU BEHAR DELA

Espainiako presidente Pedro Sanchezek martitzen honetan iragarri ditu Eguberrietara begira prestatzen ari den planaren nondik norakoak, eta bertan jasotzen da Gabonetako ospakizunetan gehienez ere sei pertsona elkartzeko proposamena edota abenduaren 24an eta 30ean, gauean, etxeratze-agindua 01:00ak arte luzatzearena. Gotzone Sagardui Jaurlaritzako Osasun sailburuak adierazi du "zuhurtziaz handiagotzea" jokatu behar dela, eta, esaterako, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera ohiko moduan ez egitea proposatu du, jende pilaketak saihesteko. Kirol probak –San Silvestre, adibidez– ere bertan behera geratu daitezkeen eskatu du.

OSTALARIEN PROTESTAK

MOBILIZAZIOAK DEITU DITUZTE GAURKO, ARRASATEN ETA ARETXABALETAN

Azken asteetako ildoari jarraiki, protesta berriak iragarri dituzte bailarako ostalariek gaurko. Arrasateko 70 bat ostalarik egingo dute manifestazioa, 12:00etan, Seber Altube plazatik abiatuta, eta *Erreskaterik gabe, denok desagertzen gara* leloarekin. Aretxabaletan ere egingo dute protesta: asmoa da 12:30 bueltan Azkena tabernatik abiatu eta udaletxeraino jotzea; gero, elkarretaratzea egingo dute han.

Pandemiak gehien kaltetu dituen sektoreetako batzuk

XEGUN ALTOLAGIRRE

OÑATIKO SORALUZE HOTELA

Azaroaren 2an ireki zuten Oñatiko Soraluze Hotela, eta bertako arduradunetako batek, Xegun Altolagirrek, azaldu du "proiektu handi bati" ekin berriari geratu behar izan dutela jarduna: "Ireki eta aste berean eman zuten tabernak ixteko agindua, eta mugikortasuna ere mugatu zuten". Hori horrela, eramateko janari-zerbitzua eskaintzen ari dira orain, eta hotela martxan dutela azaldu du: "Hala ere, kanpoko jenderik ezin dugu hartu, eta herrikoak etortzea ez da ohikoa". Azken egunetan, baina, Oñatin lanean ari diren beharginak hartu dituzte, "hiru bat edo". Eta horrek jarraitzeko "animoak" ematen dizkie.

Abenduko zubiari buruz galdetuta, aitortu du bazituztela erreserbak: "Hamar lagunekoa talde bat etortzekoa zan, baina bertan behera utzi dute irteera". Hala, Gabonei begira "mugimendua" sumatzen hasi gurako luke Altolagirrek.



Xegun Altolagirre, Soraluze Hotela atzean duela. X.A.

AITOR MINER

BERGARAKO MINER ARDOAK

Miner Ardoak familiako enpresan lan egiten du Aitor Miner bergararrak. Lan egiteko baimena duten arren, ezin dute jarduna aurrera eraman, euren bezeroen %90 ostalaritza establezimenduek osatzen dutelako, "eta une honetan itxita daude guztiak". Hori horrela, "egoerara egokitu" behar izan dutela aitortu du: "Apirilean bezala, orain ere etxetik dihardugu edariak banatzen, baina arrakasta txikiagoa da: orain, ez gaude konfinamendu totalen, eta jendeak ez du hainbeste denbora ematen etxean". Hori gutxi balitz, antzeko enpresak ere metodo bera ari dira erabiltzen. "Enpresengana ere ari gara jotzen; Gabonei begira, gabonsarrietan ardoa oparitzea aukera ona izan daitekeelako", adierazi du.

Minerrek uste du ostalaritza establezimenduen "itxiera totala" bidegabekeria dela: "Langile batzuk ERTEan ditugun arren, eutsiko diogu egoerari; baina kezkatzen nau bezeroen bat bidean geratzeak".



Aitor Miner, banaketa egiteko gertu. A.M.

MAITE CABALLERO

ARRASATEKO HALCON BIDAIAK

Arrasateko Halcon Bidaia agentziako Maite Caballero "kezkaturik" dago, haren eta lankide Esther Guillaumesen lan-jarduna "guztiz etenda" dagoelako. Mugikortasuna mugatuta dagoenez, aisialdiko bidaiarik ezin dute saldu. "Esan daiteke gu ere komertzio txikia garela; biok gara autonomoak. Beraz, ez badugu saltzen, ez dugu irabazirik", azaldu du.

Gehitu du abenduko zubia eta Gabonak bidaiatzeko aprobetxatzen dituztela zenbaitek, baina horiek guztiak bertan behera geratu dira: "Kanariar irletara joateko asmoa bazuten batzuek, baina ez dira joango. Une honetan, pare bat bidaiak soilik ditugu pendiente", dio. Hori gutxi balitz, udako denboraldian ere ohiko salmenten "%10 soilik" egin dituzte.

Caballerok adierazi du bulegoa zabalik dutela, "bezeroei aurpegia eman gura diegulako". Eta aitortu du Gobernuak prestatzen ari den txertaketa planak "itxaropena" ematen diela datorren urteari begira.



Caballero eta Guillaumes —ezkerretik eskumara—. M.S.



Mikel Reparaz kazetaria, Goienako 'Hemen Debagoiena' saioan, martitzenean.

"AEBetan inoiz baino gizarte zatituagoa ikusi dugu orain"

MIKEL REPARAZ KAZETARIA

Hauteskundeak berbaigai 'Hemen Debagoiena' saioan

M.S./T.M. ARRASATE

Hiru aste betetzear dira Ameriketako Estatu Batuetako (AEB) hauteskundeak egin zituztenetik. Emaizten inguruan Trumpek erakutsitako jarreraz eta herrialdean dagoen zatiketaz jardun du *Las grietas de America* liburua kaleratu duen Mikel Reparaz kazetariak.

Aurreikusitako zitekeen gertatzen ari dena?

Neurri handi batean, esan zen gerta zitekeela eszenatoki hau; alegia, hasiera batean ematea Trumpek irabaziko zituela hauteskundeak, eta posta bidezko kontaketa helduekin Biden izatea garaile. Hain zuzen, hori gertatu da eta horrek ahalbidetu du Trumpek esatea jarraitzaileei hauteskundeak lapurtu egin dizkiola Bidenek.

Nolakoa izan ziren hauteskunde gaua eta hurrengo egunak?

AEBetan ikusi dugu gizarte erabat zatitua; zatiketa inoiz baino sakonagoa da orain. Hori ikusten da pandemiari dagozkion gai guztietan; esaterako, musukoaren erabileran. Nik esaten dut Ameriketako Estatu Batuetan bi herrialde paralelo daudela. **Trumpek iruzur salaketak egin zituen hasieran. Orain, nazioarteko konspirazioa egon dela dio...**

Niri iruditzen zait, neurri batean, aurrez prestatutako estrategia bat dela, aurreikusten zutelako egoera. Iruzur frogak ez daude, eta azken egunetan ikusi dugu Trumpen abokatua esaten, hain

zuzen, iruzurrik ez egoteak frogatzen duela iruzurra izan dela. Nik uste dut sartu dela inprobisazio bide batean, Trumpek bere burua biktimitzat jarritz. **Aurreko hauteskundetan baino 11 milioi gehiagok bozkatu dute, halere, Trump...**

Ia 74 milioi boto eskuratu ditu, bai. Horrek esan gura du Trumpek oraindik indar handia duela gizartean eta *trumpismoa* sendotuta dagoela.

Zatiketari buruz jardun duzu liburuan. Zerk definitzen du hori?

AEBetako gizartearen zatiketa herrialdearen fundazioetik sortutako gatazka batek definitzen du. AEBetako egoera politiko eta soziala aztertzen dut.

Esango zenuke ezagutzen ditugula Ameriketako Estatu Batuak?

Euskal Herrian begiratzen diegu inperio bat balira bezala, eta baditugu aurreiritzi handiak, baina egia da gizartea bera ez dugula askorik ezagutzen.

Urtarrilaren 20an Joe Bidenek lortzen badu presidente izendatu izatea, arrakalak ezabatuko dira?

Ez naiz batere baikorra horretan. Joe Bidenek egin zuen garaipen hitzaldian argi esan zuen bere lehentasuna gizartea batzea dela, baina uste dut zaila izango dela.

"EUSKAL HERRIAN EZ DUGU AMERIKETAKO ESTATU BATUETAKO GIZARTEA ASKORIK EZAGUTZEN"



Bergaran, Martxantere antolatuta egin zuten kale ekintza. K.U.



Hainbat jatorri, Arrasaten. HASIER LARREA



Haurrentzako tailerrak ere egin zituzten Eskoriatzan. IMANOL BELOKI

Mobilizazio jendetsuak, indarkeria matxista amaitu dadin eskatzeko

Pandemia dela-eta segurtasun neurriak hartuta, bete egin ziren eguaztenean bailarako herrietako kaleak emakumeen aurkako indarkeriaren kontra. Azken urteetan, mantendu egin dira kasuak, nahiz eta aurten salaketak jaitsi egin diren

Karmele Uribesalgo ARRASATE

Azaroaren 25a izan zen, eguaztenean, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna, hain zuzen ere. Hori dela eta, mobilizazioak izan ziren nonahi, baita bailarako herri guztietan ere. Pandemiak baldintzatutako urtean, ohiko ekitaldiak moldatu egin behar izan dituzte aurten antolatzaileek, baina, hala ere, jendetsuak izan ziren Debagoienan egindako ekintzak. Izan ere, une oro COVID-19a hizpide den honetan, indarkeria matxista kasuak daude oraindik.

Herri gehienetan elkarretaratzeak egin zituzten. Arrasaten kale agerraldia egin zuten, eta munduko emakumeek jasaten dituzten tratu txarrak salatu zituzten. Bergaran performancea ere egin zuten Martxantere talde feministak deituta. Aurretik, Itaia taldeak elkarretaratzea egin zuen. Oñatin, lapikokada jendetsua egin zuten iluntzean plazatik hasita. Aretxabaletan ere plazan elkartu ziren, eta aurretik, neska gazteen elkarretaratzea izan zen, Pikarraituz asanblada feministak deituta. Eskoriatzan, haurrentzako tai-

lerrak ere izan zituzten. Elgetan, berriz, ehun bat herritar elkartu ziren elkarretaratze isila egiteko. Antzuolan eguazteneko ekitaldia ez ezik, izango da bestelako ekintzarik. Gaur, *Bernarda Albaren etxea* antzerkia egongo da, 19:30ean, Torresoroan. Aramaion, domekan, 18:45ean, zineforuma izango dute kultur etxean, *Dios es mujer y se llama Petrunya* filmarekin.

Udalen atxikimendua

Debagoieneko udalek bat egin dute Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna-ekin, eta gaitzetsi egin dute indarkeria matxistaren kasu oro. Arrasateko Udalak onartu egin zuen Eudel Euskal Udalen Elkarteak adostutako azaroaren 25eko adierazpen instituzionala. Aretxabaletako eta Bergarako Udalek ere bat egin dute adie-

"ERASO MATXISTAK EGITURAZKO ARAZOAK DIRA, EZ GERTAERA SOILAK"

MIREN ELGARRESTA, FORU ALDUNDIA

razpen horrekin. Hori dela eta, eskaera bat jarri dute mahai gainean: arreta prozesuaren erdigunean jartzea biktimak.

Horretaz aparte, besteak beste, konpromisoa hartu dute behaketa hobetzeko eta indarkeria egoeran dauden emakumeen forma eta profil berriak hautemateko, baita horien aurrean azkar jarduteko ere. Eskoriatzako Udalak ahotsa jarri nahi izan dio udalerriek emakumeekiko eta indarkeria matxistaren beste biktima batzuekiko duten elkartasunari. Gainerako udalek ere atxikimendua azaldu zioten azaroaren 25eko mugimenduari.

Hilabeteen, 11 salaketa inguru

Urtean, Gipuzkoan, 1.300 emakume inguru artatzen dira. Ertzaintzak GOIENARI jakinarazi dionez, urte hasieratik kontu

"BIKTIMEK GIZARTE BAT DUTE ALBOAN AMESGAIZTOTIK ATERATZEKO"

JOHANNA SANCHEZ, ARRASATEKO UDALA

horrekin lotutako 118 salaketa jarri dira Bergarako komisarian. Debagoieneko kasuak ez ezik, Soraluzekoak eta Urola Garai-koak ere jaso ohi dituzte. Salaketa horien artean, indarkeria matxista, etxeko indarkeria eta lege-araudiaren urraketa kasuak biltzen dira. Lehenengoa emakumeen aurkako indarkeria da, emakume izateagatik jasaten dena, hain zuzen ere. Etxeko indarkeria etxebizitzako beste edozein partaidek pairatu dezake; seme-alabek edo anai-arrebek, esaterako, baita gizonezko batek haren emakumezko bikotearen aldetik ere. Dena den, indarkeria mota edozein dela ere, kasuen %90ean erasotzailea gizonezkoa izan ohi da. Salaketen artean, indarkeria matxista kasuak hamarretik sei izaten dira, etxekoak hiru eta urraketenak, bat.

Batez beste, hilean 11 salaketa inguru jarri ohi dira. Azken bi urteetan baino salaketa gutxiago jarri dira aurten. Hala ere, iazko kopurua bereziki altua izan zela adierazi du Ertzaintzak; urte hasieratik azaro bukaerara arte 145 salaketa jaso zituzten Bergarako ertzainek –urte osoan 156 izan ziren–, eta duela bi urte, 125–137 izan ziren guztira. Horrek ez du esan nahi kasu gehiago izan ez direnik; Ertzaintzak jasotako salaketak dira, eta, kasu batzuetan, biktimek ez dute pauso hori ematen. Emakunde adierazitakoaren arabera, indarkeria matxista jasaten duten emakumeen erdiek,

"EZ DA KONTU POLITA, BAINA MOLESTATZEN GAITUENA ERE LANDU BEHAR DA"

AINHOA NARBAIZA, MARTXANTERAK

gutxi gorabehera, ez dute salaketarik jartzen.

Pandemian, egoera latza

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasuneko foru zuzendari Miren Elgarrestak azpimarratu du pandemia hasieran salaketei dagokienez "geldiune bat" egon zela, eta horrek alarmak piztu zituela. Emakunde joan den urteko martxo erdialdetik maiatzera EAEan jarri zen salaketa kopurua aurtengoarekin alderatu du, eta %36 egin du behera: iaz 222 izan ziren eta aurten, 142. Gero, poliki-poliki, ohiko datuak erregistratzen hasi zirela azaldu du Berdintasuneko foru zuzendariak, eta, azkenean, Elgarrestaren hitzetan, %10eko gorakada izan dute arreta telefonoan jasotako deiek.

Johanna Sanchez Arrasateko Udaleko Berdintasunerako zinegotziak azaldu duenez, "zaila" da zenbatzea pandemian zehar zenbat indarkeria matxista kasu izan diren. "Argi dagoena da egoerak arazoa ezkutatu egin duela lau pareta artean", nabarmendu du. Bergarako Martxantere talde feministako kidea da Ainhoa Narbaiza, eta uste du garrantzitsua dela komunitatea laguntzeko prest egotea. "Egoera gordin bat bizi duzunean, ezin diozu bakarrik aurre egin, eta inportantea da herritarrek antolatuta eta saretuta egotea", azaldu du.

Sanchezen iritziz, azken urteetan indarkeria matxista kasuak ikusezin izatetik agerikoak izatera pasa dira. "Orain, biktimek gizarte bat dute alboan amesgaiztotik ateratzeko", adierazi du. Narbaizak azpimarratu du, askotan, laguntzak berandu iristen direla, bai zerbitzuen aldetik, baita arlo judizialek



Ehun lagun inguru batu ziren Elgetako plazan. LARRAITZ ZEBERIO

ere: "Erakundeetatik esaten da baliabideak daudela, baina, herriarren eskuetan jartzean, gauzak oso poliki doaz".

Arreta detaileetan

Elgarrestaren ustez, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak dira indarkeria matxistaren motorra. "Eraso matxistak gure egiturazko arazoak dira, ez gertaera soilak", gaineratu du. Berdintasuneko foru zuzendariaren iritziz, arreta jarri behar da emakumeen aurka egin ohi diren gaitzespen "txikietan",

oharkabeen pasatzen baitira: "Normalizat hartzen ditugun esamoldeak eta pentsamoldeak oso txertatuta daude, eta, ez garenez ohartzen, oinarri sendoa sortzen dute, eta indarkeria esanguratsu bilakatu daiteke".

Narbaizak adierazi du beharrezkoa dela prebentzioan lan egitea eta hainbat tokitan eragitea; elkarteetan, eskoletan eta lantokietan, esaterako. "Garrantzitsua da gauza deserosoak ateratzea; ez da kontu polita, baina molestatzeko gaituena ere landu behar da".

Harrera ona Sarek antolatutako ekintzek

Debagoieneko herri gehienetan antolatu zituzten ekimenak joan den astebururako, bestelako espetxe politika bat aldarrikatzeko. Antolatzaileek balorazio positiboa egin dute, eta iragarri dute Gabonei begira ekintza gehiago egingo dituztela

K.U. ARRASATE

Sarek modu positiboan baloratu ditu joan den zapatuan eta domekan Debagoienera egin zituzten ekimenak. Arrasaten, Bergaran, Oñatin, Aretxabaletan, Antzuolan eta Bergaran ehunka lagun atera ziren kalera, presoen eskubideen aldeko aldarriarekin. "Bailarako herri gehienetan presoen aldarria presente egon zen eta ozen entzun zen denak etxean behar ditugula ere", adierazi du Bergarako Sareko kide Aitor Arantzabalek. Arrasateko Sareko Garazi Azkaratek gaineratu du "oso pozik" daudela jasotako erantzunarekin. Arantzabalek azaldu du nabari

dutela gero eta jende gehiago ari dela batzen ekimenetara.

Askotariko mobilizazioak

Zapatu goizean, Oñatin, hainbat herritarrek ibilaldia egin zuten, oinez zein bizikletan, Korrikaren estilora; furgonetarekin, animazioarekin eta lekukoarekin. Arratsaldean, berriz, manifestazioa egin zuten Arrasaten, Seber Altube plazatik hasita. Antzuolarrek elkarretaratzea egin zuten Zurrategi plazan, eta Aretxabaletan 400 pertsona inguruk giza katea osatu zuten Portasoldik Herriko Plazaraino.

Domekan, Bergaran, San Martzialeko buelta egin zuten 112

lagunek, eta denen artean 672 kilometro pilatu zituzten. Horrez gain, eta zapatuan, esaterako, Ibon Muñoaren *Gure Ama-Lur feminista* liburuaren aurkezpena egin zuten. Elgetan, herriko plazatik abiatu, eta talde argazkia atera zuten Asentzión. Arrasaten ere egin zuten hamar kilometroko ibilaldia.

Aurrera begira, Gabonetan, adibidez, hainbat ekimen egingo dituzte Sarekoek. Horrez gain, aurten ez da posible izango ohiko urtarrileko mobilizazioak egitea, baina herri guztietan manifestazioak egingo dituzte une berean: urtarrilaren 9an, zapatuan, 17:30ean.



ZURE ETXE BERRIA NATURAN IKUSPEGI ONENekin

PREZIO TASATUKO
ETXEBIZITZAK

175.000€

-TIK AURRERA*

*zergak ez daude barne

Garajea eta trastelekuak barne

ETXEBIZITZAK
PREZIO LIBREAN

258.300€

-TIK AURRERA*

*zergak ez daude barne

Garajea barne



3 eta 4 logelako etxebizitzak
Duplex atikoak



Terraza zabalak



Etxebizitzak pertsonalizatzen dira



Ziurtagiri energetiko altua

KONSTRUKZIOA:



900 907 407

www.kurtzebarribizilekua.eus

ALTAMIRA



Udalen Foru Funtsa %7,3 jaitsiko da Debagoienez

Zerga-bilketa %20 jaitea aurreikusi zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak uztailean, baina, urriko azken datuen arabera, %12,55 jaitsiko da. Hala, udalek jasotzen duten Foru Funtsa ez da aurreikusi bezain beste jaitsiko; Debagoienez %7,29, batez beste

Xabi Gorostidi ARRASATE

Gipuzkoako Foru Aldundiak uztailean emandako datuen arabera, zerga-bilketan %19,9 gutxiago jasotzea espero zuten, 2019ko hilabete berarekin alderatuta; 456 milioi euro gutxiago, hain justu. Estimazio horiek ikusita, aurreikusi zitekeen udalen aurrekontuetan jaitsierak egongo zirela. Aldundiek ematen dituzten Udalak Finantzatzeko Foru Funtsak (UFFF) udalen aurrekontuen zati handi bat dira, eta, zerga-bilketa adina jaitsiz gero, udalen aurrekontuetan eragina nabaria izango litzateke.

Baina uztailetik hona zerga-bilketa estimazioak hobera egin du. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eudelek osatzen duten Gipuzkoako Finantzen Kontseiluak urriaren 19an kaleratutako txostenaren arabera, Gipuzkoako zerga bilketa %12,55 jaitsiko da, uztaileko datua baino %7,44 gutxiago.

Foru Funtsak 2021erako

Txosten horretan zehazten ziren ere 2021ean udalek jasoko dituzten Foru Funtsak zenbatekoak izango diren: Arrasaten, 14.786.655 euro, 2020an baino %7,6 gutxiago; Bergaran, 9.827.566 euro, 2020an baino %7,21 gutxiago;



Kalkulagailu bat, paperezko orri baten gainean. PIXABAY

Oñatin, 7.656.624 euro, 2020an baino %7,20 gutxiago; Aretxabaletan, 4.788.686 euro, 2020an baino %5,53 gutxiago; Eskoriatzan, 2.731.743 euro, 2020an baino %8,15 gutxiago; Antzuolan, 1.417.793 euro, 2020an baino %7,97 gutxiago; Elgetan, 763.642 euro, 2020an baino %7,51 gutxiago; eta Leintz Gatzagan, 227.521 euro, 2020an baino %4,76 gutxiago.

Aramaioren kasuan, 798.154 euro jasoko ditu Arabako Foru Aldunditik, 2020an baino %9,75 euro gutxiago. Bederatzi udalerrien batez bestekoa eginez gero,

%7,29 gutxiago jasoko dute 2021ean.

Soberakinak eta zorpetzea

Soberakinak baliatzeko eta zorpetzeko aukera ematen du Finantza Kontseiluaren gastu-arauak, eta bide horiek erabiliko dituzte bailarako herri nagusiek. Gertu dituzte 2021erako udal aurrekontu aurreikuspenak ere: Arrasaten, 35.852.466 euro; Oñatin, 16.587.383 euro; Aretxabaletan, 9.500.000 euroren bueltan; eta Bergaran %10 inguru murriztea aurreikusten dute.

Zorpetzea aurreikusten duzue?




MARIA UBARETXENA
ARRASATEKO ALKATEA

"Gure kasuan, arrasatear bakar bat ere atzean ez uzteko, zorpetzera joko dugu. Tasa eta zergak ez ditugu igoko, uste dugulako herritarrei ezin zaiela gaur egungo egoeran esfortzu hori eskatu. Azken bost urteetako kudeaketa dela-eta Udalaren egoera finantzarioa ezin hobea da, eta zorpetzea ahalbidetzen digu".




GORKA ARTOLA
BERGARAKO ALKATEA

"Bai. Egungo egoera berezian sortzen diren behar guztiei aurre egiteko beharrezkoa izango dela aurreikusten dugu. 2021eko aurrekontua dinamikoa izango da, moldaketak egin beharko ditugulako; beharrak sortu, edo aldatu ahal. Dagoeneko 2.000.000 euroko mailegua eskatu dugu".



IZARO ELORZA
OÑATIKO ALKATEA

"Behar handien duten sektoreetara bideratutako gastua mantendu egingo dugu, eta herriko eragileei egiten zaizkien transferentziak ere bai. Kiroldegiaren eraberritzea dela-eta 2019an mailegu beste bat hartu genuen, eta, oinarritzko zerbitzuak emateko gai izango garenez, ez dugu zorpetzeko asmorik 2021ean".



UNAI ELKORO
ARETXABALETAKO ALKATEA

"Foru Aldundiak erabaki du udalei zorpetzeko aukera emango diela; beraz, gaia aztertzen ari gara, eta, ziurrenez, zorpetzera joko dugu; agindutako inbertsioak aurrera atera ahal izateko ohiko gastuetan murrizketarik egin behar ez izateko. Edonola ere, gure asmoa da agintaldia zorrik gabe amaitzea".

Bonu bidez 755.000 euro batu ditu Elikagaien Bankuak

Une honetan ia 21.000 gipuzkoarri ematen diete zerbitzua; 2019ko abenduan, ordea, 17.100 ziren

X.G. DEBAGOIENA

Elikagaien Bankuaren azken kanpaina arrakastatsua izan da, beste behin. Elikagai bilketa egin beharrean, bonu erosketa bidezko bilketa egitea erabaki zuten, pandemia garaira molda-

tzeko asmoz. Eta gipuzkoarrek erantzun egin dute. "Oso pozik gaude jasotako erantzunarekin", azaldu dio GOIENARI Carlos Martinez presidenteordeak. 755.000 euro batu dituzte, iaz baino 110.000 gehiago: 635.000

euro bonuen salmentarekin eta 120.000 euro webgunean egindako ekarpen solidarioei esker. Erakundeak adierazi duenez, pandemia hasi zenetik hona handitu egin da laguntza baliatzen dutenen kopurua. "Une honetan, 21.000 gipuzkoar ingururi ematen diegu zerbitzua. Pandemia hasi zenetik hona ia %22ko igoera izan dugu, 2019ko abenduan 17.100 baitziren. Erritmo honekin jarraituz gero, 23.000ra helduko gara hilabete gutxi barru".

14.000 eurotik beherako sarrerekin, errenta aitorpenik ez

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek beste urtebete luzatu dituzte COVID-19ak eragindako krisiari aurre egiteko martxoan ezarritako zerga bereziak. Ez hori bakarrik, hainbat berritasun ere ezarri dituzte 2021eko zerga bilketari begira. Horietako bat errenta aitorpena egiteko diru-sarrera kopuru minimoarena da. Orain arte,

12.000 eurotan zegoen muga; orain, ordea, 14.000 euro baino gutxiago jasotzen dituztenek ez dute egin beharko. Euren kontuko langileen kasuan, COVID-19ak eraginda itxita egotegatik jaso dituzten laguntza batzuk errenta aitorpenetik kanpo geratu zaizkie, eta 2020ko azken hiruhilekoko errenta zergaren proportzioa ez dute ordaindu beharko. Zergak geroago ordaintzeko erregimen bat ere ezarri dute, enpresa txikientzat eta euren kontuko langileentzat.



INDARKERIA MATXISTAREN

AURREAN EZ ZAITEZ IKUSLE HUTS BATIZAN

ERASO ASKO GURE BEGIEN AURREAN GERTATZEN DIRA.
ZUK ERE BADUZU HAU ALDATZEKO ARDURA.



NOLA JOKATU JAKITEKO INFORMAZIOA:
berdintasuna.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro



ZABALIK

BEÑARDO KORTABARRIA

Mito bat joan da

Ez, ez naiz Maradonaz ari, Mañuaz baizik. Mañua Salvador Peña zen, urte askoan Antzuolako Mairuaren Alardean mairuaren zeregina antzeztu zuen pertsona. Makina bat aldiz ikusi nuen asto gainean desfilatzen eskuekin jendea agurtuz, beltz-beltz margotuta, gudari-ilara geratu eta xanpaina edaten. Ongietorri ostean, Alardeko buruzagiak egindako galdera/aginduei buruarekin baietz eta ezetz erantzuten –baiezkoa tokatzen zenean ezezkoa erantzunez tarteka–, turbantea zapaltzera behartuta izan ondoren, preso zeukaten kateei tira eginez... Kotxe bateko maletategian sartu eta bahitu ere egin zuten urte batean, eta mozkor-mozkor eginda askatu zuten. Gure haurtzaroko jaietako pertsonaia nagusia zen, mairua, guretako mitoia.

Seguruen antzuolar gehienok mairu moduan gogoratuko dugun arren, Salvador, batez ere, mañua zen, dimentsio publikoa zuen pertsona soil eta on bat. Adimenez ez zen munduko argiena izango, baina

EGUN BATEAN 25 ORDU LAN EGIN ZITUEN JARRAIAN, ORDUA ALDATZEN ZEN HORIETAKO BATEAN

argitasunez bizi izan zen, eta umorez. Kanpotik etorri, bertako emakume batekin ezkondu eta familia osatu zuen. Eta familia aurrera ateratzeko, lan egin zuen, beltz. Bergarako


Altos Hornos-en egin zuen lan, antzuolar askok bezala. Langile amorratua zen mañua, estimatua lankideen artean. Ez dut oso ondo gogoratzen pasadizoa, baina badakit egun batean 25 ordu lan egin zituela jarraian, ordua aldatzen zen horietako batean: 16 + 1 lantokian, eta beste 8 auzolanean.

Jubilatu eta gero ere, behin baino gehiagotan ikusi nuen aldarnio gainean, bidegintzan ere bai, Ugarte Torre baserrian orduak eta orduak sartzen... Azken urteotan, adinean aurrera joanda, jaitsita zegoen, baina ez geldirik: Lizarraga auzoko horma-zuloetako barraskiloen harrapatzaile emankorra zen. Lizarraga inguratuz gero, han ikusiko zenuen mañua, plastikozko poltsatxoa barraskilo mukitsuz beteta.

Astean urte bat bete da emaztea hil zitzaionetik, tartean ere beraiekin bizi zen alaba hil zen, eta orain bera. Mitoa izanda, ez da bakarrik egongo.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Indarkeriaren zauriak

ISA EGIGUREN

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Josefina Lambertok egunero gogoratzen ditu ahizpa eta aita. 90 urterekin erabat argi du gogoan 36ko uda hartan gertatu zena.

Gauko ordu biak ziren bi guardia zibilek eta Larragako txurreroak aita eta ahizpa eraman zituztenean. Maravillas, 14 urteko gaztea, hainbat aldiz bortxatu zuten, eta gero, aitarekin batera, fusilatu egin zuten.

Vicenteren gorpua ez zen inoiz agertu. Maravillasena, aldiz, handik egun batzuetara zonako nekazariak aurkitu zuten. Gaztearen gorpua

gasolinarekin erre zuten, besteak beste, txakur batzuek gorputzeko zatiak jan zituztelako.

84 urte luze igaro dira ordutik, baina oraindik zauriak zabalik daude.

Izan ere, duela gutxi arte, Josefina aitaren eta ahizparen hiltzailetako batekin gurutzatzen zen bere herrian. Hiltzaileek ez zuten inoiz ordaindu egin zutenagatik; alderantziz, sarituak izan ziren.

2008an, Larragako Udalak uko egin zion Maravillasen omenezko kale bat jartzeari.

Azkenean, 2012an, errekonozimendua iritsi zen, baina kale horretako zenbait bizilagunek uko egin zioten

hildako gaztearen izena jartzeari; beraz, kalearen erdiak baino ez du Maravillas izena.

Bitartean, hainbeste urteren ondoren, Josefinak bere ahizpa hil zutela eta ez zela desagertu aitortzeko borrokan jarraitzen du, baita aitaren gorpua non dagoen jakiteko ere.

Istorio hauek ikusten ditudanean, beti gauza bera galdetzen diot neure buruari: hainbeste denbora kostatu bazaigu 36ko biktimen oroimena konpontzen hastea, zenbat kostatuko zaigu hemen urteetan bizi izan dugun indarkeriaren zauriak ixtea? Bakarrik espero dut hainbeste denbora ez igarotzea.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BERBAGAI

"Eskoriatza da komun gabeko deskantsu-gune bakarra"

EUGENIA PABLOS PESA ENPRESAKO AUTOBUS GIDARIA

Jone Olabarria ARRASATE
Duela hamahiru urte hasi zen Eugenia Pablos (Arrasate, 1970) Pesako autobus gidari lanetan. Deskantsurako gune duten Eskoriatzako Aingeru Guardako geltokian komun baten beharra aldarrikatu, eta bizi duten egoeraren berri eman du Pablosek.
Zein da egiten duzuen eskaera zehatza?
Komun bat behar dugu Eskoriatzako Aingeru Guardako geltokian, ezinbestean. Geraleku hori da eskaintzen ditugun autobus zerbitzu askoren hasiera edo amaierako puntua, eta gidariok bertan egiten ditugu gure deskantsuak ere. Komunera joateko beharra badugu, tabernetako komunak erabili behar izaten ditugu, eta tabernariak, orokorrean, oso ondo portatzen diren arren eta inongo arazorik gabe lagatzen diguten erabiltzen, zeure burua zerbait kontsumitzera behartuta ikusten duzu askotan.



Eugenia Pablos, bere lanlekua den autobusean eguaztenean. JONE OLABARRIA

Hortaz, azken asteotan zuen egoera larritu egingo zen...

Pandemiak orokorrean larritu badu ere, tabernak itxita egoteak eragin handia izan du bizi dugun arazo honi dagokionez. Egun, ez dugu

komunera joateko aukerarik, eta kalean pixa egitera behartzen gaitu horrek askotan. Egoera honek eraginda, lankide askok Estazio Zaharreko kamioien aparkalekura joan behar izan

dute, kamioien artean pixa egitera. Emakumeon kasuan, are gehiago zailtzen zaigu egoera, hilekoarekin egon eta aldatu beharra izanda. Egun, gasolindegian eskatu behar dugu mesedea; egoera honekin, itxita dauzkate komunak eta mesedea egiteko irekitzen dizkigute askotan.
Orain arte, egin izan duzue eskaerarik?
Eskoriatzako Udalean gaia komentatu izan dugu eta bai alkatea baita Udala egoera honen eta arazoaren jakitun dira. Baina badirudi ez zaiela askorik interesatzen; antza denez, ez da esentziala aurrekontuetan. Orain, denok jartzen dugu bandera morea udaletxean; ba, ea gogoratzen diren, apur bat, behintzat, zerbitzu publiko bat eskaintzeko lan egiten dugun emakume guztiok bizi dugun egoerarekin. Iruditzen zait gure eskaera ez dela beste munduko ezer.
Gainerako herrietan baduzue komun publiko zerbitzua deskantsurako guneetan?
Arrasaten, Oñatin edo Bergaran komun publikoak ditugu; Eskoriatza da, autobus linea baten amaiera eta hasiera puntua izanda, komunik eskaintzen ez duen herri bakarra. Elorregin ere aspaldiko eskaera da

komunarena; gure kasuan, ez digu hainbeste eragiten, bertan ez dugulako geldialdirik egiten txoferrok, baina erabiltzaileendako oso beharrezkoa da.
Zein da une honetan garraio publikoan bizi duzuen egoera?
Autobusen edukiera %100ekoa da une honetan, ez dago koronabirusak eragindako edukiera muga berezirik. Autobusak espazio itxiak dira, eta aireztatzeko leihatila txiki batzuk baino ez ditugu. Egun, derrigortasun bakarra autobusean maskararen erabilera da. Era berean, guretzat oso zaila da bidaian zehar denek maskara jantzita daramatela kontrolatzea, gidatzen ari gara eta errepideari begira egon behar dugu.
Babestuta sentitzen duzue zeuen burua lanean ari zaretela?
Edukierak mugatzea eskatu dugu, ordu jakin batzuetan bidaiari asko pilatzen direlako. Oraindik badira manpara homologatuak ez dituzten autobusak, eta ez gara babestuta sentitzen. Txoferraren atzeko lau eserlekuak libre utzi behar izatea ere eskatu dugu, eta ukatu egin zaigu. Enpresatik ematen diguten erantzuna da Eusko Jaurlaritzak agindutakoa jarraitzen dutela.

ITURRI ONETIK

Autogintzako nesken topaketa Aretxabaletan

Automozioiko Emakumeen Bigarren Topaketa egingo dute aurten Aretxabaletako Lanbide Heziketa Eskolan, abenduaren 17an.
Lanbide Heziketan, arlo industrialean eta, bereziki, automozioan, emakumearen presentzia indartzea eta berdintasuna aldarrikatzea eta ikusgarritasuna ematea dute helburu topaketa horiek.
Hain zuzen ere, lau hizlarik jardungo dute; eta Internet bidez zabalduko dute solasaldia.
Iaz antolatu zuten lehenengo aldiz, arrakasta handiz.

ALBISTE IZAN ZEN

2009-11-20

AEDren 25. urteurrena ospatzeko, diskoa

Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkartearen 25. urteurrena ospatzeko, diskoa argitaratu zuten, eta hura aurkezteko ekitaldia antolatu zuten Arrasateko gaztetxean. Azkaiter Pelox musikariak eta Haitzama eta Muskaria taldeek jo zuten, eta merienda egin zuten han batutako 60 gazteek. Diskoan, herriko zortzi talderen bederatzi kantu jaso zituzten –Gosek urteurrenerako egindakoa gehituta–. 5 eurotan jarri zuten salgai.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Maradonari agurra sare sozialetan ere

Argentinako izarra eguaztenean zendu zen. *Pelusa*-k izandako argi-ilunak aipatu dituzte txiolariek:
@arantxatxu: "Maradona futbolari ona izango zela ez dut ukatzen; beharbada ezkerrekoa zela ere ez... Baina benetan goraiatu behar duzue? Eta ez duzue esango berari ere ezin zaiola onartu indarkeria matxista?"
@hgallas: "El D10S de la gente. Jarraitzaile sutsu gehien izan duen futbolari/kirolaria. #Maradona".
@xcb76: "Baloia oinetan zuenean laztantzen zuen. Ikusi dudak jokalaririk onena baloiarekin. #Maradona".



D2030: IRITZIA

PALOMA MARTINEZ /GUHAZIAGARA

Marrazki berria, etorkizun inklusibo baterako

Orain dela hamaika urte hasi zen Guhaziakgara-ren ibilbidea. Hiru emakume elkartu ginen, hirurak etorkinak, hirurak sentimendu berarekin: baztertuta sentitzen ginen Aretxabaletan. Baina hirurak hemen bizi gura genuen. Etxera bueltatzea ez zen aukera bat. Beraz, etorkinen eta bertakoen arteko harremana lantzea erabaki genuen. Eta ibilbide horretan gerturatu ginen gure kolektibora, etorkinengana, eta, era berean, herria ezagutzen aritu ginen.

Etorikinen multzoa pentsatu genuena baino anitzagoa zen, behar desberdinak geneuzkan eta hasiera baten marraztu genuen bideak ez zuen balio gehienek beharrak asetzeko. 2013an, bertako hiru emakume gurekin hasi ziren lanean eta elkarteja jaio zen. Gure helburua honako hau zen: guneak zein ekintza aproposak sortzea, etorkinen eta bertakoen arteko harremanak gertatu ahal izateko.

Ortua martxan jarri genuen eta eskulanak egiten genituen. Giro ezin hobea sortzen zen elkartzen ginen bakoitzean. Baina, gure hiru bertakoek ezin, etorkinok bakarrik parte hartzen genuen tailer hauetan. Eta, gainera, bazterkerian etorkinok baino jende gehiago zegoela konturatu ginen. Berritua ere marraztutakoak ez zuen balio.

Berrasmatzera

Gure eremua bazterkeria arriskuan daudenentzako zabaldu genuen. Ortuaz eta eskulanez aparte, jostintza eta muralak egiten hasi ginen eta urtean behin bazkari multikulturala ere bai, denok elkartzeko. Gure lan egiteko era zaintzea erabaki genuen; izan ere,



ALEXAS_FOTOS / UNSPLASH

harreman berriak gertatu ahal izateko, bazterkeria arriskuan daudenek egoera horretan ez daudenekin topo egin behar dute. Horregatik, deialdiak ahalik eta herritar gehienengana helarazten saiatzen ginen. Muralen kasuan, beti herriko beste elkarte batekin batera egiten dugu, eta oso era parte-hartzailean. Jostintzak indar asko hartu zuen. Arratsaldeetan oso talde anitzak zeuden: bertakoak, kanpotarrak, gizonak, emakumeak, euskaldunak, erdaldunak... Oso giro lasaia beraien arteko harremanetan josten ikasten. Goizetan langabeen talde bat zegoen eta oso argi ikusten zen josten ikastearekin batera ahalduntzen zihoazela. Nork bere konponketak egitetik

**BAZTERKERIA
ARRISKUAN
DAUDENAK EZ
DAUDENEGIN ELKARTU
BEHAR DIRA**

kanporakoak egitera pasatu gura zuten. Eta ahalduntze prozesu horri erantzuteko, 2015ean bi aktibitate ekonomikoren alta eman genuen: konponketak eta jantzigintza. Poliki-poliki, ortuak eta eskulanek indarra galdu zuten eta jostintza tailer bihurtu zen 2017an Udalak itxitako lokala. Baina, berriz ere, marraztutakoa ez zen nahikoa, laukitik kanpo marrazten genbiltzan. Gure jarduerak marko berri bat behar zuen. Honaino, lan boluntarioekin aurre egin genion: tailerrak, kontuak, antolakuntza... Argi zegoen elkarrekin beste dimentsio bat zeukala, eta adituak behar genituen hainbat arlotan.

Saltoa eman genuen. Azkenengo hiru urteetan sei

**INKLUSIO
SOZIOLABORALA
MODU INTEGRALEAN
LANDU BEHARREKO
ERRONKA DA**

mural egin ziren, jostintza eta kakorraz tailerrak eman ziren. Urtean zehar ehun bat pertsona pasatzen dira elkartetik eta argi eta garbi esan dezakegu harreman berriak sortzen direla: euskaldunen eta erdaldunen artean, etorkinen eta bertakoen artean, emakumeen eta gizonen artean, adin desberdinetakoen artean... Aretxabaletan bizi, baina ezagutu ez. Guhaziakgarakek inguru goxo baten elkar ezagutzeko aukera ematen du. Jostintza tailerrak fakturazio nahikoa ateratzen du lanak egiten dituztenei ordaindu ahal izateko. Dena dela, berritua ere, marraztutako laukia txiki gelditu da. Izan ere, lana ez da konstantea eta horrek asko mugatzen ditu lan

**EHUNGINTZAN
PRESTAKUNTZA
PROFESIONALA
JASOTZEKO BIDEA
EGIN GURA DUGU**

baldintzak. Hori gutxi balitz, lan hori egitea gura dugun pertsonak ez daukate nahikoa formakuntza era autonomoan lan egiteko.

Bidelaguntza berria

Baina momentu honetan ez gaude bakarrik! D2030 egitasmoak eman digu aukera gure proiektua birplanteatzeko. Gaur egun, inklusio soziorabiorala modu integralean landu beharreko erronka dela ikusten dugu. Horregatik, orain, Guhaziakgarakek eskaintzen duen zerbitzua hiru ardatz dituen proiektu bihurtu nahi dugu.

Lehenengoa da, soziala: Debagoien mailan bazterketa arriskuan dauden pertsonen eta ez dauden arteko topaketa-guneak sortu.

Horretarako, bi bide aurreikusten ditugu: alde batetik, aisialdirako tailerrak: muralismoa, jostintza, kakorratza, beste jarduerak batzuen artean. Bestetik, aitortza eta sentsibilizazio saioak.

Bigarrena, formakuntzarena: elkarrearen esperientzia oinarrituta, Lanbide Heziketa lan mundurako urratsak egiteko ezinbestekoa dela ikusten dugu. Horregatik, urrats bat gehiago egin eta bailaran ehungintzaren arloan prestakuntza profesionala jaso ahal izateko bidea lortu nahi dugu.

Eta hirugarrena, lana. Gaur egun garatzen diren jarduerak ekonomikoan negozio proiektua lantzea, gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonentzako enplegua sortzeko.

Hau da datorren urte eta erdirako marraztu duguna. Bidean gaude, akats asko egin ditugu eta, seguruenik, egingo ditugu. Hemen gaude eta batera jarraituko dugu, eraldaketa sozialaren alde lan egiten.

EAJ, ostalaritzaren "alde"

XABIER ELORZA, GARIKOITZ IBARZABAL ETA MIGUEL ANGEL PALACIN

BOGA, ARRANO, ARKUPE, AKER, PAKO, ITTURRI, IZARRAITZ, ONGI ETORRI, IKATZ ETA AMETS TABERNEN IZENEAN OÑATI

Bizi dugun osasun larrialdia dela eta, Eusko Jaurlaritzak ostalaritza ixteko aginduaren ondoren, sektorea arrisku larrian dago. Gastu mordo bati aurre egiten jarraitu behar dugu, eta ez dakigu noiz arte eutsi ahal izango diogun.

Testuinguru honetan, asteartean, azaroaren 17an, EH Bilduko Udalak deituta, Oñatiko ostalariok bilera izan genuen. Herriko ostalariez gain, zeharka kaltetutako herriko hornitzaile bat, EH Bilduko bi ordezkari eta "herritar gisa" joandako EAJko ordezkari bat izan ginen bertan.

Bileraren helburua zen guri ahotsa emanez gure eskaera eta ekarpenak entzun, aztertu eta, horren arabera, dirulaguntzak bideratzea.

Ordu eta erdi inguru iraun zuen bilerak. Bukaeran, ohikoa den bezala, bilera osteko bilerak jarraitu zuen. Beste barik.

Gure sorpresarako, bileratik bi egunera, Goienaren webgunean berri hau irakurri genuen: *EAJk "berehalako neurriak" proposatu dizkio alkateari ostalariei laguntzeko.*

Bertan, EAJk ostalaritzari laguntzeko hainbat proposamen egiten dizkio Udalari.

Eta a ze kasualitatea! Proposamen horiek guk Udalari egindakoen berdinak ez dira, ba?! Argitu nahi dugu ez gatzozela bat ostalaritzaren egoera larria erabilera politiko alderdikoietarako erabiltzearekin.

Gaurdaino, EAJko inor ez da gurekin harremanetan jarri, inork ez digu proposamenik egin. "Herritar gisa" joandako ordezkaria ere ez zen guregana hurbildu!

Gainera, ostalaritza sektorearen eskumena Eusko Jaurlaritzarena da –EAJrena–. Eta, momentuz, ez dugu haiengandik inolako laguntzarik jaso. Udaletik ez bezala.

"Hipokrisia eta erabilera politikoa baztertu eta elkarlanerako momentua da"; "Elkartasuna, babesa eta konpromisoa". Hauek EAJk esandakoak. Hori bai, esandakoa praktikan jartzea falta zaie! Oñatin, beraien jabetzakoa den tabernaren alokairuan, tabernariari ez baitiote askorik lagundu. Hori bai hipokrisia galanta!

Ekarpenak, datozen lekutik datozela, ongietorriak izango dira, baina ez gure izenean politikakeriarik egin, ez eta dominarik jartzen saiatu.

'Like' ('Atsegin dut')

MARIJO ETXEGOIOEN ARZUAGA

EAJ-PNV-REN OÑATIKO ZINEGOTZIA OÑATI

Sare sozialek dakartzaten arriskuak asko dira, eta oso desberdinak: besteak beste, *Grooming*-a –gazteekiko helduen sexu-hurbiltzea–, jazarpen digitala, nesken aurkako sexu-jazarpena, iruzurrak, sextortsioa, eduki desegokiak –indarkeria, gorrotoa, pornografia...–, eta abar

Ezin dugu ahaztu 2019an denon ahotan ibili zen IVECO auto-lantegiko beharginaren kasua –2.500 langile–. Hain zuzen, Alcalá de Henaresko 32 urteko emakumearen bideoak, 5 urte lehenago grabatutakoak eta eduki sexualdunak, lankideen artean bolo-bolo ibili ziren. Poliziaren ikerketaren arabera, 200 lankidek zabaldu eta partekatu zituzten bideo

horiek. Ondorioz, hainbat asteren buruan, emakumeak bere buruaz beste egin zuen.

La manada-ren biktimaren argazki bat Interneten argitaratu zuen gizonari, bestalde, Iruñeko Epaitegiak bi urte eta egun bateko kartzela-zigorra ezarri zion. Gizon horrek emakumea bortxatzen ari ziren uneko irudia zabaldu zuen sare sozial batean –Whatsapp–. Argitalpen horrek 64 iruzkin jaso zituen, eta 13 *Atsegin dut*; 16 aldiz partekatu zuten beste pertsona batzuek. Argi esango dut: 64, 13 eta 16 bortxaketa gehiago.

Adierazi behar da goian aipaturiko emakumeen aurkako indarkeria horiek ez direla berriak, baina erabilitako bideak –bideoak, irudiak...– biral bihurtuta izan dezaketen hedapena neurtu ezina da. Haria bidean jarri eta dena hasi duen erasotzaileaz gain, ziberjende askoren laguntza behar izaten da baimenik gabeko argazki bat, bideo bat edo irain batzuk partekatzeko; izan ere, etengabe halako edukiak birbidaltzen eta partekatzen dituzten/ditugun ziberpertsonak daude/gaude. *Like* sakatu edo/eta horrelako mezu bat partekatzen dugun bakoitzean, biktima behin eta berriz biktimizatzen dugu eta indarkeria horretan parte hartzen dugu.

Zoli ibili, ahobizi!

OSKAR ELIZBURU

ARRASATE

Zoli ibili, ahobizi! Hasi da Euskaraldia, euskarari *txitxinpe* egokia emateko; eta, ez gara bada *uste handiko* euskaldunok *topeka* ibiliko belarriprestekin, ezta? Euskara batuan berbetan datozenekin *tonto usainez* eta harro jarreraz *topeka* ibiltzea da, zoritxarrez,

batzuetan daukagun *tema*; bai, *temoso* jartzea gure euskalkiaz, edo harago, "sukalkiaz".

Euskara era itxi eta *zurrunean* erabilia *triskaziñua* eragiten dugu, eta besteen *akats* eta ezinen aurrean *triperre* izanda, egonezina. Edonorekin *tril egiten* dugunean, edota ariguneetan gaudenean, *senperrenak eginda*, *sena* erabilia, eta *soseguz* berba eginda, agian, lortuko dugu ondokoa *solte* ibiltzea, eta ez *solorik solo*. Bestela, *sekula santan* ez dugu lortuko erabilerarako *aterpe* nahikorik. Hortaz, ez *pipertu* eta ez bota *morrosarik*, komunikazioari *maratilla* ireki nahi badiogu, arren!

Euskaraz *tipili-topolo* dabilenak etengabeko *lanparra* behar du, euskara jaso eta *lausoa* den mundu horretan ibiltzeko *abarka* onak, *laprast* ez egiteko, eta luzaroan irauteko, *hauspoa*. Esango nieke, belarriprestei, *lotsabako jarduteko* gure aurrean, beldurrik gabe; eta ahobiziei ez izateko *lotsabakoak*, hau da, lotsagabeak. Ikasten dabilenari, bestela, *kontrako eztarritik* sartuko zaio guk, *danba*, *jaurtitakoa*; *kokildu* egingo


da. Gure "sukalki" horretan *kaparra* ematen badiegu, *galbaia* ez badugu pasatzen, *higuindu* egingo ditugu, eta euskaratik *urrundu*.

Eta *zer demontre* egin orduan! Bada, gure *etorrixa galgatu apur bat*, *erretolika* arindu, ez *estutu* eta *erne egon* bestearen keinuei, jar dezakeen *betozkoari*... *Borondate eta ardura kontua* da. Euskara eroso erabil dadin bestearen lekuan jarri eta *auzolana* bultzatu beharko genuke. Badakit *bihelekua* dela, askotan dena *bertan behera laga* eta erdarara pasatzeko gogoia edukiko dugula. *Baina ez dago bainarik! Ama eta aita pontekoen* zeregina hartu eta *arduraz, aitzakia* barik, alferkeria gainditu eta ahalegindu gurea hobetzen... gure akatsak aitortuta eta zuzenduta lortuko dugu. Hortaz, *adorea* eduki eta *arnasestu dabilenaren abaroa* izan; hori delako ahobizion funtzioa!

(Oharra: etzanda dauden hitzak gure *bailarakoak*-edo dira; ondo *aittu* dituzu guztiak? Horrela ez bada, *pentsau* gure "sukalki" itxiaren aurrean, eta *danba* entzunda, belarriprest batek zelako harresia topatuko duen!)

HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBEDA



'Ekobulebar'-a egiteko lanak hasi dituzte jada, Villa Amparo inguruan

2021eko urtarrilean ziren hastekoak, baina aurreko astean hasi dituzte lanak, Villa Amparo inguruan eraikiko duten ur-parkearen gunean; tartean, hainbat zuhaitz moztu dituzte: "Proiektuak landarediaren berrantolaketa bat planteatzen du"

Eneko Azurmendi ARRASATE

Ekobulebar-a egiteko obrak 2021eko urtarrilean hasia aurreikusten zuen Udalak, baina aurreratu egin dira. Aurreko astean hasi zituzten eremuaren antolaketa lanak, edukiontziguneen aldaketak, zoladuraren markaketa eta bestelako hainbat lan, eta aste honetan, astelehenetan, hainbat zuhaitz moztu dituzte Villa Amparo inguruan, ur-parke bat egiteko. Horrek, gainera, haserrea piztu du hainbat herritarengan. Udal Gober-

nuak nabarmendu duenez, halere, proiektuak "landarediaren berrantolaketa planteatzen du, parke berrian haur eta gaztetxoaren segurtasuna bermatze aldera", eta horregatik moztu dituztela zuhaitz horiek.

Esan moduan, Villa Amparo eraikinaren inguruan ur-parkea egitea erabaki du Gobernuak, "Santa Barbarako parkeak izandako arrakastari jarraiki", ibaiaren alboan. Gobernuak adierazi duenaren arabera, parke berri horrek bi gune izango ditu: lehe-

na haurrei zuzendutakoa izango da, ur-zirkuitu batekin, eta bigarrena, gaztetxoentzat, 18 ur-jolas baino gehiagorekin. "Helburua da 2021eko ekainerako martxan egotea ur-parke berria".

Modu horretan, Udal Gobernuak azpimarratu duenez, hirigintza proiektuekin aurrera jarraitzen dute, "bi helburu nagusi" oinarri hartuta: "Etor-kizuneko Arrasate eraiki, garapena, iraunkortasuna eta eraldaketa ekologikoa oinarri, eta tokiko enpleguaren sustapena,

COVID-19ak eragindako pandemiaren aurrean".

Lanak, fase ezberdinetan

Aipatutako ur-parkeaz gain, *Ekobulebar*-aren baitako beste lan batzuk ere egingo dituzte epe laburrean. Esaterako, Maiazaren Bata plaza eta Maalako biribilgunea lotuko dituen bidegorriak jarraipena izango duela azaldu du Udalak. "Gari-baiko autobus geltokiari itxura berri bat emango zaio, motorentzako eta bizikletentzako

aparkalekuak eta taxien garelakua ere berregokituz. Horrez gain, Biteri eta Maalako biribilgune arteko zatia oinezkoentzat eta bidegorriarentzat bakarrik utziko da, eta ibilgailuak jada ezingo dira hortik igaro".

VILLA AMPAROKO UR-PARKE BERRIAK BI GUNE IZANGO DITU ETA 18 UR-JOLAS BAINO GEHIAGO



Itxura hau izango du Villa Amparoko ur-parkeak. ARRASATEKO UDALA

Proiektu alternatiboa aurkeztu du EH Bilduk, eta berriz aztertzea eskatu

Ekobulebar-arekiko proiektu alternatibo bat aurkeztu du Arrasateko EH Bilduk asteon, "oinezkoak espazio eta protagonismoa berreskuratzeko aspaldian autoaren mesedetan galdutakoa".

Autobus geltoki "duin" bat

Proposamenean, aldaketa nagusia autobus geltoki "duin" bat izango litzateke, estalia eta sei bat autobusendako lekua edukiko lukeena. Arizmendiarriz plaza zati bat, ondoko berdegunearen beste zati bat eta biribilgunea hartuko litzateke espazio horrek. "Era berean, Nafarroa etorbidea noranzko bakarrekia izango litzateke eta Roneok biribilgune erraldoi bat izateari utziko lioke. Gainera, modu horretan, autobusen trafikoa erdira murriztuko litzateke, oinezkoentzako eta bizikletentzako lekua irabaziz eta poluzioa gutxituz, airearena zein akustikoa".



Autobus geltokia hor jartzeak beste hainbat aukera ahalbidetuko litzukeela azaldu du EH Bilduk. "Trafiko gabeko espazio izugarria irabaziko genuke. Adibidez, Garibai etorbide osoa oinezkoentzat izanda, lorategi eder bat atonduko genuke Iturbide inguruan, gure nagusientzat gune atsegina eta eroso sortuz. Arrasate erdigunean arbolak eta berdeguneak zabaltzea oso garrantzitsua da".

Euren proposamenarekin, nabarmendu dute Kulturolara eta Musika Eskolara "arrasatear askok" egingo dituzten joan-etorrietan segurtasuna hobetuko litzatekeela. "Gainera, irabazitako espazioak Zaldibarko parkean esku hartzea ahalbidetuko luke, baita aisialdirako gunea hobetzeko ere".

"EZ DUGU GURA RONEO AUTOBUSENDAKO BIRIBILGUNE ERRALDOI BIHURTZERIK"

Bestalde, dagoeneko hasi duten beste lanetako bat Nafarroa etorbideko autobusendako geralekuarena da, Roneo eta Zerrajera artean. Geraleku hori bigarren mailakoa izango da, eta autobusen trafikoa arintzea izango du helburu; batez ere, Garibai etorbideko lanek irauten duten bitartean. Hasiera batean, herri-busarendako izango da geltoki hori.

Grupo San Juan, geroago

Grupo San Juan berriro urbanizteari dagokion zatiari geroago helduko diote. Izan ere, Udal Gobernuak bizilagunekin adostasunera heldu ostean, aldaketa batzuk egingo dituzte esku-hartzean. "Bizilagunekin urriaren 20an egindako bilera-aren arabera, egin beharreko aldaketak egin ostean gauzatu-ko da zati hori. Bizilagunekin

ONDO BIDEAN, LANAK 16 HILABETEAN BUKATZEA AURREIKUSTEN DU UDAL GOBERNUAK

adostu da arkua ez botatzea eta urbanizazioaren saneamendua berritzea".

Izan ere, Grupo San Juango bizilagunek saneamendua egokitu gura dute, eta obra publikoa aprobetxatu aldaketa egiteko. "Bizilagunek etxebizitza bakoitzaren saneamenduari dagokion zati pribatua hartuko lukete beren gain, eta Udalak, dagokion zati publikoa. Horretarako, proiektua berrikusiko da eta saneamendu-aldagaia txertatu-ko da; horrela, azpiegitura oso-rik berrituko da, bizilagunekin lankidetzan", nabarmendu du Gobernuak. Proiektua berriz idazteak hiru urtera arteko atzerapena izan ditzake epeak.

1.700.000 euroko aurrekontua

Construcciones Moyua SL enpresa ari da aipatutako lan horiek egiten, eta, aurrekontuari dagokionez, 1.729.079,97 eurokoa da -BEZ barik-. Hasiera batean, behintzat, lan horiek 16 hilabete-ean bukatzea aurreikusten du Udalak. "Obra garrantzitsua dela uste dugu, eta aurrera goaz etorkizuneko Arrasate atsegin bat eraikitzeke helburuarekin".

Bidegorri sarea osatzea

Arrasate "jasangarriago eta irisgarriagoa" osatzeko, bidegorri sare "osoa, integrala", eraikiko litzateke. "Orain daukagun asfalto gorriko zati bakanduak atzean utziko genituzke. Garrantzitsua da berehala gauzatzen hastea, garestia ez delako eta zailtasun tekniko nabarmenik ez dagoelako. Beraz, gaurtik, egingarria da".

Teknikoki, egingarria

Argi utzi gura izan dute "Udal Gobernuak ezetz esan arren" aldaketa hauek egitea posible dela oraindik. "Grupo San Juan, esaterako, ateratu dute proiektutik, bizilagunekin hala adostuta. Beraz, hau ere posible da aldatzea, ez baita kontratua bertan behera uztea, moldatzea baizik". Era berean, adostasunean oinarrituko den plangintza izatea gura dute. "Alderdi politikoeekin, herriko eragileekin eta herritarrekin

hitz eginda". Horren harira, aurrerratu dute lotuta dituztela lehen bilerak. "Gaur hasiko gara bilerekin, Roneoko bizilagunekin, Grupo San Juanekoekin, Nafarroa etorbidekoekin, ostalariekin eta komertzioekin. Izan ere, herriari azaldu gura diogu gure alternatiba".

Planteatzen dituzten aldaketa eta proposamenak jasotzen dituen webgune bat ere jarri dute eskuragarri: Laubide.eus.

Oxigeno gehiagoko proiektua

Azkenik, EH Bilduk uste du euren proiektuak "oxigeno gehiago" ematen diola zona horri. Eta, hori dela eta, proiektua berriz aztertzeke eskatu gura diote Udal Gobernuari. "Ez da alderdikeria kontua. Benetan uste dugu herriarendako onena dela. Zalantzarik gabe, mondragoetarrek bizi-kalitatea irabaziko lukete".

"Ez da lehentasunezkoa"

Elkarrekin Arrasate udal taldearen esanetan, EAJ eta PSOE goitik behera definitzen dituen proiektua da *Ekobulebar*-a. "Euren eraikuntza enpresa kuttunen poltsikoak berotzen dituzte, ez da lehentasunezkoa krisi sozial baten erdian, ez ditu zuzenean eragiten dituen auzokideak kontuan hartzen eta, gainera, itxurakeria eta zuriketa eginez *eko* hitza aurretik ezartzen dute. Harritzekoa da ustezko *Ekobulebar*-aren lehen pausoa zuhaitzak

bota eta ura xahutzen duen parke bat ezartzea izatea", nabarmendu du taldeko bozeramaile Igor Urizarrek. Gaineratu du horrelako esku-hartze urbanistikoetan "nahitaezkoa" dela eragile ekologisten ikuspegia barneratzea: "Baina hori Gobernu honekin utopia hutsa da". Gobernuaren leitmotiva behin eta berriz "itxurakeria" dela dio. "Eta errealitatea da herria geroago eta esparru berde gutxiagorekin uzten ari direla", azpimarratu du.

Udal politikaren eduki handienetakoa aurrekontuetan lehentasunak ezartzea dela uste du Urizarrek. "Udal Gobernuak *Ekobulebar* proiektura 2021eko aurrekontuaren %3,4 bideratuko du, Gizarte Larrialdietarako laguntzara bideratutakoa baino hiru aldiz gehiago. Nahiago du dirutza horiek euren enpresa lagunetara bideratu, beharrenda dauden arrasatearrak artatu baino. Hau klase gorrotoa da, eta Gobernu hau, langile familien etsaia", aldarrikatu du.

Aurrezki gehiago bazkide izateagatik

Azaroaren 30etik abenduaren 8ra

-40%



Jostailuetan 30€-tik gorako erosketengatik

JOSTAILUETAN

(Baloiak, haurren eta gazte bizikletak, irristailuak eta patineteak **)

Bazkidea bazara

Deskontu-kupoietan itzuliko dizugu hurrengo erosketetarako.

Kutxatik pasatzean, Eroski Club txartela aurkeztean, erositako produktuen %40ri dagokion zenbatekoa itzuliko dizugu kontu-txartelean.
** Patinete elektrikoak ez dira sustapenean sartzen. Erosketen hipermarketuetan baliu duen sustapena.
Gehienez 10 euroko baliu duen txartelean zaltzen da deskontua. Erosketen hipermarketuetan 25 eurotik gorako erosketengatik truka ditzakeen txartelak, gero indogabetan eta Eroski Baloietan izan ekit.
Truke-aldia: 2020ko abenduaren 8tik 31ra. Kontuak gainerako baldintzak zuzen azalduko dira Eroski online-n.



Musakola z/g ARRASATE,
Tel.: 943 71 10 30



Jose Angel Iborra eta Angel Muñoz taxilariak, Garibai etorbidean, euren taxiak atzean dituztela. E.A.

Udalak akordioa apurtu duela diote taxi-gidariek

Arrasateko taxilariak diote Udala eurekiko sentsibilitate falta izaten ari dela, eta hiru eskari nagusi egin dizkiote: "1980tik aldatu gabe dagoen araudia eguneratzea, guardiak ordainduak izan daitezela eta gaueko segurtasuna bermatu diezagutela"

Eneko Azurmendi ARRASATE

Hamar taxilariak sinatzen duten idatziak dio 2005ean hainbat akordio lortu zituztela Arrasateko Udalarekin. "Batetik, Udaltzaingoak hartuko zuela konpromisoa gure zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonak aurrez identifikatzeko eta gero guri eskaera helarazteko, eskaera telefonoz izanda ere. Bestetik, guardiako taxilariak zerbitzua ez emateko erabakia har zeza-keela bezeroa mozkortuta edo dirurik gabe bazegoen, esaterako, eta Udaltzaingoari abisatu".

Akordio horiek, azaldu dutenez, hautsi egin ditu Udalak. "Horren eraginez, guardiako taxilariaren gain geratzen da ardura eta atentzio guztia eta Udalak egin duen bakarra da telefono mugikor bat jarri gure esku", diote.

Gaueko segurtasuna bermatzea Taxilariak azpimarratu dute urteko 365 egunetan bermatzen dutela zerbitzua, eta horretan jarraitu gura dute, baina gutxie-

neko segurtasun baldintza batzuekin. "Batzuetan, parrandatik bueltan etxera eramateko eskatzen digute, mozkortuta edota bestelako drogen eraginpean daudela eta, gainera, ordaindu gabe ihes egiten digute. Horrez gain, ispiluak ere hautsi izan dizkigute edo bestelako kalteak eragin. Hori onartezina da, eta Udalaren partetik borondate falta ikusten dugu hori konpontzeko", adierazi dute.

Guardiak ordainpekoak izatea

Eguneroko lan jardunaz gain, diote astero 70 orduko guardia egitea dagokiola kolektiboari, 22:00etatik 08:00etara. "Guardia horiek ordainduak izatea gura dugu. Gau guztian dei baten

"ZERBITZUA EMATEN SEGITU GURA DUGU, BAINA GUTXIENEO SEGURTASUN BALDINTZEKIN"

zain egotea gura badute, ordaindu egin beharko ligukete. Hori gutxi ez eta, dena delakoagatik, gaueko dei bat ez badugu erantzuten edota libre ez bagaude, 300 euroko isuna jaso dezakegu", aldarrikatu dute.

Azkenik, alkateari eskatuko diote araudia eguneratu dezala, "1980tik aldatu gabe dagoelako taxien araudia Arrasaten".

Fruiturik gabeko negoziazioak

Gai honen harira, badira hila-bete batzuk taxi-gidariak eta Udala harremanetan daudela, baina ez dute adostasunik lortzen. Urri hasieran, esaterako, bilera egin zuten gremioko kideek zein udal ordezkariak, eta hainbat gai izan zituzten hizpide. "Hainbat eskaera egin zizkiguten eta guk puntuz puntu erantzun genien, idatziz, gaueko zerbitzuen ordainsariei, guardien ordutegiei edota zerbitzua ez eskaintzeko aukerari buruz, esaterako. Zentzu horretan, ez daukagu ezer gehiago esateko", dio Gobernuak.

EUSKARALDIA

Ariketako bizipenak partekatuko dituzte Euskararen Egunean

Abenduaren 3an, Euskararen Egunari "ukitu berezia" eman guran, *Bizipenen (h)arigune* bilakatuko dute Nafarroa etorbidean dagoen Euskararen Plaza. "Proposatzen dizueguna da Euskaraldian zehar izan dituzuen bizipenetako bat aukeratu, euskarri batean islatu eta Euska-

raren Plazara ekartzea, han jarriko dugun harizko sarean zintzilikatzeke. Zuen esku uzten dugu ze forma eman: argazki baten bidez, orri batean idatziz, marrazki batean irudikatuz...".

Egun guztian zehar egongo da horretarako aukera, 10:00etatik 18:00ak arte. Bestalde, POOK kolektiboko kideek mural bat egingo dute plazako pareta batean, *(h)arigunean* zintzilikatutako euskarriak baliatuz.

Hirugarren autobus linea jarriko du abian Udalak, ekainean

Linea azkarra izango da, beheko aldetik era zuzenean lotuko dituen Arruena-Eroskiko geltokitik-Arimazubi eta San Andres. Ibilbidea eta izango dituen geltokiak honako hauek izango dira: Eroski, Gipuzkoa etorbidea; Maalako biribilgunea; Otalora Lizentziaduna; Muzibarko biribilgunea; Zarugalde; Udala plazako errotonda; Arrasate pasea-

lekua -Arimazubi-; Alfonso VIII kalea; Doctor Bañez kalea; Maiazaren Bata kalea; Garibai etorbidea; Biteri; Nafarroa etorbidea; Deba etorbidea; Eroski.

Asteleheneetik egubakoitzera, lehen irteera 07:35ean izango da eta azkena 20:05ean. Zapatuetan, lehen irteera 08:35ean eta azkena 14:00etan -abuztuan izan ezik-. Tarifei dagokienez, linea guztiak merkeagoak izango dira: bidaia arruntak 1,85 euroko prezioa izatetik 1,35 eurokoa izatera pasako dira.

Abian da berriro Sexologia Zerbitzua, urtebeteren ostean

Jendaurreko arreata astelehene-tan (10:00-13:00) eta egunetan (16:00-19:00) eskaintzen dute, eta telefono, Whatsapp eta posta elektronikoko bidezko kontsultak ere egin daitezke, 943 25 20 66 eta 747 40 21 40 zenbakietan eta sexologia@arraste.eus helbidean. Abenduaren 4an, GIBaren inguruko tailerrak egingo dituzte, Biteri plazan, 10:00etan hasita.

Aske utzi dute Josu Arkauz arrasatearra, astelehenean

Azaroaren 23an utzi zuten aske. Duela hilabete lekualdatu zuten arrasatearra Murtziatik Valladolidera, aske geratzeko hilabeteren faltan, eta astelehenean atera zuten Valladolideko espetxetik, 29 urte, 8 hilabete eta 4 egun kartzelan egin ostean. Astelehenean bertan, "biziarteko zigorrak" salatzeke ekitaldian, aipamena egin zioten Arkauzi.

OHARRAK

Odola emateko aukera datozen asteetan

Abenduaren 10ean 09:30etik 13:00etara eta abenduaren 17an 16:30etik 20:00etara, Arizmendiarieta plazan.

Mondravember: familia argazkia

Bihar, zapatua, 13:00etan, familia argazkia aterako dute Monterron parkean, Mondravember ekimenaren baitan.

EH Bilduren Herri Batzarra

Azaroaren 30ean, astelehena, Herri Batzarra egingo du EH Bilduk, epe motzerako dituzten egitasmoak zein erronkak partekatu eta komunitate mailan aztertzeke helburuarekin, Bilgunean, 18:30ean. Online ere jarraitu ahal izango da.

"Kirola eta ikasketak uztartu ditzaket hemen"

IRENE MURUA LOUISIANA TECH TALDEKO SASKIBALOI JOKALARIA

Abuztuan abiatu zen 18 urteko gaztea AEBetako Louisiana estatura, unibertsitateko saskibaloia maila gorenean jokatzera. Aste honetan hasi dute liga, garaipenarekin

Hasier Larrea ARRASATE

Ointxe!-ren harrobiko jokalariaik beste abentura bati ekin dio Ameriketako Estatu Batuetan: Ruston-eko unibertsitatean *Business* ikasketak eta saskibaloia uztartuko ditu datozen lauzpabost urteetan. Ointxe!-Araskirekin zenbait txapelketa irabazi ditu, eta Gasteizko taldearekin elitean aritzeko aukera ere izan du. Azken urteetako progresioari jarraipena emateko joan da Louisiana Tech-era, eta batek daki noraino heltzeko gai izango den. **Lehen partida jokatu berritan, ze sentsazioekin aritu zara?**

Aste honetan hasi gara lehiatzen, eta taldeak oso maila txukuna eman du. McNeese Staten aurka jokatu dugu etxean, eta nahiko erraz nagusitu gara (90-45). Hasieran kantxan urduri egon banaiz ere, lasaitzen joan naiz pixkanaka. Oraindik gehiago sinistu behar dut neure buruarengan, baina, orokorrean, balorazio positiboa egiten dut.

Ze itxura hartzen diozu taldeari?

Taldea prest dago. Kezka bakarra COVID-19ak eragiten digu: jokalaria garenez, norbaitek positibo emango balu, asko igarriko genuke haren falta.

Nolako esperientzia ari da izaten?

Intentsua, egia esan, baina pozik nabil. Ingelesarekin moldatzen



Irene Murua, ligako debutean. LOUISIANA TECH

ari naiz, gero eta hobeto komunikatzen naiz. Egunero hiru orduz entrenatzen gara kantxan, eta ondoren, gimnasioan ere aritzen gara. Horri unibertsitateko ikasketak gehituz, denbora libre gutxi izaten dut astean zehar; asteburuetan lasaiago ibiltzen naiz, beraz. Orain, lehenengo lauhilekoa bukatu duguenez, saskibaloian zentratuko gara buru-belarri.

Zer emango dio Irene Muruak bere taldeari?

Agresibitatea, errebotea, gogortasuna eta defentsa, horiek dira

nire puntu indartsuak. Kantxa barruan bi postutan joka dezaket: hegalean eta hegaleko pibot. **Zenbaterako egongo zara han?**

Normalean, unibertsitate-gradu osoa egiteko kontratua luzatzen diete klubek jokalariei, lau urteko iraupenarekin. Aurten, COVID-19a dela eta, masterra ere egiteko aukera eman didate; ondorioz, bost urtez gera naiteke hemen.

Eta ikasketen ostean, zein izan daiteke hurrengo pausua?

Munduko saskibaloia ligarik onenean, WNBA-n, jokatzeke auke-

raren bat egon liteke. Izan ere, bertako taldeek *draft* edo hautaketa egiten dute karrera amaitzen duten saskibaloia jokalaria onenekin. Baina oraindik goiz da horretan pentsatzeko.

Nola gauzatu zen fitxaketa?

Ointxe eta Araski taldeekin Espainiako txapelketetara joaten ginenean, agentziak egoten ziren jokalariai jarraitzen. Haiek galdetu zidaten ea Ameriketako Estatu Batuetara (AEB) joan nahi nuen, eta Arri entrenatzaileak eta familiak bultzatu ninduten esperientzia probatzera. Haiengatik izan ez balitz, ez nintzen hemen egongo gaur egun. Baiezkoa eman nuenean, AEBetako unibertsitateen aurrean aurkezteko *highlights* bideoa egin zidaten, eta talde askok erakutsi zuten nirekiko interesa.

Unibertsitate askok jo dute zure atea; zergatik Louisianara?

Otsailen aitarekin etorri nintzen unibertsitate batzuk bisitatzen, eta akademikoki guztiak iruditu zitzaizkidan interesgarriak. Kirol kontuek bultzatu ninduten Louisiana aukeratzera. Sentsazio politik izan nituen jokalariai ezagutzerakoan, baita instalazioekin ere.

Zein egoera bizi du han emakumezko saskibaloia jokalariai?

Euskal Herrian eta Espainian baino profesionalagoa da emakumezko saskibaloia jokalariai egoera AEBetan. Jokatzeko ari naizen liga Espainiako mailarik gorenarekin konpara daiteke, kontuan hartuta gorago WNBA liga daukagula.

Non igartzen duzu profesionaltasun hori?

Arlo guztietan. Lan saioak, adibidez, oso zorrotzak dira, arlo fisikoa asko lantzen delako. Bestalde, kirol instalazioak handiagoak dira, arropa piloa ema-

ten digute, eta ikasteko ere erraztasunak dauzkagu; esango nuke kirola eta ikasketak uztartzea Euskal Herrian baino errazagoa dela.

Ze neurri hartu dira kirol arloan COVID-19ari aurre egiteko?

Orain arte, musukoarekin entrenatu izan gara, eta astean hiru aldiz egiten digute PCR proba. Ligako formatua ere aldatu egin da. Lehen, bizpahiru bidaia egiten zituzten denboraldian zehar talde beraren aurka jokatzen. Orain, aldiz, bidaia bakarrean jokatzen dira partidak. Beraz, bisitari bezala joaten garenean, hiru partida jokatuko ditugu erreskadan talde beraren aurka, gero berriz ez itzultzeko. **Louisiana ondoko estatuak ere ezagutuko dituzu, beraz.**

Bai; nire konferentzian daude, esaterako, Texas, Arkansas, Virginia eta Michigango taldeak; beraz, bertara ere joango gara. **Zeure antzeko esperientzia bizi izan duen norbaite gomendiorik jaso al duzu?**

Bai; Araskin jokatzen nuenean bazegoen taldekide bat Ameriketako Estatu Batuetan saskibaloian jokatzen ibili izandakoa, eta harekin partekatu ditut zenbait zalantza. Ondo gomen-datu naudelakoan nago.

Zenbat partidatu jokatuko dituzue denboraldi honetan?

Fase honetan zazpi neurketa jokatuko ditugu, eta urtarritetik aurrera beste 28. Emaizta onak lortzen baditugu, *National Championship*-erako sailka gaitezke.

"NEURE BURUARENGAN KONFIANTZA HANDIAGOA IZAN BEHAR DUT; HALA ERE, ONDO NABIL"

Mondraren arropa Zeziagaren lokalean jarri dute erosgai

Erdigunea "aldi baterako zuri-more" izateko asmoz, zapatu goizetan irekiko du klubak denda historikoa

H.L. ARRASATE

"Mondra herrira hurbildu ahal izateko", Mondragon FCko ordezkariak Zeziagaren lokalean izango dira azaroko eta abendu-ko larunbatetan, 10:30etik 13:30era. "Arrasateko erdigunea

zuri-more izatea nahi dugu, eta, horretarako, gero eta gehiago saltzen diren produktuak jarriko ditugu ikusgai eta erosgai", adierazi du klubak.

Portaloi ondoko lokaleko erakusleihoetan herriko futbol

taldearen kamiseta ofizialak daude, babesleekin batera, "klubari ematen dioten laguntza eskertzeko". Lokalean eskuratu ahalko dira pasa den denboraldiko produktuak: partiduetako kamisetak, praka motzak eta galtzerdiak, txandal jakak eta prakak, entrenamenduko kamiseta moreak eta kirol-jertseak, besteak beste.

Eskaera hiru modutan egin daiteke: lokalean bertan, posta elektronikoz (mondraf@gmail.com) eta Mondraren webgunean.



Zeziagaren lokala, Mondragon arropa eta produktuak erakusten dituen irudi bat. MONDRAGON FC



Libertad Condicional musika taldea, Bergarako gaztetxean otsailaren 1ean emandako kontzertuan. ARRI IRAETA

Disko berria zuzenean aurkezteko "desiratzen"

Libertad Condicional Arrasateko punk-rock talde gazteak 'Errautsetatik berpizten' diskoa labetik atera berri du asteon, bideoklip eta guzti. Tabernak zabaltu bitartean, zuzenean euren gaitasuna jo dezake lan horren emaitza entzun nahi duenak

Hasier Larrea ARRASATE

Bost urteko ibilbidearen ostean, bigarren lan luzea kaleratu du Libertad Condicional musika taldea osatzen duen laukoteak. Hori entzunda, zail egiten da gazte hauek 19 urte dituztela sinistea, baina hala da. XX. mende ostean jaio baziren ere, orduko punk-rock taldeetatik edan dute txikitatik, eta euren estiloaren berri daukanak igar dezake hori. Gari Arsuaga bateria-joleak ez du ezkututzen "Hertzainak, Cicatriz, Rip eta Eskorbuto" taldeen bertsioak jotzen hasi zirela, ondoren euren kantu propioak konposatzen hasteko. "2019an grabatu genuen lehen lana, Legazpiko Subeltza estudioan, eta iazko udan aritu ginen kontzertuz kontzertu lana aurkeztu", bota du Arsuagak.

Hastapenengatik galdetuta, hauxe dio: "Nire hiru taldekideak, Julen Errasti, Urko Perez eta Peru Atxa, klase berean zeudela-eta, musikarako antzeko gustu eta grina zeukatela ohartu

ziren; beraz, taldea osatzeko abenturan murgiltzeko erabakia hartu zuten. Bateria-jolea behar zuten, nigan etorri ziren, eta halaxe hasi ginen lauok batera entseatzen". Lehenengo kontzertuak auzoetan eskaini zituzten: "Hasieran, bertsioekin soilik, eta ondoren, gure kantuekin". Herriatik eta bailaratik kanpo ere aritu izan dira: "Gure ingurukoak ez ezik, beste zona batzuetako zaleak eta lagunak ezagutzeko plazera izan dugu".

Kontzertuak egiteko garai zailak diren honetan, "gogotsu" daude euren "abesti berriak zuzenean defendatzen hasteko". Oraindik ez dute ezer zehaztu, ordea. "Ate batzuk jo ditugu, emanaldia eskaini nahi dugula

"ESTREINAKOA BAINO GEHIAGO LANDU DUGU DISKO HAU, SAIATU GARA ERRITMOETAN AUSARTAK IZATEN"

adieraziz, baina momentu honetan zaila da horrelako ekitaldi bat lotzea, eta guztiok gaude itxaroten", aipatu du taldeko bateria-joleak.

Kantuen artean, balada bat

"Lehenengo diskoko estiloa mantenduz, baina, berritasunei paso emanda, familiari eta, bereziki, gurasoei eskainitako balada goxo bat" ere badago *Errautsetatik berpizten* diskoan. Oiarzungo Ugaldetxoko eskolan grabatu dute, udan, Rebel Noise taldekoen presentzian: "Gure lagunak dira, eurak ere musika munduan sartuta gaude, eta gurekin estudiora etortzeko gonbidapena egin genien, poliki-poliki esperientzia hartzen joan daitezen". Rebel Noiseko Andoni Agirre gitarra-joleak ere parte hartu du kantu baten grabaketan.

Tabernetan eta kontzertuetan, oraingoan, ezingo dute diskoa salgai jarri, baina nahi duenak libertadcondicional50@gmail.com helbidean eskatu dezake.

Artgazkiren erakusketa abenduaren 12ra arte luzatu dute

Izaten ari den "arrakasta" ikusita, Udaleko Kultura Sailak tarte handiagoa ireki dio Kulturateko ekimenari

H.L. ARRASATE

Asteburu honetan amaitu behar bazen ere, Artgazkiko bazkideen *Arrasate 20/20* erakusketa fotografikoa bi aste gehiagoz egongo da Kulturateko klaustroan ikusgai. "Herritarrengandik harrera ona jasotzen ari dira argazkilarien irudiak, baita herriko argazki zaharren proiektzioa, norbere erretratua ateratzeko seta eta argazki-makina zaharren esposizioa ere, eta, publiko ugari gerturatzen ari denez, Udalak egitasmoa luzatzea erabaki du", adierazi du Antonio Murillo Artgazkiko bazkideak.

Albiste "ona" dela adierazi du Murillok, euren sarea hedatzen jarraitzeko ere balioko dielakoan: "Beste bost argazkilari batu dira dagoeneko Artgazkira, aurtengo erakusketatik pasa eta gero". Jendearen inpresioak batzeko tarte ere hartu dute bazkideek, eta orokorrean erakusketa positiboa izaten ari dela azpimarratu du: "Herri-mailan aritzen gara gu, eta ez daukagu diru-iturri handirik. Baten batek esan digu argazkiak kalitate hobeagoan inprimatu genitza-keela, baina gure helburua ez da bikaintasuna bilatzea, herri-

tarrei gertuko iruditeria bat eskaintzea baizik; kalitate onargarrian, noski".

Lehiaketa, Ibai-arterekin

Udazkeneko VI. Argazki Lehiaketan izena emateko epea zabalik dago oraindik; datorren astelehen gauean itxiko da. Aurten, Ibai-arte komertzio-elkartea batu da egitasmoa, "27 argazki onenak inprimatu eta elkarteko denda ugaritan jartzera" konprometitu baitira bertako kideak. Komertzio horietan salgai egongo dira argazkiok, eta saltzen ez direnekin "Ibai-arte bera geldituko da". Irudi horiek hilabete batez egongo dira dendetan, abenduan eta urtarrilean.

Orain arteko parte-hartzea ikusita, 150 argazki inguru jasoko dituztela uste du Murillok: "Iaz baino 20 gutxiago izango lirateke, baina, aurtengo gizarte-baldintza orokorrak ikusita, ez dago batere gaizki". Epai-mahaiak abenduaren 6an jakinaraziko ditu irabazleen izenak, eta abenduaren 11n egingo da sari-banaketa. Irudi bakoitzeko bi euro Errakitismo Elkarteari emango dio Artgazkik.



ARRASATE MUSIKAL

Musikarien patroiarri keinua

Arrasate Musikaleko Banda Gazteak herriko kaleetan zehar kalejira egin ohi du urtero, Santa Zezilia omentzeko. Aurten, ekitaldi "xume" bat egitearekin konformatu behar izan dute, ordea. Gauzak horrela, musikariak Monterron parkean egon ziren domekan. Aurrerantzean, "iragarrita" dauzkaten ekitaldiak egin ahal izatea da euren asmoa.



HARPIDETU ZAITEZ GOIENAREN ASTEBURUKO BULETINERA!

ALBISTEAK, BIDEOAK, ARGAZKI GALERIAK...
HARPIDETU ZAITEZ ETA DOAN JASOKO DUZU
ASTERO ZURE POSTA ELEKTRONIKOAN.

HARPIDETU ZAITEZ:
GOIENA.EUS/BULETINA



IRABAZI ERRIGORAKO SASKI BAT!
Abenduaren 8a baino lehen izena ematen
dutenen artean produktu ekologikoz osatutako
Errigorako saski bat zozketatuko dugu!

goiena
20 URTE ZUEKIN.



Lierni Altuna, Goiena telebistako platoon. ENKO AZKARATE

Egoera finantzario onari esker, proiektuak aurrera

Aramaioko Udalak uste baino diru gutxiago jaso du aurten Foru Aldunditik; hala ere, soberakinari esker, obrak egin ahal izan dituzte. Kultura arloan, orain arte moduan ekitaldiei eustea izango da Udalaren konpromisoa Gabonei begira ere

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Lierni Altuna Aramaioko alka-
tea Goiena telebistako *Harira*
saioan izan da. Egun bizi dugun
pandemiak nola eragin duen
udal jardunean eta esku astean
dituzten proiektuen inguruan
aritu da Altuna.

Pandemiari begira jarrita,
martxoan baino gogorrago jo du
bigarren olatu honek Aramaion:

"Ez gara herri isolatua eta uste
dut Debagoieneko logika jarrai-
tzen dugula horretan ere. Eragin
digu egunerokotasunean, gauzak
egiterakoan... Martxotik hona,
egunerokotasuna berreskuratu
eta gauzak nola egin asmatzen
ibili gara. Horrek eragina izan
du gainerako proiektuei begira".

Hain zuzen, lehenengo itxial-
dian, 15.000 euroko laguntza

lerroa atera zuen Udalak herri-
ko establezimenduei laguntzeko.
Diru hori banatu zuten -15 es-
tablezimenduk edo negoziok
jaso zuten dirua-. Gaur egun,
tabernak eta jatetxeak itxita
daude. Udalak ez du foro pro-
piorik sortu negozio horien
jabeekin elkartzeko, baina kon-
tuan dituztela dio: "Ikusiko dugu
zenbat luzatzen den kontua, eta,

lagundu behar baldin bada,
lagunduko dugu".

Lehen arreta zerbitzua

Azken asteetan zeresana eman
duen gaia anbulatorioko lehen
arreta zerbitzua izan da: "Mo-
mentu honetan, arazoa konpon-
du egin da, mediku titularra
itzuli delako bajatik; baina argi
dagoena da arazoa egiturazkoa
dela. Medikularrak baja
hartuz gero edo lekualdatze bat
eskatuz gero, arazo bera izango
genuke", eta zera gaineratu du:
"Guri dagokiguna da eskatzea,
eta arazo estruktural honen
erantzukizuna duenak eman
beharko du erantzuna".

Udalaren egoera finantzarioa

Aramaioko Udalaren ditu iturri
nagusia Arabako Foru Aldundia
da; hala, aurten, aurreikusitakoa
baino 180.000 bat euro gutxiago
jasoko du Udalak Aldunditik,
eta datorren urtean ere antze-
rakoa izango da kopurua. "So-
berakin nahiko ona genuenez,
proiektu eta obrekin aurrera
egin ahal izan dugu; baina da-
torren urtean, egokitu egin
beharko dugu dagoenera".

2020rako zituzten proiektuen
arte dago kultura etxea kon-
pontzea -horretan dabilta orain-;
kultura etxeko lanak amaituta-
koan, eskolako lanekin hasiko
dira. 2021eko aurrekontua lantzen
hasi diren galdetuta, Altunak
azaldu du oraindik ez direla hasi
horrekin. "Gure proiektuak Al-
dunditik jasotzen dugun lagun-
tzaren arabera izaten dira. Bi
dirulaguntza eskatu ditugu:
okindegia eta Añai ingurua iris-
garriago egin eta oinezkoek
lehentasuna izateko proiektua
dago, batetik; eta, bestetik, es-
katu dugu Arriolatik Etxague-
neko gurutzera doan bidea kon-

pontzeko dirulaguntza. Bestalde,
aurrekontua asko baldintzatuko
du Plan Foraletik jasoko dugu-
nak: eskatu dugu Barajueneko
obra zibila eta kiroldegiko obra
egiteko laguntza, obra handiak
izango direnak. Urrian eman
behar zuten erantzuna, eta orain-
dik ez dute eman. Bietako bat
jasotzea espero dugu, baina
egoera honek ez dakit nola utzi
duen Foru Aldundia".

Kultur ekitaldiak

Gabonei begira jarrita, Gabone-
tako egitaraua egon egongo dela
dio, egoerara egokitutakoa:
"Ekintza kulturalak ez ditugu
eten, horien aldeko apustua egin
dugu, kulturgintzari laguntze
aldera eta bizi ere egin behar
delako. Arauak errespetatuta
eta neurriak ondo beteta uste
dugu kultura ondo kontsumitu
daitekeela".

Olentzero guraso elkarteak
antolatzen duen ekitaldia izaten
da; aurten ere horretan bada-
biltzala dio, baina egoera ez dela
erraza. "Iazko berdina izango ez
den arren, ea denon artean zer-
bait asmatzen dugun", gainera-
tu du Altunak.

Oinezkoen lehentasuna

Herriar batek oinezkoek herri-
gunean lehentasuna noiz izango
duten galdetu dio alkateari:
"Atzeratuta daukagun zerbait
da, bai. Seinale batzuk jartzea
falta da; ez da samurra izaten
herri txikietara lan horiek egi-
tera ekartzea enpresak".

"GABONETAKO EGITARAUA EZ DA IAZKO BERDINA IZANGO; ASMATUKO DUGU ZERBAIT"

Bikoizketa lehiaketako eszenaratzeak gaur izango dira

Kultura etxean izango da zuzeneko emanaldia,
17:30ean hasita. Edukiera mugatua izango du ekitaldiak

A.E. ARAMAIO

Euskaraldiko ekitaldi nagusia
gaur egingo dute: bikoizketa
txapelketa. 17:30ean hasiko da
emanaldia, kultura etxean. Edu-
kiera mugatua izango duenez,
aurrez izena eman beharko da,

kultura etxean bertan. Partaideak
hiru kategoriatan banatuta egon-
go dira, adinaren arabera.

Euskaraldiko koordinazio tal-
deak emandako datuen arabera,
Aramaioko 268 herritarrek eman
dute izena ekimenean; horieta-

tik 222 *ahobizi*-ak dira eta 46,
belarriprest-ak. Horrez gain,
Aramaioko 20 entitatek eman
dute izena ariguneak sortzeko.

Euskararen Egunean, aben-
duaren 3an, berriz, *Egunean behin*
lehiaketako, *Aramaixon euskeraz*
taldeko sariak banatuko dituzte.
Oraindik ez dute zehaztu nolakoa
izango den ekitaldia. Sariak ba-
natzeko bi epe izango dituzte
kontuan: urriaren 5etik azaroa-
ren 1era arteko sailkapena eta
azaroaren 2tik azaroaren 29ra
artekoa. Zozketa ere egongo da.



Euskaraldian parte hartzen ari diren



"Hain da ederra Aramaio, nik ez dut meriturik"

JOSE LUIS MADINA ARGAZKILARIA

Aramaio erretratatzan maisua da Madina, eta, berriki, Udalaren lehiaketa irabazi du; leku bakoitza zein unetan erretratu behar den daki, zehaztasun maila itzelarekin

Xabi Gorostidi ARAMAIO

EITBko *Eguraldia* programa argazki ederrez hornitzen darma sei urtez. Egunero aritzeak ematen duen eskarmentuari esker, Aramaio bazarren edertasuna modu paregabe kontrolatzen du, eta bi sari jaso ditu Aramaio Udalak antolatzen duen argazki lehiaketan.

Zenbat tokitatik ikusita da ederra Aramaio?

Berdin dio nora zoazen: San Kristobalera, Untzillara, Etxaguenera, Uribarrira, Azkoagara... Leku horietatik guztietatik ezberdin ikusten da, baina beti eder. Nabarmendu nahiko nuke naturarekin lotutako paisaiak ateratzeko ez dagoela Aramaio bezalakorik. Espektakulu hutsa da. Argazkilariok ez dugu ia ezer egin behar argazki eder bat lortzeko. Gaur goizean, adibidez, hamabost argazki inguru atera ditut EITBko *Eguraldia* saiora bidaltzeko, eta horietatik ederrera aukeratzeko lanak izan ditut; kosta egiten zait.

Esaerak dio: Meritua ez da geziarena, gezia jaurti duen indiarrena baizik. Kasu honetan, ordea...

Aramaio hain da ederra, nik ez dut batere meriturik.

Egunero aritzen zara?

Ia egunero, bai. Errutina hori izanda, teknika fintzen zoaz, eta



Jose Luis Madina argazkilaria. JULEN IRIONDO

gero eta hobeto dakizu argazkiak noiz eta non atera behar diren. Eta konposizioak egiten jakitea ere oso garrantzitsua da. Adibidez: Uribarriko eliza. Ederra da, bera bakarrik, baina, elementu gehigarri bat sartuz gero, horrek egiten du argazkia berezi: lore batzuk, lore batzuk eta eguzkia... Hor dago jokoa.

Alde horretatik, maisuki kontrolatzen duzu noiz eta non egon...

Oso garrantzitsua da hori kontrolpean edukitzea. Eguzkia zein momentutan agertzen den jakiteak asko laguntzen du argazkia

perfektua izan dadin. Egunetik egunera, gutxi gorabehera, hiru bat minutu aldatzen da eguzkiaren agerrera, eta hori kalkulatzeko baduzu, badakizu zehatz-mehatz zein ordutan atera behar duzun argazkia. Ez hori bakarrik. Eguraldia, haizea eta halako faktoreak hor daude. Albinan, adibidez, gaur, 17:10 aldera, argazki ederra atera daiteke. Eguzkia orduan hasten da gordetzen, eta haren isla uretan harrapatuta konposizio ederra geratzen da; baina haizea baldin badabil, ez duzu islarik izango.



Argazki horrek jaso du Aramaio Udalaren lehiaketako lehen saria. J.L.M.

Argazki irabazlea, San Kristobalen

Goizean ateratako argazkia da, non eguzkia zuhaitz bereko bi adarren artean kateatuta dagoen. "Ez nuen oso-oso goiz altxatu behar izan. 08:00 aldera ateratako argazkia da, eta, eguzkia nik nahi nuen lekuan egon arte, itxaron besterik ez nuen egin".



Argazki horrek jaso du udazkeneko argazki onenaren saria. J.L.M.

Udazkeneko irabazlea, "nahiago"

Ametzutik ateratako argazki horri esker udazkeneko argazki onenaren saria jaso du, baina, Madinaren ustez, sari nagusia jaso duena baino politagoa da. "Niretzako izugarri polita da; tituluaz udazken hitza jarri izan ez banio, agian honek irabaziko zuen".

Azaroaren 25aren baitan, zinea eta formakuntza saio feminista

Asteazkeneko manifestazio zaratatsuaren ostean, hiru hitzordu gehiago antolatu dituzte hurrengo bi asteetarako

X.G. ARAMAIO

Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun Saila, Udala eta herriko Itur-zuri elkarteak ez dira azaroaren 25ean manifestazio bat egitera mugatu, eta hurrengo asteetan jarraipena izango

duen egitaraua prest dute. Lehenik eta behin, tematika feministak duten bi ikus-entzunezko proiektatuko dituzte. Horietako lehenak *Dios es mujer y se llama Petrunya* du izena eta hilaren 29aren ikusi ahaliko da, kultur

etxean, 18:45ean. Gizonen tradizio bat hausten duen emakume baten istorioa kontatzen du Teona Strugar zuzendari mazedoniarren film honek. Abenduaren 4an emango dute bigarrena: Lucia Alemanyk zuzendutako *La inocencia*, hain zuzen. Hau ere kultur etxean, 18:45ean.

Abenduaren 11n eta 12an, berriaz, kultura ziklikoari eta autokudeatutako ginekologiari buruzko formakuntza saioak egingo dituzte osoko bilkuren gelan; plazak mugatuak dira.

Mendi aseguruak Orixol elkartearekin egiteko epea, zabalik

"Zuen eskakizunak kontuan hartu eta aldaketak egiteko denbora edukitzeko, jarri kontaktuan elkarteak kideren batekin edo idatzi orixolme@hotmail.com helbidera abenduaren 6a baino lehen", adierazi du elkarteak. Aldaketak, berrikuntzak edo baja emateak egin nahi izanez gero, "lehenbailehen" jakinarazteko gomendatu dute.

Mugitzeko arazoak dituztenek eskura dute taxi zerbitzua

Mugitzeko arazoak dituztenei taxia garraiobide modura erabiltzeko laguntzen urteko deialdia publikatu dago jada. Hori baliatzeko eskaerak egin nahi dituztenek 2021eko urriaren 31ra arte izango dute horretarako aukera. Argibide gehiago nahi izanez gero, Udaleko Gizarte langilearen bulegora jo dezakete interesatuek.



Oreka TX taldeko kideak txalaparta jotzen. OREKA TX

Askotariko ikuskizunak abendua girotzeko

Musika, antzezlanak, bertso saioa eta pailazoen emanaldia izango dira Arkupeko oholtzan datorren hilabetearen; Olentzero eta Errege Magoen kalejirarik izango ez denez, umeendako ekitaldiak indartu gura izan ditu Kultura Sailak

Mirari Altube ARETXABALETA

Askotariko ikuskizunek eta estiloek bat egingo dute, martitzenean hasita, Arkupen. "Ezohiko abendua izango da, eta herritarrek animatzeko asmoarekin antolatutako egitaraua da; betiere, segurtasun neurriak zainduta. Herritarrek hain gustuko duten gospel emanaldia egongo

da, baita bertso saioa eta organo kontzertua ere", adierazi du Ainhoa Cabero Kultura zinegotziak, eta gaineratu: "Umeendako eskaintza indartzen ere saiatu gara, aurtun ezingo delako kalean egin Errege Magoen zein Olentzeroren kalejirarik. Hala ere, gutunak jasoko ditu horrek; hortaz, lasai egon daitezela".

Garmendia eta Plazaola

Umeendako ikuskizunekin emango diote hasiera abenduko egitarauari. Potx eta Lotx pailazo oñatiarrek *Lehiatzera* ikuskizuna eskainiko diete neska-mutikoei hilaren 8an eta Kantu Kolore taldeak, *Ametsen urtebetetzea* antzezlan musikatua, hilaren 13an.

Helduek ere izango dute eskaintzarik. Andoni Mutiloa aktore eta gidolariak *Esnatu naiz* kabaret estiloko lana aurkeztuko du; antzerkiaren, dantzaren eta musikaren bidez, identitatea, giza harremanak eta sexualitatea izango ditu hizpide. Eta Txalo Produksioak konpainia Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola protagonista dituen *Losers (Gal-tzaileak)* lanarekin etorriko da.

Gospela eta bertsoak

Musikari dagokionez, Oreka TX taldeko txalapartariak *Koklea* lan berria aurkeztuko dute. Boskotearen azken urteetako ibilbide musikala errepasatzen du proiektu horrek. Guztiz bestelako doinuak ekarriko ditu Aitor Olea Juaristi organo-jotzaileak, eta emanaldi hori parrokiari izango da. Gospelak ere ez du hutsik egingo eta The Upper Room taldeak kontzertua eskainiko du azken urteetan legez.

Bertso jaialdia ere urteroko hitzordu bihurtu da. Punta-puntako bertsolariak izango dira oraingoan ere oholtzan: Uxue Alberdi, Aitor Sarriegi, Oihana Bartra eta Iker Zubeldia. Eta Amaia Agirre arduratuko da gaiak jartzeaz.

Erakusketa aretoan, osteran, Itzal Zubillaga Alberdik *Eskuen hitzak* argazki-proiektua izango du ikusgai. Aretxabaletan bizi den gatzagar gazteak Klik Klak lehiaketa irabazi zuen *Unify* lanarekin.

Egitaraua

Abenduak 8

• **17:00** Pailazoak (Potx eta Lotx): *Lehiatzera*.

Abenduak 11

• **19:00** Bertso jaialdia: Uxue Alberdi, Aitor Sarriegi, Oihana Bartra eta Iker Zubeldia.

Abenduak 13

• **17:00** Kantu Kolore: *Ametsen urtebetetzea*.

Abenduak 17

• **19:00** Oreka TX: *Koklea*.

Abenduak 19

• **20:00** Organo emanaldia: Aitor Olea. Parrokia.

Abenduak 20

• **19:00** Kabareta (Andoni Mutiloa): *Esnatu naiz*.

Abenduak 26

• **16:30 eta 19:00** Antzerkia (J. Plazaola eta A. Garmendia): *Losers*.

Abenduak 29

• **19:00** Gospela (The Upper Room): *Goiko gela*.

Arkupen dira ekitaldiak.

Terrazen ordenantza egiteko ekarpenak aztertzen dabil Udala

Oinezkoen pasabidea ez oztopatzea, aparkalekuetan egokitzea eta itxitura mugikorrak jartzea dira batzuk

M.A. ARETXABALETA

Terrazen gaineko ordenantza zehazteko asmoarekin, ekarpenak egiteko epea zabaldu zuen Udalak orain aste batzuk, eta, behin amaituta, horiek aztertzen dihardu orain. Ostalaritzako lokalen jabeek eta negozio horietatik gertu dauden bizilagunek egindako hamar bat proposamen eta eskaera aurkeztu dituztela jakinarazi du Udalak.

Ekarpen horietako batzuek irisgarritasunari erreparatu diote. Horrela, gertuko atarierako sarbidea libre uztea,

oinezkoen pasabidea ez oztopatzea eta terrazaren eta ondoko eraikinaren artean gutxienez 1,8 metroko distantzia mantentzea eskatu dute.

Herritarrek egindako beste eskaeretako batzuk honako hauek dira: bide publikoaren erabilera mugatzea mahaiak eta aulkiak okupatzeagatik, terrazak har dezakeen azalera lurtean markatzea, ixteko ordutegiak errespetatzea, eta zaratarik eta eragozpenik ez sortzeko mahaiak, aulkiak edo eguzkitakoak arrastaka ez eramatea.

Beste ekarpen batzuk terraza mugikorrak eta finkoak jartzeko baimena ematearekin lotuta daude. "Ostalaritza sektoreak erraztasunak eskatzen ditu terrazak jartzeko", diote Udaletik, eta, horren adibide, honako eskaera hauek: aparkalekuak kentzea terrazak egokitzeko beharrezkoa balitz, oihalezko itxitura mugikorrak jartzen uztea, edo arkupeetan mahaiak ipintzea.

2021erako laguntza lerroa

Proposamen guztiak aztertzen dabil Udala eta urtarrilean egingo den osoko bilkuran hasierako onarpena ematea da asmoa.

Bestalde, Udaletik jakinarazi dute 2021erako laguntza lerro bat sortzea aztertzen dabiltzala, terrazetan egindako inbertsioei laguntzeko.



MIRARI ALTUBE

Basabeko biribilgunea, bukatuta

Bukatu dituzte Basabe inguruko biribilgunearen lanak, nahiz eta oraindik ingurua txukuntzen diharduten. Astelehenean margotu zituzten errepideko seinaleak, baita gainerako seinaleztapenak jarri ere. Gipuzkoako Foru Aldundiaren ardurapean egin dira lanak, irail bukaeran hasita, eta proiektua 196.210 eurotan esleitu zion Otegi-Gaztañaga enpresari.



Basotxo erretiratuen elkarte presidentea Aitor Alberdi egoitzaren aurrealdean. MIRARI ALTUBE

Aldenduta baina batuta lanean Basotxo egoitzan

Hainbat jarduera bertan behera utzi behar izan arren, hitzaldi bi antolatu dituzte datozen asteetarako; lehenengoa abenduaren 14an da, eta COVID-19ak herrian izandako eraginaren gainean jardungo dute Unai Elkorok eta Javier Marrek, Arkupen

Mirari Altube ARETXABALETA

Basotxo erretiratuen egoitzako atea itxita daude, baina elkarrekin bizirik jarraitzen du. Marxoan berri zuten zuzendaritza batzordea eta, bazkideekin batzar orokorra egiterik izan ez bazuten ere, Aitor Alberdi da orduko presidentea. "Gure arteko hurbiltasun fisikoa desagertu egin da ia, baina sozialki batuta jarraitzen dugu: gure elkarteak, 1.000 bazkide ingururekin, bizirik jarraitzen du", adierazi du.

Konfinamenduak bakardade egoerak areagotu egin dituela dio, gaitz fisikoak eta burukoak okertu eta marjinazioa agerian utzi, besteak beste. Horregatik, argi du elkarren beharra dutela, eta hori fisikoki ez bada posible "beste bide batzuetara" joko dute. Hain zuzen, kontu hori da Basotxoko zuzendaritza batzordeko kideak kezkatzen dituen gairik garrantzitsuenak: "Distantzia fisikoa mantendu beharra dugu, baina marjinazioa saihestu. Horretarako irtenbide bila gabiltza".

COVID-19aren gaineko hitzaldia

Azken hilabeteotan, bigarren olatuaren ondorioz, bertan behera utzi behar izan dituzte abian jarritako jarduerak: euskal dantza saioak eta memoria lanketa. Era berean, tabernaren atea itxi egin behar izan dituzte: "Elkartzeko, kontu-kontari egoteko eta jokoan egiteko leku barik geratu gara. Eta tabernako arduradun Juani eta Mari Jose egoera latzean geratu dira".

Zuzendaritza batzordeak, baina, lanean dihardu eta bi hitzaldi antolatu ditu datozen asteetarako. COVID-19ak herrian izandako eraginaren gainekoa abenduaren 14an izango da (17:00) eta Unai Elkorok eta Javier Marrek gidatuko dituzte: "Alkateak

"DISTANTZIA FISIKOA MANTENDU BAINA MARJINAZIOA SAIHESTU BEHARRA DAUKAGU"

Udalaren ikuspegiaren berri emango digu eta Marrek, Osakidetzarena". Izena aldeztu aurretik eman beharko da, Arkupen bertan. Bigarren hitzaldia, GSR adinekoen egoitzaren etorkizunaren gainekoa, urtarrean egingo dute.

90 urtekoei omenaldirik ez

Abenduaren 13an, Santa Luzia egunean, 90 urteko bazkideak omentzeko ohitura dute, baina ospakizuna bertan behera utzi beharrean izan dira: "Horregatik, jaso dezatela gure omenaldirik eta zorionik beroena bazkide horiek. Sentitzen dugu, benetan, besarkadarik eta oparirik ezin eman izana".

Erretiratuek osatutako Aretxabaleta Lagunkoia taldeak herriko ikasleen artean antolatutako ipuin lehiaketaren sari banaketa ekitaldia, osteratzen, egingo dute, nahiz eta data zehazteke izan. Kurtzebarri BHIko 145 ikasle hartu dute parte eta irabazleak dagoeneko hautatuta dituzte.

Astelehenean hasita salgai izango dira Gabonetako bonuak

Guztira, 1.000 bonu eskainiko ditu Udalak eta horiek eskuratzeko Arkupera joan beharko dute herritarrek

M.A. ARETXABALETA

Gabonetako kanpainaren barruan, herriko saltokietan erabiltzeko 20+10 bonuak jarriko ditu salgai Udalak, azken urteotan egindako lez. 1.000 bonu aterako ditu, iaz baino 600 gehiago. Horiek eskuratzeko Arkupe kultur etxera jo beharko da, astelehenean hasita. Hona hemen ordutegia: 09:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Aurreko urteetan bezala, herritarrek 20 euro ordainduko du bonua eta 10 euro jasoko ditu doan; hortaz, 30 euro izango ditu

gastatzeko. 16 urtetik gorako aretxabaletarrek eskuratu ahal izango dituzte horiek, bakoitzak bakarra. Gero, 2021eko urtarrearen 5era arte izango dute bonuak trukatzeko.

Herriko saltoki guztietan

Herriko merkataritza eta ostalaritza zerbitzuetan kontsumoa sustatzea dute helburu, eta berrikuntza da herriko establezimendu guztietan erabili ahal izango direla aurrean, eta ez bakarrik Aretxarte elkarte bazkide direnaren.

Herriko ostalariek manifestazioa egingo dute gaur, egubakoitza

Laguntza behar dutela agerian uzteko manifestazioa egingo dute Aretxabaleta ostalariek gaur, egubakoitza. Haien asmoa da 12:30 bueltan Azkena tabernatik abiatu eta udaletxeraino jotzea; gero, elkarretaratzea egingo dute han.

Herrian 25 ostalari inguru daude -16, Aretxarte kideak-, eta horien egoera gero eta la-

rriagoa dela diote: "Maileguak eskatu dituzte hainbatek, eta guztiok gaude egoera latzean".

Badakite abenduaren 10a arte itxita izan beharko dituztela tabernak zein jatetxeak, eta hortik aurrera ere jakin ez: "Luzerako izango dela kontua uste dugu, eta laguntza beharrean gaude". Horregatik, kontuan har ditzatela eskatu gura diete udal ordezkariak gaurko mobilizazioarekin, eta 2021eko udal aurrekontuan erreskate plan bati lekua egin diezaiotela.



ENERITZ URRUTIA

Ilea moztu eta dohaintzan eman

Arizmendi ikastolako irakasle batek botatako erronka onartu, eta Basabeazpi guneko hiru irakasle, guraso batek eta ikasle batek ilea moztu zuten joan den astean, Mechones Solidarios elkarteari emateko -argazkian, moztutako txirikordak eskuetan-. Amaia Gorostiza ile-apaintzaileak moztu zien eta Eskoriatzako Ixkur ile-apaindegiaren bitartez bidaliko dute elkartera.

EUSKARALDIA



Aretxabaletako Herriko Plazan Euskaraldiari hasiera emateko atera zuten argazki erraldoia. JON ANDER ALBERDI

Euskarak eta kulturak bat eginda, egitaraua prest

Euskaraldia hasita, abenduaren 4arte ariketa geratuko ez den moduan, ekintza kulturalak ere ez dira geldituko Aretxabaletan. Izan ere, liburu aurkezpen bat, antzerkia eta herriko sortzaile gazteen solasaldia antolatu dituzte egunotarako

Imanol Beloki ARETXABALETA

Joan den egubakoitzean, hasiera aparta eman zioten herritarrek hamabost eguneko ariketari. Horren adierazle da, 1.166 herritar ari direla parte hartzen Aretxabaletan Euskaraldian.

Martitzenean norbanakoen izen-emateak amaituta, ariketa egiten ari dira herritarrek, eta gogorik ez dela falta adierazi du Eñaut Zubizarretak, Aretxabaletako Euskaraldiko koordinatzaileak. Eta "martxa onean" hasi direla gaineratu du. Hala, egunotarako zenbait hitzordu ere antolatu dituzte.

Aranaren aurkezpena, atzeratu

Abenduaren 4ra bitartean, Euskaraldiaren bueltan zenbait hitzordu antolatu dituzte Aretxabaletako Euskaraldiko batzordekideek. Horietako bat gaur, egubakoitza, Arkupe kultura etxean egitekoa zena, esaterako. Oihana Arana eskoriatzarrak *Portuak* liburuaren aurkezpena egin behar zuen, baina atzeratzea

erabaki dute antolatzaileek. "Guztiz lotu barik dago hitzordua, baina abenduaren 18an egitea da gure asmoa. Aranaren baiezkotza badugu, baina Udalarekin zehaztea falta zaigu, ez dut uste arazorik izango denik. Dena ondo bidean, abenduaren 18an, 19:00etan, Arkupen izango da aurkezpena".

'Erradikalak ginen' antzerkia

Horrekin batera, abenduaren 1ean, *Erradikalak ginen* antzerkia ikusteko aukera izango da Arkupen, 19:00etan. Antzezlanak Ane Labaka bertsolariak eta Beatriz Egizabal ipuin kontalaria eta aktoreak eskainiko dute, eta "neska gazte promesa" etiketa, zahartzea, gorputzaren

HERRIKO SORTZAILE GAZTEEK MAHAI-INGURUA ESKAINIKO DUTE ABENDUAREN 3AN, 'STREAMING'-EZ

aldaketak, sexualitatea, merkatu patriarkala eta mota horretako gaiak izango dituzte hizpide. Sarrerak 5 euro balio du, eta Zaratza aretoko sarreran erosi ahal izango dira, egunean bertan, saioaren aurretik.

Herriko sortzaileekin solasaldia

Abenduaren 3an, berriz, Euskararen Eguna dela aprobetxatuz, herriko musikari gazteak batu-ko dira mahai-ingurua egiteko. Gaur egun euskal kulturak sufritzen dituen zenbait gai aztertuko dituzte.

"Udal webgunetik *streaming* bidez eskainiko dugu mahai-ingurua, 19:00etan hasita. Saioa gidatzen Aitor Zuazabeitia izango da, eta berarekin solasean Aitor Ruiz de Austri, Josu Iru- re eta Ixak Sarasua izango dira. Euskararen egoera musikan, euskal eszenaren egoera, euskarak jendearengana iristeko duen balioa, kontsumo taldeak, herriko sortzaileen egoera... Horietaz berba egingo dute".

Gabonetako jostailuen aukeraketaren garrantzia

Kukumiku Guraso Elkarateak Gabonetarako jostailuak aukeratzeko gidalerroen saioa eskainiko du

I.B. ARETXABALETA

Aretxabaletako Kukumiku Guraso Elkarateak Gabonetara begira jostailuak aukeratzeko gidalerroen saioa antolatu du. Abenduaren 10ean izango da tailerra, online, eta Arrasateko Olgeta dendako Itsaso Pagoagak emango du, 17:30ean hasita.

"Olentzeroren eskaera egiteko orduan, zalantzak suertatu ohi dira: zein da jostailurik egokiena adinaren arabera? Nola aukeratu jostailuak hezkidetzari irizpideen arabera? Nola lagundu seme-alabei katalogoetan

ageri diren estereotipoak apurtzen? Horiek eta gai gehiago lantzeko saioa antolatu dugu, Gabonen bueltan balioak eta hezkuntza ipar gisa izaten jarraitzeko", adierazi dute Kukumiku elkarateko kideek.

Tailerrean parte hartzeko, izen-ematea derrigorrezkoa izango da. Horretarako, galdetegi bat bete beharko da helbide honetan: Labur.eus/kukumiku-ekintzak. Edonork parte hartu ahal dezake eta egun bat lehenago helaraziko da saiorako sarbidea izateko esteka.

'Haurrak pandemia egoeran' hitzaldia astelehenean

Pandemia egoeran haurrek dituzten kezkak zelan argitu azalduko du astelehenean, hilak 30ean, Nerea Mendizabal psikopedagogoak. Arkupen, 18:00etan, izango da, eta *streaming* bidez ere jarraitu ahal izango da www.aretxabaleta.eus helbidean. Izena emateko, berriz, Gazteria Sailera idatzi beharko da: gazteria@aretxabaleta.eus.

Pandemia egoerak aldaketa asko ekarri ditu haurrendako; besteak beste, maskarekin ibili beharra, lagunen artean distantzia mantendu beharra eta eskolaz kanpoko ekintza asko bertan behera geratu izana. Gainera, COVID-19ak sortutako beldurrak ere izango ditu hizpide: beldurrak, dolua, etxeko harremanak eta egoeraren inguruan sortzen diren zalantzak kudeatzeko aholkuak ere emango ditu, bide batez, Nerea Mendizabalek.

Egoera onean dauden jostailuen bilketa, Loratuk antolatuta

Astelehenetik abenduaren 4ra bitartean jostailu bilketa egingo dute Aretxabaletako udaletxe zaharrean

I.B. ARETXABALETA

Loratuk egoera onean dauden jostailu bilketa antolatu du; astelehenetik abenduaren 4ra arte izango da. Bilketa Aretxabaletako udaletxe zaharrean egingo dute, eta honako ordutegi honetan entregatu daitezkeela era guztietako jostailuak adierazi dute Loratuko kideek: astelehenetik egubakoitzera 16:00etatik 20:00etara eta zapatuetan 10:30etik 13:00etara.

Jostailu bilketan 0 eta 12 urte bitarteko haurrendako jostailuak batu nahi dituzte, batez ere –

jostailuak, bizikletak, patineteak, liburuak, mahai-jolasak... Hala ere, azpimarratu gura izan dute ezinbestekoa izango dela jostailuak egoera onean egotea. Material guztia jasotzen dutenean, berriz, gero hori desinfektatzeaz Loratuko kideak arduratuko dira.

Etxean gordeta eta geldituta dauden jostailuren bat entregatzeko zailtasunen bat badu norbaitek, harremanetan jarri daiteke, 634 45 28 37 telefono zenbakira deituz edo loratu@loramendielkar-tea.eus helbidera idatziz.



Jose Luis Maqueda eta Roberto Aguilera, Andra Mari aholkularitza zerbitzueta arduradunak. GOIENA

"Bulego berria ireki arren, zerbitzu bera eskaintzen"

JOSE LUIS MAQUEDA ETA ROBERTO AGUILERA ANDRA MARI AHOLKULARITZA

Aholkularitza eta zerbitzu juridikoa eskaintzen dute eta bezeroen beharrak asetzen ahalegintzen dira. Horretarako, egoitza lekuz aldatu dute, Araba ibilbidera

Aretxabaletako Andra Mari aholkularitza zerbitzuak bulegoa lekualdatu berri du. Roberto Aguilera eta Jose Luis Maqueda arduradunen gidaritzapean, Naiara Urbina, Rosa del Palacio eta Maria Jesus Aguilera esperientzia handiko profesionalak osatzen dute taldea, eta, lan-karga handitzearen ondorioz eta bezeroekiko arreta egokia

eta arduratsua bermatzeko asmoz, lanlekua lekualdatzea erabaki dute. Orain, Araba ibilbideko 20. zenbakian –behea– dute egoitza berria.

Etap berria abiarazteko, edozein zalantza, argibide edo bestelako beharra duten herritarrentzako atea irekita ditzutela eta eskuak zabalik hartzeko prestutasuna dutela adierazi

gura izan dute, inongo konpromiso barik.

Esperientzia handiko profesionalak osatzen duzue lantaldea. Eta, 30 urtez lanean aritu zarete geratu barik, ezta?

Hala da; aholkularitza zerbitzua eskaintzen diegu bezeroei, eta administrazioarekiko eta partikularrekiko harremanak gestionatzen ditugu. Zerbitzu juri-

dikoak, oinordetza-eskubideak, familia eta oinordetza... dira uztartzen ditugunak. Eta gero, enprekin zerikusia duten kontabilitate eta zerga kontuak, hauen gaineko aholkularitza eta tramitazioak egitea da gure egin-beharra. Hori horrela, 1990a ezker zerbitzua eskaintzen ari gara sektoreko bost profesionalak osatzen dugun lantalde prestatuarekin. Jose Luis Maqueda –abokatu–, Roberto Aguilera –Gizarte graduatua–, Naiara Urbina eta Rosa del Palacio –Enpresa ikasketak dituzte– eta Maria Jesus Aguilera –administrazioa eramaten du– dira gure taldea osatzen dutenak.

Zer dela eta lekualdatu duzue bulegoa?

Lan karga eta aktibitate handiaren ondorioz, bulegoa lekualdatzea erabaki dugu. Bezeroei harrera egiteko leku txikia geukukan lehen, eta, horiei guztiei arreta egokia emateko eta lantaldea handitzeko aukerak izateko beharrezkoa zen aldaketa egitea. Hala, espazio zabal eta erosoago baten aldeko apustua egin dugu. Bulego atseginagoa eta gela gehiagorekin. Modu honetan, leku gehiagotara iristea ere bada gure helburua. Dagoeneko instalazio berrietan dena martxan dugun arren, irekiera ekitaldirik ezin izan dugu egin, baina atea zabalik dauzkagula adierazi nahi diegu herritar guztiei.

COVID-19ak baldintzatu egin dizue lana?

Gure kasuan, askoz lan gehiago izan dugu. ERTE-en eta autonomoen tramitazio eta kontsultak, dirulaguntzak... gestionatzen aritu gara. Administrazioaren partetik arazo telematikoa izan ziren hasieran, gainezka egin zuten SEPEk eta Eusko Jaurla-

ritzak, era presentzialean barik zerbitzu guztiak telematikoki eskaintzen hasi zirelako. Hala, bezeroen zalantzak argitzen aritu gara.

Une honetan, zein zerbitzu ari zarete eskaintzen?

Aholkularitza eta enpresa-kudeaketan egiten dugu lan, bereziki, eta hori da gure jardura nagusia. Orain arte izan dena, eta momentu honetan ere gauzatzen ari gara. Horrekin batera, zerbitzu juridikoa ere bai; familia eta oinordekotzetan espezializatuta gaude. Neurri egindako aurrekontuak ere egiten ari gara...

Zerbitzu pertsonalizatua eta gertukoa eskaintzen duzue, ezta?

Batez ere, horretan aritzen gara. Hori da gure indargunea. Eskaintzen ditugun zerbitzu guztiak dira pertsonalak eta pertsonalizatuak. Hala, inongo konpromiso barik eskaerak egin nahi dituztenek eskatu ditzakete edozein ekintza-jardura aurrekontu... Horretarako, 943 79 29 26 telefono zenbakira deitu dezakete, edo gure egoitza berrira etorri eta zuzenean gurekin harremanetan jarri.

Bulego berriarekin batera, hazi guran?

Noski; bulego berria ireki dugun arren, zerbitzu bera eskaintzen dugu. Eta hobe ere eskaintzen saiatuko gara berritasun honekin batera. Gertukoa, esperientziadun profesionalen arretarekin, eta inongo konpromiso barik.

"LAN KARGA HANDIAREN ONDORIOZ, BULEGOA LEKUALDATZEA ERABAKI DUGU"



ANDRA MARI
ASESORIA / AHOLKULARITZA

Fiskala • Kontablea • Juridikoa eta laborala

LEKUZ ALDATU GARA!

Araba ibilbidea 20A, behea • Aretxabaleta • 943 79 29 26 • jose Luis@asesoriaandramari.com



Puntu morea udaletxeko balkoian. IMANOL BELOKI

Adierazpen instituzional bateratuak, onartuta

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunarekin, 2020ko Euskararen Nazioarteko Egunarekin eta Mendebaldeko Saharako su-etenaren amaierarekin lotutako adierazpen instituzionalak aho batez onartu zituzten

Imanol Beloki ESKORIATZA

Azaroako ohiko osoko bilkura izan zuten martitzenean Eskoriatzako udalbatzako kideek, eta azpimarratzeko hiru puntu nagusiak adierazpen instituzional gisa aurkeztu zituzten; guztiak aho batez onartu zituzten.

Azaroaren 25eko adierazpen instituzionala Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira, Mendebaldeko Saharako su-etenaren amaieraren aurrean adierazpen instituzionala egiteko proposamena eta 2020ko Euskararen Nazioarteko Egunerako adierazpena izan zituzten hizpide.

Lanean indarkeriaren aurka

Era telematikoan egindako azaroko osoko bilkura aurretik, Udal Gobernuak eta oposizioak norbere proposamenak prestatuta zituzten arren, adostasunera iritsi eta elkarrekin landutako adierazpen instituzionala onartu zuten azaroaren 25eko Indarkeria Matxistaren Kontra-

ko Nazioarteko Egunaren harira. "Herriarregandik hurbil gaudenez, euskal udalok ahotsa jarri nahi diogu gure udalerriek emakumeekiko eta indarkeria matxistaren beste biktimak batzuekiko duten elkartasunari. Gure erantzukizuna gure gain hartzen dugu, erakunde, kolektibo feminista eta emakumeen kolektibo, aditu eta gizarteko eragile guztiekin lankidetzan eta koordinatuta. Horregatik guztiagatik, Eskoriatzako Udalak zenbait konpromiso hartzen ditu -Eskoriatzako udal webgunean guztiak ikusgai-, adierazi zuen, besteak beste, Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkateak.

Horrekin batera, Eluska Irazu EH Bilduko bozeramaileak ho-

**ALKATEAK
UDALBATZAKO BI
ALDERDIEI ESKERRAK
EMAN ZIZKIEN, EUREN
JARRERAGATIK**

nako hau gaineratu gura izan zuen: "Osoko bilkura aurretik egin dugun bileraren ostean, bertan behera utzi dugu gure testua. Mahai gainean jarri dugun proposamena izan da herriko emakume talde feminista horiei aitortza egitea, ematen ari diren pausoak garrantzitsuak direlako, beraien baitan hainbat errealitate daudelako... eta garrantzitsua da kontuan hartzea. Gure testua gai ordenatik kendu, eta Eudeleko testuan ezarrita, gure atxikimendua adierazten diogu".

Alkatearen esker mezua

"Eskertu beharra daukat, alkate bezala, bi alderdiok adierazi duzuen jarrerara. Batzuetan, halako egoeretan edo erabakietan erraza izaten da; beste batzuetan, ez hainbeste. Eta suposatzen dut ahalegin honek etorkizunean indarkeria jasotzen duten emakume horien guztien aldeko apustua izango delakoan...", adierazi zuen alkateak.

Leire San Vicente aukeratu du EEEK Kerexetaren ordezkoko

Eskoriatzako Elizateen Elkarteak zailtasunak izan ditu zinegotzi berria aukeratzeko orduan

I.B. ESKORIATZA

Eskoriatzako Elizateen Elkarteak (EEE), jakinarazi duenez, Iñaki Kerexeta zinegotzia karguan ordezkatzeko duena Leire San Vicente izango da. Orain arte bezala EEEren interesen alde eta Udalarekin elkarlanean aritzeko helburuarekin, bere lekua abenduan hartuko duela aurreikusten dute.

"Apotzaga, Bolibar, Gellao, Marin, Mazmela, Mendiola eta Zarimutzeko elizateak eta Lete auzoa bizigune izateko lan handia egin dute elkartetik pasatu diren kideek. Horietako bat izan dugu Kerexeta. Berak egindako lanagatik eskertuta, kargu hori ordezkatzeko beharra suertatu da. Horregatik, EEEKo hamasei zerrendakideengana jo eta ezin izan denez ordezkorik izendatu, zerrendatik kanpoko beste pertsona bat izendatu da".



Leire San Vicente. GOIENA

Udaleko lanak

Osoko bilkuretan ez ezik, Hiri-gintza, Mugikortasun eta Ingurumen batzordean eta Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzailean parte hartuko du, agintaldian Udal Gobernuarekin adostutako oinarriei eutsita.

Olazar auzoko espaloiak konpontzen ari dira egunotan

Olazar auzoko 1-5 zenbakien parean dagoen aparkalekuen zonan espaloia konpontzeko lanak egin ari dira eguaztena ezker. Zuhaitzak bota, eremua konpondu eta berriak landatuko dituzte. Lanak bihar amaitzea aurreikusi arren, bi astez, bidegorriaren noranzkoan eskuinaldera geratzen diren aparkalekuetan bakarrik aparkatu ahal izango da.



Olazar auzoko aparkalekuak. I.B.

OHARRAK

Gizarte langilea behar da

Jose Arana Patronatua Fundazioak gizarte langilea behar du lanean hasteko. Gizarte-lanean berezkoak diren lanak betetzeaz batera, egoitzaren kudeaketa eta koordinazioa egin beharko du. Interesdunek curriculumak bidali dezakete josearana@josearana.eus helbidera.

Autodefentsa feminista tailerra, bertan behera

Bertan behera geratu da zapatuan kultura etxean egitekoa zen zortzi orduko autodefentsa feminista tailerra. Gizarte Zerbitzueta arduradunek adierazi dutenez, ez da taldea osatu. Izan ere, gutxienez, zortzi pertsonak eman behar zuten izena, eta, hala ez denez izan, bertan behera uztea erabaki dute.

"Adinekoengandik hasi behar du aldaketak"

ASUN GARAI HERRITARRA

Eskoriatza herri euskalduna dela dio Asun Garai eskoriatzarrak. Hala ere, euskaraz egiten duen herria dela esatea asko esatea dela nabarmendu du

Imanol Beloki ESKORIATZA

Asun Garai eskoriatzarra norbanako gisa ari da parte hartzen Euskaraldian. Duela bi urte moduan, *ahobizi* rola aukeratu, egitasmoarekin bat egiten du, eta beharrezkoa ikusten du, gainera, halako egitasmoak egitea. Aurtengo ariketaren helburu nagusia, berriz, herritarren kontzientziak aldatzea dela uste du, betiere, nork bere ohituretan eraginez. Adinekoek izan behar dutela eredu argi eta garbi dauka, gazteek hortik ikas dezaten.

Euskaraldia egitasmoa zer iruditzen zaizu? Beharrezkoa da?

Oso ondo dago Euskaraldia; hala, jendea konturatzeke egiten dituen akatsez. Hau da, jendeak erraztasuna du erdarara aldatzeko, eta hori aldatu beharra ikusten dut. Hala ere, aurtan, herritar gutxiagok eman dute izena, egoera ere ez delako normala, eta kaleak hutsik daude. Honen aurrean, ez da erraza ariketa gauzatzeko, kalean ez dagoelako jenderik. Nire kasuan, nire amahizkuntza euskara da, eta gure etxean ez da erdararik erabiltzen, ez dugu ohitura hori. Hala ere, kalera irtetean aldatu egiten da, eta hor eragin behar dugu.



Asun Garai eskoriatzarra. I.B.

Non dago gakoa?

Adineko jendea ez gara askorik saiatzen euskaraz, orokorrean, eta gazteek helduengandik ikasten dute; horrenbestez, hor ikusten dut egin behar dela lanketa. Herritarrek mentalitatea aldatu behar dute.

Eskoriatzaren kasuan, herri euskalduna dela esango zenuke?

Euskalduna bai, baina euskaraz egiten duen herria dela asko esatea da. Askok jaitsi da erabilerak Eskoriatzan; lehenago askoz gehiago erabiltzen zen irudipena dut. Horrekin batera, gure euskalkia ere hor dago, pixkanaka galtzen ari dena. Aspaldiko hitz zaharrak asko gustatzen zaizkit niri, eta gure etxean oraindik erabiltzen ditugu. Esaterako: tximistari *inustargixa* esaten diogu; kazo bati, berriz, *burduntzalixe*; eta mendiko iturrietan dauden basoei, *txoleta*... Hauek dira orain burura etortzen zaizkidanak, baina asko ditugu. Gutxi erabiltzen diren arren, jendeak interesa badu aspaldiko hitzetan, eta horiek ez galtzeko ere egin beharko genuke lan.

terako: tximistari *inustargixa* esaten diogu; kazo bati, berriz, *burduntzalixe*; eta mendiko iturrietan dauden basoei, *txoleta*... Hauek dira orain burura etortzen zaizkidanak, baina asko ditugu. Gutxi erabiltzen diren arren, jendeak interesa badu aspaldiko hitzetan, eta horiek ez galtzeko ere egin beharko genuke lan.

Eskoriatzar euskaldun zaharra izanda, zein da zure erronka Euskaraldiko hamabost egunetarako?

Nik argi daukat, nire lehenengo hitza euskaraz izango da Euskaraldiko egunetan, aurrera begira, herrian bertan, eta hemendik irtenda ere. Bilobei ere hori esaten diet: "Lehen hitza egin esazue euskaraz, eta kuadrillan ere egin ezazue euskaraz". Bestela, galtzen joango da. Horrez gain, ez zait batera gustatzen esatea euskaldunak edo ez euskaldunak. Nik, askotan, euskaraz egiten dut lagunartean, eta batek erdaraz erantzun didanean, nik euskaraz jarraitzen dut, eta, berak euskaraz jakin arren, erdaraz jarraitzen du... bietako batek amore eman arte. Helduok eman behar dugu eredu, hori garbi daukat, baina, horretarako, guztiok hizkuntza ohiturak aldatu behar ditugu.

Emakumeen ahalduntze bidaia 'Matriuska' antzezlanean

Historiaren parte diren emakume guztien gorputzak, izenak eta izanak berreskuratzeko beharra azaleratuz

I.B. ESKORIATZA

Ttak Teatroaren eta Kamimaz Kolektiboa taldearen *Matriuska* antzezlanea ikusteko aukera izango da gaur, 19:00etan, Zaldibar antzokian. Umorea eta zientzia ardatz dituen antzezlanea da, eta

interesa duenak sarrerak kiroldegian erosi ditzake, bost eurotan. *Matriuska* bata bestearen barnean sarturik dauden panpina multzoa da, handitik txikira. Hain zuzen, errusiar panpinen egiturari tiraka hasita sortutako lana da Iraia

Eliasek eta Amancay Gaztañagak aurkeztu dutena. "Emakumez jositako emakume bat da Matriuska, eta panpinaren metaforak bere azalean bizi zuen hausnarketa izendatzen lagundu dio Eliasi; aurretik bizi eta izandako andreen zantzuak bilatuz bere larruan. *Nire gorputz honetan ba al dago aurreko emakumeen gorputzen informaziorik? Iritsi al da zerbait?*". Galdera sorta egitura, antzezlan proposamen bilakatu eta idazketa beka bat eskuratzeko aurkeztu zuen obra.

LEINTZ GATZAGA 25



Alex Txikon alpinistaren filmaren fotograma bat. 'MENDI BILUZIA'

Hiru eguneko Mendi Astea, hitzaldiz eta proiektioz beteta

Besteak beste, Alex Txikon alpinistaren bisita izango dute gatzagarrek Mendi Astearen egitarauaren barruan

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Udalak hiru eguneko egitaraua antolatu du Gatzagako Mendi Astearako. Abenduaren 15ean, 17an eta 19an egingo da, eta, proiektio ederrekin batera, alpinista handien kontakizunak izango dute protagonismoa, besteak beste.

"*Mendia eta harria* izenburupean, Galarza-Gardoki familiakoen testigantzak izango ditugu Gatzagako Mendi Asteari hasiera emateko. Gero, Aymar Navarro izango da, *South Lines* proiektua aurkeztu, eta proiektu berri baten nondik norakoak ere ekarriko ditu gurera, filmaren proiektioz batera", adierazi du Beñat Agirreurretak, Gatzagako Kultura zinegotziak.

Alex Txikonen kontakizuna

Alex Txikon ere Gatzagan izango da *Mendi biluzia* bere pelikularen berri ematen. 2016an

Nanga Parbat-era egindako espedizioan bizitakoak kontatuko ditu, eta alpinistak berak jasotako irudi ikusgarriak batzen dituen proiektioa ere izango da.

Abenduaren 19an, aldiz, Gatzagako herriari bira egingo diote, Mendi Asteari amaiera emateko. "Track GPSa banatuko dugu, eta, taldekakoa izan barik, nork bere aldetik egin beharreko bira izango da, herriaren bueltan egingo dena".

Herritarrek lehentasuna

Hitzaldi eta proiektioak Gatzagako elizan egingo dira, eta sarrerak fisikoki Labidean salduko dituzte. Domekatik aurrera, astebetez, herritarrentzat soilik salduko dira, eta abenduaren 7tik aurrera gainontzekoentzat irekiko da sarrera salmenta. Prezioei dagokienez: egun baterako hiru euro izango da eta bi egunerako, bost euro.

Gatzagako Mendi Astea

Abenduak 15, martitzena

- **18:00** *Mendia eta harria*. Galarza-Gardoki familiaren Baltistango testigantzak.
- **18:30** *South Lines*. Aymar Navarro eskiazaile arandarrak Hego Amerikan eginiko proiektuaren aurkezpena.

Abenduak 17, eguna

- **18:00** *Mendi Biluzia*. Alex Txikonen filmaren proiektioa eta solasaldia.

Abenduak 19, zapatua

- **08:30** *Gatza 360* (20 km, 1.250+) herriari bira. 10:00etan, berriz, *Gatza txikia*.

"Torlojugintzaren gune inportanteenetakoa gara"

JUAN BAUTISTA AYERBE FEX ELKARTEKO KOORDINAZIO-ZUZENDARIA

Torlojugintzan edo finkatze elementuetan diharduten Bergarako eta Euskal Herriko hamasei enpresez osatua, proiektu partekatuak bultzatzera dator FEX, besteak beste

Jokin Bereziartua BERGARA

Azaroaren 18an eratu zen Bergarako Fastening Excellence Center (FEX) elkarte, hamasei enpresarekin. Enpresa horien artean daude, besteak beste, Lazpiur, Erreka, Grupo TTT, Metagra eta Tornilleria Deba. FEXeko koordinazio-zuzendari Juan Bautista Ayerberen arabera, pandemiak utziko duen egoera zailari hobeto egingo zaio aurre enpresa horien guztien artean indarrak batuz gero.

Hasteko eta behin, zer da FEX?

Fastening Excellence Center akronimo ingelesa dago izenaren atzean. Finkatze-elementuak eta pieza bereziak fabrikatzeko estanzio metalikoan jarduten duten enpresen eta bere balio-katean beste jarduera batzuk egiten dituzten enpresen elkar-tea da FEX, azken helburutzat duena torlojugintzaren merkaturik gertuago egotea.

Beharra ikusi zenuten batzeko?

Behar handia. Bergaran kokatuta dago zentroa, eta hori ez da kasualitatea: torlojugintzara dedikatzen den enpresa asko dago, torlojugintza munduko askotariko adarretan. Industria-ehun handia dago Bergaran torlojugintzaren bueltan eta hori izan da hasieratik FEX sortu ahal izateko palanketako bat.



Ayerbe, astean, Miguel Altuna Lanbide Heziketako Ozaeta gelan. JOKIN BEREZIARTUA

Batzar eratzailea egin zenuten hilaren 18an. Elkartea eratzeaz harago egin duzue urratsik?

Bi batzar egin genituen. Gure nortasun juridiko berria erregistratzeko formalki batzar eratzailea egin beharra zegoen, eta eratze-batzarra bukatu eta segituan beste bilera bat egin genuen. Zertarako? Fundatzaileen artean dauden zortzi enpresek gainetarako zortzien sarrera bozkatu zezaten, besteak beste. Bigarren bilera hura baliatu genuen elkar hobeto ezagutzeko, proiektuaren egoera zein den jakiteko eta

plazaratze-prozesu honen nondik norakoak jakiteko.

Zergatik da Bergara erreferentia torlojugintza industriaren barruan?

Bolumenagatik eta duen enpresa kopuruarengatik. Zenbaki potoloak aztertzen baditugu, konturako gara Espainiako Estatuaren barruan torlojugintzara dedikatzen diren enpresen %75 Euskal Herrikoak direla, eta Euskal Herri barruan Bergara dela dugun gune inportantea. Esango nuke Espainiako torlojugintza enpresen erdia Bergaran dagoela; oso datu esan-



FEXen batzar eratzailearen osteko talde argazkia, Miguel Altuna. FEX

Hamasei enpresa, eta berriei zabalik

FEX hamasei enpresarekin abiatu da; gehienak Bergarakoak dira. Baina badira Elgoibar, Berriz eta Uharte Arakilgo enpresak ere. "Ateak zabalik ditugu enpresa berriak gure elkartera erakartzeko, torlojugintzan edo finkatze-elementuen sektorean badihardute".

guratsua da hori. Garai batean, Bergaran oihalgintzara dedikatzen ziren enpresa asko eta asko, bazirudien besterik ez zegoela. Eta gaur egun, ez dago oihalgintzaren arrastorik; ez gendake nahi oihalgintzarekin gertatu dena torlojugintzarekin gertatzea...

Ze ekintza dituzue aurreikusita?

Bi aktibitate aurreikusten ditugu FEXen: batetik, barne aktibitatearen barruan, enpresek komunean dituzten interesak lantzeko aukera izango dute; barne aktibitate horietatik espero dugu partekatutako proiektuak irtetea. Bestetik, produktuaren eta merkatuaren eremuan, betiere, enpresek izan ditzaketen eskaerei erantzun nahi diegu.

Nola eragin du pandemiak FEXen lehen urratsak egiteko orduan?

Enpresek egunerokoekin dute lehentasun nagusia, eta horrela behar du. Baina pandemiak asko

eskatzen die egunerokotik enpresa hauei, eta apenas dute denborarik eguneroko jardunez harago lan hauei heltzeko. Baina sinistuta gaude FEXen sorrerak fruituak emango dituela.

Ezer gaineratu nahiko zenuke?

Bidean jasotako babesa eskertu nahiko nuke. Hau guztia ez zen posible izango Miguel Altuna Lanbide Heziketaren, Bergarako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza barik. Miguel Altunak bere espazioak eta ezagutzak utzi dizkigu eta Udalak eta Diputazioak ere hasieratik lagundu digute.

"TORLOJUGINTZAREKIN EZ DADILA GERTATU OIHALGINTZAREKIN GERTATU ZENA; EGUN, EZ DAGO ARRASTORIK"

Herritarren babesa badute

Azaroaren 7tik ateak itxi behar izan zutenetik "egoera dramatiko" bizi dute ostalariek, eta hilaren 21ean manifestazioa egin zuten herriko kaleetan zehar, *SOSTalaritza* leloarekin. Ostalariak, janari eta edari banatzaileak eta ehunka herritar batu ziren protestara; 70 bat ostalaritza zerbitzu daude Bergaran eta 300dik gora herritarri eragiten die negozioen itxierak.



MIREIA BIKUNA

ZTB: inoizko zabalpen handiena, online zerbitzuari esker

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza jardunaldiak erabat baldintzatu ditu pandemiak eta hitzaldi guztiek izan dute online bidezko zerbitzua. Horrek ahalbidetu du inoizko zabalpen handiena izatea, modu batera edo bestera 1.825 herritarrek jarraitu zuten-eta saioaren bat. Saioak, gainera, nahieran daude ikusgai, *Ztbergara.eus* webgunean.

Pandemiako lehen Mendi Astea, Txikon gailurrean

Pol-Polek lehen aldiz azaroan antolatu duen Mendi Astea protagonista izan da Alex Txikon; 8.125 metro dituen Nanga Parbat mendira neguan egindako lehen igoeraren gaineko kontakizuna bertatik bertara jarraitzeko 110 lagun batu ziren Seminarixoa

Jokin Bereziartua BERGARA

Pandemiak gogor astindu du Pol-Pol elkartearen ere. Martxotik azarora bitartean apenas antolatu ahal izan dute ekitaldirik; gazteek irteeraren bat edo beste egin dute, baina talde txikietan eta pandemiara egokituta izan da, betiere. Mendi Astea izan dute asteon, ezohiko datetan: "Mendi Astea martxoan ospatu ohi dugu, eta justu-justu libratu genuen. Baina urte osoan zehar ia ekintzarik ez dugunez antolatu, udazkenean beste Mendi Aste bat antolatu dugu, eta oso ondo joan da", dio Pol-Pole presidentea Aitor Erañak.

'Mendi biluzia' lanaren arrakasta

Astelehenean, martitzenean eta eguaztenean ekitaldi bana izan zuten. Tetxus Barandiaranek eskalada jasagarriaren gaineko hitzaldia egin zuen hilaren 23an, Pol-Polen egoitzan: "Jende gutxi elkartu arren, oso saio interesgarria izan zen". Hilaren 24an, Alex Txikon izan zen Seminarixoa, *Mendi biluzia* izeneko liburua eta pelikula aurkezteko; Nanga Parbat (8.125 metro) mendira neguan egindako lehen igoera kontatzen du. Argi dago Txikonek oraindik ikusmin handia pizten duela. "Ikusmin handia pizteaz gain, oso ondo egon



Alex Txikon, Seminarixoa atarian, liburuak sinatzen. POL-POL

MARTXOTIK EZIN IZAN DUTENEZ EKINTZARIK ANTOLATU, MENDI ASTEA AZAROAN ERE EGIN DUTE AURTEN

zen Txikon. Ez zen pelikula bat ikustea bakarrik izan, neguan goi mailako mendi bat igo behar izateko atzetik dagoen lan guztia ezin hobeto azaldu zuen. Komunikatzaile ona da, gainera. Uste dut jendeak oso gustura jarrai-

tu zuela saioa. Hitzaldiaren amaieran egon ginen berarekin eta esan zigun 39 urterekin eta aita izan berri dela, espedizioetarako denbora asko murriztu zaiola", dio Erañak.

Eske on hitzak Udarentzat

Eguazteneko saioan, berriz, Euskal Herriko Mendi Federazioko Igor Lasak ikastaroa eman zuen, mendiko segurtasunaren eta arriskuen kudeaketarako klabe batzuk emateko. Amaitzeko, Udalak eskainitako "ezinbesteko laguntza" eskertu du Erañak.



NIRE USTEZ

ANA CARPINTERO

Emozioen zurrumbiloan

Garai honetan nekeza da emozionalki orekatua egotea, gertuko osasuna ez bada, norberarena da, egoera ekonomikoa ez bada, arau berriak dira edo hauen albo-kalteak... Hala ere, oreka emozionalari eusteko ahalegina egitea ezinbestekoa da, edalontzia erdi beteta ikusteko ahalegina egitea, alegia, nahiz eta senitarteko bat ZIU gelan baten izan edota lagun bat sufritzen ikusi, norbera zaintzea delako bestea laguntzeko eta eusteko biderik eraginkorrena. Begirada beste norabidera bideratuz gero, azken boladan eskuzabaltasun ariketarik handienetakoa ikusten dut inguruan, mendian parekoak ni zaintzeko alboratu eta maskara jartzen duenean, norbere ohiturak aldatu ditugunean besteak zaindu eta babesteko, eta gure inguruko familiak galdetu eta arduratzen, eta abar, eta abar. Garai hotz eta distantziak betetako honetan, uste dut sekula baino gehiago konektatu dugula geure emozioekin, geure ingurukoekin, arduraz, erantzukizunez, zintotasunez... Elkarzaintza delako bidea. Beraz, eskerrik asko guztion ahaleginarengatik, eta, hau guztia pasatzen denean, mantentzeko eskuzabaltasun hau.

OHARRAK

Indarkeria matxistaren aurkako antzezlan

Taupaka elkartearen eskutik *Birritan bortxatua* antzezlan ikusteko aukera egongo da bihar, hilak 28, Seminarixoa (19:00).

Asier Altuna 'Kixi'-ren 'Arzak since 1987' filma

Juan Mari eta Elena Arzak protagonista dituen pelikula hilaren 29an eta 30ean ikusi ahal da Seminarixoa, 18:30ean hasita.

Patxi Larrañagaren liburuaren aurkezpena

Abenduaren 12an aurkeztuko du *Abizenak, leinuak eta oinetxeak* liburuaren hirugarren eta azken zatia, Seminarixoa (12:00).

Kirol argazki onenen erakusketa Aroztegin

Aurten 30 urte bete dituen Kirol Argazkien Lehiaketako argazki onenak ikusgai egongo dira abenduaren 6ra arte.

Jardunen eskutik, Pettiren kontzertua

Abenduaren 10ean emango du kontzertua Berako Petti musikari ezagunak Seminarixoa (19:00), bakarka. Sarreraren prezioa bost euro da; sarrerak Jardunen egoitzan salduko dira eta saltzen ez direnak kontzertuaren egunean bertan ordubete lehenago salduko dira, Seminarixoko txarteldegian.

'Txikon efektua', pandemian ere bai

Alex Txikonek ikusmin handia pizten jarraitzen du, azaroaren 24ko saioan berretsi zenez. Gainera, ez zen inor kanpoan geratu: "Sarrera doakoa zenez eta pandemia egoera honetan, erabaki genuen ilara sortzea eta jendea sartu ahal betetzea edukiera. Egoera honetan, 116 lagunendako lekua zegoen Seminarixoa, eta 110 lagun sartu ziren", esan du Erañak.



Seminarixoa 110 bat lagun batu ziren Alex Txikonen saioaz gozatzeko. POL-POL

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Proiektuak · Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak
Leihoak · Tarimak
Egur lanak

21
K
KALITEA
Enpresa Registrada 1100/025

EUSKARALDIA

"Euskaldun berriaren rolean jarri nau Hikaldiak"

ARITZ OTEIZA 'AHOBIZI'-A ETA HIKALDIAN PARTE HARTZEN ARI DEN BERGARARRA Euskaldun zaharra izanda, hitanoa galbidean egoteak "pena" ematen dio Oteizari; hala ere, hika ondo jakin gabe egitean konfiantza falta eta lotsa sentitu dituela aitortu du

Jokin Bereziartua BERGARA

2018an *ahobizi*-a izan zen eta aurten ere rol bera hartzea erabaki du Aritz Oteizak (Bergara, 1993). Hori bai, berezitasun batekin: hitanoari atxikimendua adieraztea helburu duen Hikaldia izeneko esperientzia pilotuan hartu du parte. Aitortzen du hika ez duela behar beste kontrolatzen eta horregatik eman duela izena azken bi ikasturteetan Udal Euskaltegiak antolatu duen hitano ikasteko saioetan. **Zergatik erabaki duzu Hikaldian ere parte hartzea?**

Euskara altxor handi bat moduan ulertzen dut eta altxor handi horren barruan dagoen altxor txiki bat da hitanoa niretzat. Gabezia edo hutsune bat ikusten dut gizartean hitanoari dagokionez; bereziki, gazteen artean. Hika galtzen ari gara. Euskal Herri osoko fenomeno dela esango nuke, baina Bergaran,



Oteiza, Hikaldiaren /h hizkia daraman txapa erakusten, eguaztenean. JOKIN BEREZIARTUA

behintzat, ebidentea da. Oso gutxi entzuten da euskararen erregistro eder hau herritarren eta, bereziki, gazteen artean, eta pena da. Hitanoa apur bat sus-

pertzen saiatzeko, baina, batez ere, ikasteko eman dut izena. **Hikaldiaren aurretik hitano ikastaroetan ere hartu duzu parte, Udal Euskaltegiaren bidez. Zelan?**

Esperientzia oso aberasgarria izan da niretzat, azken bi ikasturteetako ikastaroetan eman dut izena. Bost saio dira, modu intentsiboan edo denbora tarte labur baten egiten dena, eta helburua da oinarritzko ezagutza bat garatzea. Pixkanaka praktikan jarri ahal izateko ateak ireki zizkidaten saio horiek. Iaz izan zen lehen ikastaroa, eta, gustura egon nintzenez eta oraindik ere beharra badudanez, aurten ere egon naiz ikastaroan. **Bergarako Udalean ari zara lanean, eta bertan badira ariguneak. Zelan joan da lehen astea?**

Udaleko arigunea adibide ona dela uste dut. Langile gehienok euskararen ezagutza aldetik gai gara euskaraz lan egiteko, eta gure arteko solasaldiak euskaraz izaten ari dira. Gainera, udal-txe barruan sortu da hika berba egiteko girotxoa eta lankide batzuen artean saiatzen ari gara hitanoa erabiltzen. Adin tarte zabaleko lankideak ditut eta ezagutza aldetik maila ezberdinak daude, eta ikasteko aukera ona ari da izaten. Gainera, herri ezberdinetako lankideak daude: hitano ezberdinak entzuten dira, eta hori ederra da.

Euskara ez dakitenen rolean jartzen laguntzen gaitu hika ez jakiteak? Euskal hiztuna naiz txikitatik, euskaldun zaharra. Gaztelera presente izan dut, baina euskaraz bizi izan naiz. Orain, hika

ikasten hasi naizenean eta Hikaldian parte hartzen, ohartu naiz zer sentitu ahal dezaketen euskaldun berriek euskararekin. Enpatia sentitu dut; hitanoa erabiltzea kostatu egiten zait, lotsa sentitzen dut... Euskal hiztuna ez denaren aldean jartzeko balio izan dit, neurri baten. Gainera, Euskaraldiaren egitarauaren barruan Hikadromoa ere badugu Bergaran; mintz-lagunen eredu hartuta, hika aritzeko aukera izango dugu [bihar egingo dute, azaroak 28]. **Badakizu Bergaran zenbatek daroazuen /h hizkia txapan itsatsita?** Uste dut 120 bergararrek eman dutela izena Hikaldian eta suposatzen dut pegatina ez daroaten batzuek ere hika erabiltzen dutela. Esperientzia pilotua izanda, datu polita dela deritzot. **Zer da Euskaraldia zuretzat?**

Oso ekimen interesgarria, gure kontzientziak pizteko oso baliagarria dena. Hizkuntza ohitura batzuk zuzentzea edo hobetzea ahalbidetzen duen heinean, aurrerapauso handi bat da. Sakatu beharreko botoi bat da Euskaraldia.

"EUSKARAREN ALT XOR HANDIAREN BARRUAN, ALT XOR TXIKI BAT HITANO A; ETA GALTZEN ARI DA"

Displasia fibrosoa ezagutzera emateko ipuina, umeei begira

'Mateo izeneko opari bat' da liburua, hezurdura lesioak eragiten dituen gaitza ezagutzera ematea helburu duena

J.B. BERGARA

Displasia fibrosoa ezagutzera emateko eta gaitz horren kontrako sentsibilizazioa bultzatzeko, *Mateo izeneko opari bat* izenburu duen umeendako ipuina aurkeztuko dute abenduaren 1ean Seminarixoan (19:00). Baina zer da displasia fibrosoa? Espainiako Displasia Fibrosa elkarteak presidente Nerea Arrieta bergararraren arabera, hezurdura lesioak eragiten dituen gaixotasun arraroa da; gaitza dutenen kasuan, hezuraren ehun normala zuntz

ehunak ordezkatzen du eta, ondorioz, hezurra ohi baino hauskorragoa da. Min kronikoa, ibiltzeko zailtasunak, itsutasuna edota gorreria eragin ditzake, besteak beste. Gaixotasun arraroa izanda, hura ezagutaraztearen eta gaixoak babestearen garrantzia azpimarratu du Arrietak: "Gaixotasuna pairatzen duten ume gehienek eta haien familiek ez dute gaixotasun bera duten pertsona gehiago ezagutzen eta horrek bakarrik sentitzea eta ulertuak ez izatea eragiten die".



Displasia Fibrosa elkarteak presidente Nerea Arrieta, ipuinaren azalarekin. J. OLABARRIA

Dirua, gaixotasuna ikertzera

Ipuinak ume guztiei zuzendutako fitxa batzuk lantzen ditut, oinarritzko emozioak ezagutzen irakastea helburu dutenak, eta zazpi hizkuntzatan egongo da eskuragarri; tartean, euskaraz.

Salmentatik lortutako dirua gaixotasun arraro horren ikerketara bideratuko dute. Beste bergarar bat ere badago proiektuaren atzean; izan ere, Usoa Mendikute ilustratzailearenak dira ipuineko ilustrazioak.

Pauso Berriak: Markel Barrocalek urtebete egin du udaletxean

Gureak-en eta Atzegiren Pauso Berriak programaren barruan ari da Markel Barrocal bergararra udaletxean lanean. Ezgaitasun intelektuala duten pertsonen gizarteratzea helburu duen programari esker, urtebete daroa Barrocalek udaletxean. Lankideek "estimua handian" dute: "Langile eta lankide bikaina da; hitzekin ezin da eskertu zenbat ematen duen". Hainbat lan egiten ditu: "Pandemiako etenaren ostean itzuli denean, prebentzio neurriak kontrolatu eta eraikinean sartzeko jarraitu beharreko irizpideen berri ematen die herritarrei eta ordenagailu bidez txandak kontrola ere egiten du, besteak beste".

Maia: "Milaka familiaren historia kontatzen dugu"

2018an argitaratutako 'Hezurbeltzak' diskoko kantuak eramango dituzte taula gainera Jon Maia, Gorka Hermosa eta Piti musikariek. Ikuskizuna kontzertu soil batez "harago" doala azaldu dute, euskara eta migrazioa ardatz nagusiak dituela

Jone Olabarria BERGARA

Jardun euskara elkarteak antolatuta, eta Euskaraldiaren baitan, abenduaren 3an Seminarixoa izango da Hezurbeltzak hirukotea, 19:00etan. Musika eta testua uztartzen dituen ikuskizuna da *Hezurbeltzak*, eta Jon Maia bertsolariak, Piti gitarristak eta Gorka Hermosa akordeoi joleak hartzen dute parte bertan. *ELE! Lorca-Lauaxeta* antzezlanean elkarrekin lan egin ostean eta 30 saio baino gehiago elkarlanean eginda, "oso harreman ona" sortu zen egun Hezurbeltzak-eko kide direnen artean. Erlazio horri jarraipena emanez jaio zen Hezurbeltzak taldea; 2018an argitaratu zuten izen bera duen eta Bergaran ikusgai egongo den ikuskizuneko bizkarrezur izango den diskoa.

Sentimenduz eraikia

Ikuskizuna kontzertu soil batez "harago" doala azaldu du taldeko kide Jon Maiak: "Migrazioaren gaian zentratu ginen taldearen lehen uneetan, kanpotik etorritako senideak izanda; gu euskaldunak gara, euskaraz kantatzen dugu eta integrazio historia horren bueltan egin genituen lehen kantuak". Hala ere, Maiak aitortu du gai horretaz kanpo ere denetarikoa kantuak egin dituztela.

Identitateari buruzko kantuak direla azaldu du Maiak, eta, hein handi batean, aurreko belaunaldiak egindako esfortzuei aitortza bat dela: "Gure gurasoek egin bezala, milaka izan ziren Extremaduratik, Galiziatik eta Gaztelatik Euskal Herrira etorri eta esfortzu bat egin dutenak, hurrengo belaunaldiak euskaldunak izan zitezen". Taldearen izena ere omenaldi gisa erabaki zutela azaldu dute, "*koreano, man-txurriano* edo *hezurbeltz* izan ziren guztien omenez". Sentimendu askorekin egindako emanaldia dela zehaztu dute, eta



Hezurbeltzak taldeko Piti, Maia eta Hermosa, taula gainean. HEZURBELTZAK

"GURE 'ABUELOEK' EUREN HERRIETATIK EKARRITAKO OHITUREI ESKER GARA GU EUSKALDUN EGUN"

herritarrak hunkituta irten ohi direla askotan; aldi berean, baina, umore handiz jorratutako kantuak direla azaldu du Maiak.

'Abuelo' guztiei aitortza

Ikuskizunean zehar bada pisu berezia hartzen duen figura bat, aitona-amonena, *abuelo* eta *abuela* guztiena: "Euskal Herrian askok ez ditugu aitona-amonak, *abueloak* eta *abuelak* ditugu. Badakigu euren herrietatik ekarritako ohiturei esker gara gu gaur egun euskaldun. Oso kontziente gara zenbat zor diegun eta zer indar izan zuten hutsetik Euskal Herrian bizitza berri bat hasteko".

Emozioekin jokatzeari, gako

Euskal Herriko "milaka familiaren historia" dela adierazi du Maiak, jende asko identifikatuta sentitzen dela kantuek

kontatzen dutenarekin. "Beti saiatzen gara emozioekin jokatzeko. Jende asko hunkituta ikusten dugu, negarrez, baina baita barre asko egiten. Uste dut emozio handiko emanaldia dela, ez da ohiko formatua. Esango nuke beste era batera aurkezten ditugula kantuak".

"Oholtzara irten"

Maiak aitortu duenaren arabera, "barne gatazka bat" bizi izan zuen: "Nik orain dela 23 urte egin nuen publiko nire familia kanpotik etorri zela; nik ere konplexu asko nituen, barne gatazka bat bezala nuen gai horrekin, ez nekien nola kudeatu euskalduna sentitu, herri honen eskubideen alde borrokatu eta kanpotik etorritako familia izatea".

Lehenengoz izango dira Hezurbeltzak taldeko kideak ikuskizunarekin Bergaran, "Euskal Herrian milaka eta milaka pertsonaren kasua islatzen duen gaiarekin". Kontuok oholtzara ateratzea "ona" dela dio Maiak, halakoak publikoki adieraztea: "Are gehiago, musikarekin, umorearekin eta sentimenduekin landutakoa bada".



Orientabide Zerbitzua eguaztenetan eskaintzen dute, Agorrosinen bertan. J.O.

Martxan da Agorrosingo Kirol Orientabide Zerbitzua

Doako zerbitzua da eta jarduera fisikoari buruzko aholkua ematen du 'Gelditzeke' izena duen zerbitzuak

J.O. BERGARA

Pandemiaren ondorioz bertan behera egon ondoren, Udalak berriz ere abiarazi du *Gelditzeke* Kirol Orientabide Zerbitzua (KOZ). Udaletik azaldu dute "herritar guztientzat zabalik dagoen doako zerbitzua" dela eta, "bizimodu-estilo aktibo eta osasungarria bultzatzeko helburuarekin", jarduera fisikoaren inguruko aholkua eta orientazioa ematen duela zerbitzuak.

Zerbitzua jaso nahi dutenek txanda eskaera egin behar dute Agorrosingo Kirol Gunean, telefonoz - 943 77 70 95- edo posta

elektronikoz - agorrosin@bergara.eus-. Asteazkenetan 08:00etatik 12:30era eskaintzen da.

'Mugiment'-en baitan

Zerbitzua Aldundiak eta Jaur-laritzak elkarlanean sortutako *Mugiment* programan dauka jatorria, eta geroztik udalerrigehiagotan finkatzen ari den zerbitzua dela adierazi du Bergarako Udalak.

Herrian lehen ere ematen zen mota horretako zerbitzua, baina honen bitartez "orain artekoa aberastu eta hobetu" egiten dela azaldu dute.



GOIENA

Big banda, emanaldi solidarioan

Angel Agirianok zuzentzen duen Bergarako Musika Eskolako big bandak Mugarik Gabeko Musikarien kontzertu solidarioan parte hartu zuen eguaztenean. Donostiako Udalen Musika eta Dantza Eskolak antolatuta, kontzertua *streaming* bidez jarraitzeko aukera izan zen -irudian ageri bezala- eta nazioarteko musika talde eta eskolek parte hartu zuten.



Torresoroa eraikinean dagoen antzokia. MAIDER ARREGI

Torresoroako mailegua amortizatuko du Udalak

Abenduan kitatuko ditu zorrak Antzuolako Udalak. Izan ere, 1.200.000 euroko soberakina dauka, gaur-gaurkoz, eta horietatik 600.000 euro inguru mailegua amortizatuko bideratzea onartu berri dute EH Bildu eta EAJ alderdiek

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Udalak zorra amortizatuko du abenduan. EH Bilduren eta EAJren aldeko botoekin onartu da zorra amortizatzea. Alderdi sozialista abstenitu egin da asteon egin duten azaroko ohiko osoko bilkuran.

Zor hori, zehazki, bere garaian Torresoroa eraikinaren inbertsioa egin ahal izateko eskatutako maileguari dagokio. "Gaur egun Kutxabankekin dugun zor bizia 616.667,42 eurokoa da, eta abenduaren amaieran zor guztia kitatuz interesak 825,48 eurokoak izango dira; aldeaz aurretik mailegua ezereztatzearen komisioa, ordea, 3.083,34 eurokoa da. Urte hasieran, 800.000 euro pasatxo-ko zorra geneukan, eta, esan bezala, urtea amaitzerako 600.000 euro pasatxokoa den mailegua amortizatuko dugu", argitu du Beñardo Kortabarria alkateak.

600.000 euro pasatxoak Udalak egun duen soberakinetik –udal diru-poltsan dagoena– ateratzea onartu dute EH Bildu eta jel-

tzaleek. Izan ere, 1.200.000 euro pasatxo-ko soberakina dauka Udalak, eta horietatik erdia mailegua amortizatuko erabiliko da. Hala, beste 600.000 euro inguru geratuko litateke Udalen diru-poltsan oraindik.

Ondorengo egunetan Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da erabakia, eta ondoren, abenduan, gauzatuko da zorraren amortizazioa.

Sahararrei babesa

Mendebaldeko Saharako su-etenaren amaieraren aurrean aurkeztutako adierazpen instituzionala, berriz, ez da onartua izan. Alderdi sozialistak aurkako botoa eman du eta mozio propioa aurkeztu du. "Bi

1.200.000 EUROKO SOBERAKINA DU, GAUR-GAURKOZ, ANTZUOLAKO UDALAK

puntu ezin ditugu onartu. Batetik, kanpo politika gaia dela deritzogu. Sahararren eskubideak bermatzearen erantzukizuna bi aldeena da. Bestetik, Espainiako Gobernuak 1991z geroztik ez du Mendebaldeko Sahararekiko ahalmen administratiborik; beraz, ezer gutxi egin dezake".

"Marokok erantzukizun zuzena du; nazioarteko politikak bere joko-zelaia du, baina, kasu honetan, eraso baten aurrean gaude", azpimarratu du alkateak.

Azaroaren 25a

Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunaren baitan, aldiz, adierazpen instituzionala onartu dute. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen eskubideak arreta-prozesu osoaren erdigunean jartzea eta indarkeria-egoeretan dauden emakumeen forma eta profil berriak hautemateko behaketak hobetzea aldarrikatu dute, besteak beste.



Herriarrak sahararrei babesa adierazten plazan. MAIDER ARREGI

Bonuak jarri dituzte salgai sahararrei laguntzeko

Sahararren autodeterminazio erreferenduma gauza dadin exijitu zuten antzuolarrek Herriko Plazan zapatuan

Maidar Arregi ANTZUOLA

Mendebaldeko Saharako su-etenaren urraketa salatzeke, elkarretaratze jendetsua egin zuten joan den zapatuan. Sahararren autodeterminazio erreferenduma gauzatzea aldarrikatu zuten bertaratu ziren 80 bat antzuolarrek.

"Gatazka honetan Nazio Batuek eta Espainiako Gobernuak erakutsi duten axolagabekeria salatu gura dugu, eta nazioarteko gainerako komunitateari bere inplikazioa exijitu. Hitzen denbora pasa da, eta hartutako

konpromisoak gauzatzeko ordua dela deritzogu", adierazi dute.

Laguntza bonuak

Galtzerdi lodiak, pilarik eta kalerik gabe funtzionatzen duten linternak eta segurtasun betaurrekoak erosteko laguntza bonuak jarri dituzte salgai. "Saharar herriari laguntzeko hiru bonu mota kaleratu ditugu eta asmoa da batutako diruarekin sahararrei bidaltzeko materiala erostea". Dagoeneko 960 euro batu dituzte bonuen bidez, baina oraindik ere salgai daude.



NIRE USTEZ

ONINTZA LEGORBURU

Hemen

Euskaraz entzun eta bizi ahal izan ditugu. Antzuolan herrigintzako bileraren batean, Bergarako eskolan, Oñatiko lantegian edo Arrasaten parrandan. Lan bileretako a(r) zalpenak, gure gorputzaren gaineko iritziak, baita gure izaera epaitzen dutenak ere.

Indarkeriak milaka aurpegi ditu. Eta edonon gertatzen den neurrian, hemen ere bai. Hala ere, "gizon guztiok ez" edo "not all men" entzun eta irakur genezake sare sozialetan. Edo: "Bo, hi, honek flipauta jaitezke, danok ez gaittuk berdinak". Beti besteengan, kanpokoengan, "gu"-an kokatzen ez diren horien gain ikusi izan dugu indarkeria. Eta bada garaia gizonok –"euskal gizonok"– "honek flipauta jaitezke" esatetik, "neuk be bajaukat zer egina" esatera igarotzekoa.

Letretakoa naizen arren, ekuazioa nahiko erraza da. Nire inguruko emakume guztiek jasan izan badute indarkeria motaren bat –eta, sarri asko, egunerokoan–, nire inguruko gizon batzuk bederen... Atera ditzala bakoitzak bere kontuak!

EUSKARALDIA

"Hitz teknikoekin erraz jotzen dugu gaztelerara"

IBON GEZALAGA ANTZUOLA KIROL ELKARTEKO LEHENDAKARIA

Ariguneetako bat da Antzuola Kirol Elkartea Euskaraldian; izan ere, klubean dituzten erronkak identifikatu eta nola aurre egiten dieten azaldu du presidenteak

M.A./J.O. ANTZUOLA

Antzuola arnasgunea izan arren, eta herritarren gehiengo euskaraz bizi den arren, kirolaren alorrean, kasu honetan futbole, ez da horren erraza euskararekiko atxikimendua %100ean lortzea. Ibon Gezalaga Antzuolako Kirol Elkarteko presidentek dio hitz tekniko asko gaztelaniaz barruraino sartuta dituela gizarteak, baina, hala ere, pixkanaka hitz horiek euskaratzea eta normalizatzea helburu dutela aitortu du.

Zeintzuk dira futbola eta euskaraz uztartzeko dituzuen zailtasunak?

Badakigu momentu batzuetan oso zaila izaten dela denek euskaraz jardutea. Futbolak baditu teknizismo batzuk erdarara jotzen dugula errazago; batez ere, adibidez, *kornerra*, *saque de puerta*, *saque de banda* eta horrelakoak. Nahiz eta euskaraz aritu, halako hitz teknikoekin horretara jotzen dugu. Antzuola Kirol Elkartetik, bai entrenatzaile, bai jokalarik, laguntzaile eta denak euskaraz jarduten saiatzen gara. **Arigune modura ari zarete klubean ere, nola daramazue?**

Aurreko Euskaraldian ere atxikitu ginen ekimenena, pankartekin ere irten ginen hemen futbol zelaira. Beste egoera bat zen, baina, eta, hortaz, aurtengor begira erabaki genuen arigune parte hartzea. Saiatzen gara arlo guztietan, guri tokatzen zaizkigun arloetan euskaraz sustatzen.

Norbanako moduan ere bazabiltza parte hartzen...

Ahobizi moduan ari naiz parte hartzen. Egia da urte osoan euskaraz egiten dugula hemen, baina beste konpromiso bat da.

Orain dela urte batzuk egoera ezberdina zen euskararekiko, baina Antzuolan bertan ere...



Antzuola Kirol Elkarteko lehendakaria Eztala futbol zelaian joan den astean. M.A.

"PARTIDU AURRETIK ETA DESKANTSUETAN JARTZEN DUGUN MUSIKA EUSKARAZ DA %95EAN, BEHINTZAT"

Kalean, batez ere, erdara asko entzuten zen, eta orduan, gure baliabideek ematen zizkiguten aukeren baitan, gaztetxo horien euskararen erabilera sustatzen saiatu ginen. Gaur egun, hemen, zelaian, ikusten dudaren arabera, txikiak eta ez hain txikiak

ez dira %100ean euskaraz aritzen, baina dezente erabiltzen dutela esan dezakegu.

Eztalan bertan ere hainbat neurri hartzen dituzue euskararen presentzia bermatzeko.

Partiduen deskantsuetan, edo aurretik, saiatzen gara musika pixka bat jartzen jendea animatzeko, eta, normalean, musika guztia euskarazkoa izaten saiatzen gara. Gainera, Udalarekin hitzarmen bat sinatuta dugu, ehuneko %75, behintzat, euskal musika izan behar dela; hala ere, esango nuke %95-edo euskarazkoa dela Eztalan.

Euskaraldiko ekintzak, martxan

Euskaraldiko Antzuolako herri batzordeak antolatuta, hainbat ekitaldi antolatu dituzte datozen egunetarako.

Azaroak 28, zapatua

- Apika taldearen ipuin kontaketa. Beheko plazan, 16:00etan. 0-3 urte arteko haurrei zuzendutako ekintza da.

Abenduak 3, eguna

- Bakarriketa, Beatriz Egizabalekin. Torresoroan, 19:00etan. Torresoroako sarrerak liburutegian eta *Labur.eus/sarrerakantzuola* webgunean eskura daitezke. Gogorazi dute txapak liburutegian jaso daitezkeela.

Deskargarainoko bide berdea bukatzea, datorren urterako

Aldundiarekin akordiora iritsita, eroritako tunela abenduan konpondu eta bidea 2021ean bukatuko dute

J.O. ANTZUOLA

Joan den astean elkartu zen Antzuolako Udala Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mugikortasun Sailarekin, eta bertan landu ziren, Beñardo Kortabarria alkateak azaldutakoaren arabera, Bergara eta Antzuola batzen dituen bidegorrian "bereziki estua" den tartearen eta ur kolektorearen kontua, baita herria eta Deskarga batzen dituen trenbide zahararen bide berdeko azken tartea txukuntzearen afera.

Bidegorriarekin, akordiorik ez

Lehenari dagokionez, alkateak zehaztu du konponbidea dela "bidegorria estutzen den tokian ibaiaren gainetik joango litzatekeen hegala moduko bat egitea", baina "ingurumenari kalteak" argudiatuta Ura Agentziak ez duela begi onez ikusten proiektua. Gaineratu duenez, "Udalari beti esan izan zaio bidegorriaren lanak aprobetxatuta batuko zirela Antzuolako ur zikinak Bergarako sarearekin, bertatik araztegira bideratzeko". Hala ere, konponbiderik gabe jarraitzen dutela adierazi du: "Zerk egiten dio kalte gehiago ingurumenari, ibai gaineko hegala

ala ur zikinak errekaratzea botatzeak?". Akordiorik gabe, Ura Agentziarekin bilera eskatu berri dutela zehaztu du.

Tunela konpontzea, abenduan

Deskarga eta Antzuola batzen dituen bide berdeari dagokionez, Aldundiarekin "nolabaiteko akordio batera" iritsi direla zehaztu du Kortabarriak: "Bi kilometro pasatxoko tartea den arren, bidea nahiko egoera onean dago, eta, hortaz, ez dute aurreikusten ez lan eta ez diru aldetik askorik izango denik".

Era berean, iazko abenduan bide berde horretan eroritako tunelaren zatia "urtea bukatu aurretik" konponduko duten agindua eman die Aldundiak: "Tunelaren lanak esleituta dade dagoeneko, eta, data finkorik ez dagoen arren, abenduan egingo dutela hitzeman zigun Mugikortasun Sailak".

Bestalde, trenbideko kaxeta zaharra zenaren parean autoak lagatzeko gune bat txukuntzea aztertzen ari da Udala. "Oraindik ikusteko dagoen arren, asmoa herritarrek bertan autoa utzi eta bide berdetik paseatu ahal izatea da".



ANTZUOLAKO UDALA

Obra-hondakinen isurketa berriz

Deskargan, Trekutz aldera sartuta, berriro ere obra-hondakinak bota dituztela salatu du Antzuolako Udala. Halako zabortegeien kopurua handitu egin da azken urteetan Gipuzkoa mailan eta hain zuzen, Udala mota horretako lau zabortege ditu identifikatuta herrian dagoeneko. Konponbidea emateko asmotan, Aldundiarekin zabortegeien txostena osatu dute..

Adin txikikoen errealitate digitala aztergai Elgetan

Lanketa berezia egin dute eskolan. Goiz oso bat egin dute adituek LH-5eko eta LH-6ko neska-mutikoekin, eta ordu eta erdiko formakuntza saioa jaso dute gurasoek, IKT ON hezkuntza aholkularitza zerbitzuko Rakel Gamitoren eskutik

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Kezka iturri izan ohi da hezitzaileen artean, eta egia da erabilera ezegokiak ere ematen direla. Hala, lanketa berezia egin zuten aurreko astean ikas-tetxean, IKT ON hezkuntza aholkularitza zerbitzuko adituen eskutik. Tailer berezia jaso zuten ikasleek, eta formakuntza saio monografikoa, berriz, gurasoek. EHUKo irakasle eta ikertzaile Rakel Gamitok gidatu zuen azken hori. Informazio eta Komunikazio Teknologietan aditua da, eta adin txikikoen errealitate digitalaren inguruan egin zuen tesia. 10-12 urteko gaur egungo umeen errealitate digitala zein den aurkeztu zuen, eta hizpide izan zituen Interneten arriskuak, gaiarekin lotutako prebentzio neurriak eta familiak ezagutu beharreko gomendioak. "Elgetan mugikor propioa du LH-5eko ikasleen %40k, eta LH-6ko erdiak", esan zuen. Ohar garrantzitsua gehitu




Mutiko bat, *Fortnite* partida batean. L.Z.L.

zuen: "Baina gauza bat da nork bere gailua edukitzea eta beste bat da egiten den erabilera; izan ere, ez da beharrezkoa nork bere gailua edukitzea erabilera egiteko. Nahikoa da gurasoena hartzea, eta horrela izaten da".

Erabilerak gora, adinak behera
Datuek diote erabilerak gora egiten diharduen bitartean adinak behera egiten duela, eta Elgeta ez da salbuespena. "Kalkuluen arabera, egunero hiru ordu eskaintzen dizkiote Inter-

"Onena, eta betirako, konfiantza da"

Internetek alde on asko dituela azaldu zuen Gamitok Elgetako hitzaldian. "Eskaintzen dizkigu aisialdia, informazioa, elkartzeko edo harreman onak izateko aukera... Baina arriskuak ere baditu. Horregatik, gurasoek ezagutu egin behar dute adin txikikoen errealitate digitala. Mundu digital batean jaio dira. Ez dute teknologia digitalik gabeko mundurik ezagutu, eta euren bizitzako beste parte bat da. Horren kontziente izan behar dugu. Zertarako? Bitartekari lanak egiteko. Eta orain aprobetxatu behar da. Adinotan kontatzeko prest daude oraindik". Estrategien inguruan, berriz, "onena eta betirako dena" gertu egotea dela dio Gamitok. "Ahal den neurrian, eskaini informazioa eta konfiantzazko harremanak eraiki, edozer gertatuz gero umea guregana etortzeko. Argi eduki behar du gurasoak laguntzeko prest daudela".



Rakel Gamito. 'TTAP' ALDIZKARIA

neti 12 urterekin. Internet modu autonomoan erabiltzen hasteko adina, berriz, 7 urte da. Batez ere, aisialdirako eta berdinen arteko komunikaziorako erabiltzen dute Internet, helduen kasuan bezala", zehaztu zuen Gamitok.

Makina bat sare sozialen eta online jokoren inguruan egin zuen berba. Baita ere sare sozialetan atsegiteak lortzeko presioari edota jokoen azkartasunari lotutako antsietate mailari buruz. *Grooming*-aren, *sexting*-aren, ziberjazarpenaren eta eduki ez egokien inguruan ere

eman zituen azalpenak. "Dena ez da txarra, baina zer dagoen ezagutu behar da. Joko asko sare sozialak dira. Ezezagunekin ari dira. Umeei erabilera irizpide batzuk eman behar zaizkie; izan ere, helduen bitartekaritza behar dute".

"GAUR EGUNGO UMEK EZ DUTE TEKNOLOGIA DIGITALIK GABEKO MUNDURIK EZAGUTU"



Bidali Euskaraldiko argazki bat eta hartu parte zozketa batean

211 elgetar ari gara ariketan parte hartzen, eta Euskaraldia girotzeko, zozketa bat jarri dugu martxan

Goiena komunitatea
Euskaraldia / ELGETA

Zortzi egun igaro dira azaroaren 20an Euskaraldiari hasiera eman genionetik, eta ariketa egiteko beste zazpi egun gelditzen zaizkigu aurretik. Martitzenean amaitu zen *ahobizi* zein *belarriprest* moduan izena emateko epea, eta Elgetaren kasuan 183 *ahobizi* eta 28 *belarriprest* gara. Guztira, 211 parte-hartzaile. Biztanleriaren %18,5. Horien artean 125 emakume, 84 gizon eta ez



Zozketako sariak. EUSKARALDIA ELGETA

binario moduan adierazi diren bi lagun.

Ariketa ondo egitea da orain helburua, eta, modu horretan, hizkuntza ohituretan eragitea. Kaleko ekintza jendetsurik egitea komeni ez denez, Euskaraldia apur bat animatzeko zozketa bat egingo dugu. Parte hartzen duten Elgetako *ahobizi* eta *belarriprest* guztien artean Euskaraldiko kamiseta bat eta poltsa bat zozkatuko ditugu. Horretarako, argazki bat atera behar duzue Euskaraldiko edozein ikurrekin, esaldi batekin batera, eta elgeta@euskaraldia.eus helbidera bidali. Euskaraldiko azken egunean, abenduaren 4an, jakinaraziko dugu irabazlearen izena. Egon adi gure ohiko euskarri! Euskaraldi on!

Iraitx Lazkano alkatea 'Harira' saioan izango da

Abenduaren 1ean, martitzena, Iraitx Lazkano elkarrizketatuko du Eneko Azkarate aurkezleak Goiena telebistako *Harira* saioan. Egun horretako 21:30ean eta 23:30ean emitituko da programa. Horrez gain, Goiena.eus atarian ere egongo da ikusgai, *Telebista* azpiatalean sartu eta *Harira* saioan klikatuta.

Herritarrek aukera dute euren galderak eta zalantzak alkateari helarazteko. Horretarako, bi modu dituzte erabilgarri: berriak@goiena.eus helbidera idatzita edo 688 69 00 07 telefonora Whatsapp mezu bat bidalita. Ekarpen horiek asteleheneko, azaroaren 30eko, 21:00ak baino lehen bidali beharko dira.

Egoarbitzako lursailak esleitu dituzte Udalak

Hamar urterako esleitu nahi du Udalak Egoarbitzako haitzaren inguruko lursail publikoen erabilera. 2021eko urtarrilaren 1etik 2030eko abenduaren 31ra arte izango da emakidaren epea. Lursaila abereentzat erabiliko du emakidadunak, eta ezingo du inolako eraikinik egin. Horrez gain, debekatuta dago lursail hori beste pertsona bati uztea.

134.771 metro karratuko azalera du, eta eskuratzeko lehen-tasuna izango dute nekazaritza arloan alta emanda dauden herritarrek. Ordaindu beharreko gutxieneko kanona 90 eurokoa da, urteko. Eskaintzak abenduaren 15a baino lehen egin beharko dira, udaletxeko erregistroan.

"Ez gara berdinak, behar ditugu aukera berberak"

Hezkidetzaz aritu zen, eguaztenean, Matiz elkarteko Ane Ortiz Ballesteros. Gizartean errotuta dauden hainbat sinismen eta jokabide jarri zituen ezbaian, eta gauzak aldatzeko neska-mutikoei erreferente berriak eskaini behar zaizkiela ohartarazi zuen

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Emakumeen aurkako indarkeria matxista salatzen nazioarteko egunean, gurasoei zuzendutako formakuntza saio berezia eskaini zuen Ortizek Elgetan. Matiz elkarteko hezitzailea izateaz gainera, sexologoa eta Berdintasun teknikaria ere bada, eta bi asteotan hainbat lanketa saio egin ditu eskolako umeekin, *Ez heroirik ez printzesarik* programaren barruan. Gurasoendako ordu eta erdiko formakuntza saioa egin zuen eguaztenean. Lastima izan zen bost guraso besterik ez bertaratu izana. "Esango nuke berdintasunaren ameskerian bizi garela. Galdetzen baduzu, askok esango dizute berdintasun egoeran bizi garela. Oso barneratuta dagoen ideia bat da, eta gaiarekiko interesa jaisten doa. Jendeak konparatzen du gaur egungo egoera duela 30 urtekoarekin, eta egia da aurreratu dela, baina ez dago parekidetasunik", dio.

Erreferente berriak eskaini

"Beste leku askotan gertatzen den moduan, Elgetako umeek ere ondo ezagutzen dute politikoki zuzena den diskurtsoa. Hainbat ariketa egin ditugu geletan, eta argi geratu da hori. Badakite zer entzun nahi dugun".

Egunerokotasunarekin lotutako gaiak edo egoerak ekarri orduko, ordea, datoz nabardurak. "Euren burua lodi ikusten duten 9 urteko neskatilak, haserretzerakoan etorri handiegia dutelako gaizki sentitzen direnak... Indarrean den feminitate ereduak ez du halakorik baimentzen, eta umeek ere txiki-txikitik sumatzen dituzte halakoak". Mutilen artean ere edertasun estereotipo batzuk ezartzen ari direla ohartarazi du. "Ez da Elgetan bakarrik gertatzen den kontu bat. Gela batean eskatu nien marrazteko nork bere gorputza, biluzik. Mutilek gorputz gihartsuak egin



Matiz elkarteko Ane Ortiz Ballesteros, jostailu katalogoei buruz, eguaztenean. L.Z.L.

BALIABIDEEN GIDA BAT UTZI DU ESKOLAN, GAIAREKIN INTERESA DUTEN FAMILIEN ARTEAN BANATZEKO

zituzten, ondo markatutako abdominalekin. Sare sozialetan eredu konkretu batzuk dira nagusi, eta hor orduak ematen dituzte. Argi dago maskulinitate ereduak berrikustea komeni dela; izan ere, maskulinitate eredu toxikoak daude".

Aukera berdintasuna bermatu

"Berdintasunean hezteak ez da denak berdina dela transmititzea, baizik eta transmititzea aniztasun handia dagoela eta denok merezi ditugula aukera berberak. Aniztasuna jarri behar da erdigunean. Berdintasunaren sinismenak, batzuetan, frustrazio handiak eragiten ditu. Hain zuzen ere, ez garelako berdinak, oso anitzak baizik".

Bestelako ereduak erakustearren garrantzia azpimarratu du adituak. "Umea jaio aurretik egiten dugu banaketa. Alua edo

zakila izan, horren arabera prestatuko ditugu logela, arropak, jostailuak... Eta, urteekin, horretan sakontzen goaz. *Science* aldizkariak argitaratutako ikerketa batek jasotzen zuen jada 6 urterekin neskek mutilak baino gutxiago direla sentitzen dutela. Nerabezeroan, berriz, autoestimua behera egiten du".

Familiendako gako batzuk

"Gurasoak dira lehen erreferentea, eta horren kontziente izan behar dugu. Etxean ze eredu dugu? Fokua, lehenengo eta behin, geure buruarengan jarri behar dugu. Umeek hori erreproduzituko dute", dio Ortizek.

Askotariko jostailuak eta jarduerak eskaintzeari ere garrantzitsu deritzo, ez erreproduzitzeko beti maskulinitate edo feminitate eredu konkretu batzuk. "Bestetik, hartu denbora umeekin gauza hauetaz hitz egiteko. Sortu horretarako espazioak eta eskaini erreferente berriak: emakume kirolariak, zientzialariak... Egon badaude". Emozioak adierazteko espazioak ere sortu behar dira. "Guraso moduan adierazten ditugu gure emozioak seme-alaben aurrean?"



CO2 neurgailua, martxan, udaletxeko harrera zerbitzuan. LARRAITX ZEBERIO

CO2 neurgailuak jarri dituzte hainbat udal eraikinetan

COVID-19ari aurre egiteko neurrien baitan, airearen kalitatea neurtzeko sei gailu jarri ditu Udalak

Karmele Uribesalgo ELGETA

Airean zenbat CO2 partikula dauden neurtzen duten gailuak jarri ditu Udalak hainbat eraikinetan. COVID-19ari aurre egiteko moduetako bat da horien ezarpena. Iraitx Lazkano alkateak azaldu duenez, gero eta argiago dago garrantzitsua dela aireztapena bermatzea: "Pandemia hasieran uste zen listu tanten bitartez kutsatzen zela birusa, baina ikusi da aerosolen bitartez transmititzen dela".

Sei neurgailu erosi ditu Udalak; udaletxeko zenbait bulegotan jarri dituzte, jende gehien

ibiltzen denetan. Liburutegian eta ludotekan ere jarri dituzte. "Erreminta bat daukagu jakiteko airearen kalitatea noiz okertu den", nabarmendu du.

Kopurua igotzean, leihoak ireki

Neurgailuak eskala bat dauka. Milioiko 500 partetik behera markatzen dituenean, airearen kalitatea ona da. "Irizpide bezala markatu dugu 600era gerturatzaren denean ireki egingo ditugula leihoak", azaldu du.

Udalak 470 euroko inbertsioa egin du, gailu bakoitzak 80 euro inguru balio baitu.

Domeka Kulturalen balorazio positiboa egin du Udalak

Pintxo domekak egin izan ez direnez, hiru ikuskizun eta argazki lehiaketa bat antolatu ditu Udalak azaroan

K. U. ELGETA

Hilabetea hasi zenetik, hainbat kultura ekintza izan dira domeketan. Udalak antolatuta, *Esnatu naiz* kabareta, Zirika Zirkus taldearen *Eolo68* haur ikuskizuna eta Naita Produzioak taldearen *Adela eta Martirio Bernarda Albaren etxean* antzezlanak izan dira ikusgai. Ane Bilbao Kultura zinegotziak adierazi du harrera ona izan dutela ikuskitzuek. Sarrerak doan ziren, erreserbarekin, eta saio guztiak bete dira. "Herriarrek eskertu egin dute eskaintza hori eduki-

tzea", azaldu du. Elgetarrez gain, inguruko udalerrietatik ere gerturatu da jendea.

Argazki lehiaketa bat ere bada martxan, hilaren 30era arte. Gaiak *Elgetan bizi*, *Kultura*, *Irribarre* eta *Udazkeneko iluntzeak* dira. Argazkiak danonartian@elgeta.eus era bidali behar dira.

Bilbaoren hitzetan, aurrera begira ikusi egin behar du antzeko ekitaldiak egiteko aukera badagoen: "Ikusita jendeak eskertzen duela, badaukagu asmoa, ahal den neurrian, ekitzak antolatzen jarraitzeko".



Ikerna Altube, Xabier Igartua, Izaro Elorza eta Unai Kortabarria, Kale Zaharrea. T.M.

120.000 euroko laguntza zuzena ostalariendako

Oñatiko Udalak ostalaritza sektoreko enpleguari eta jarduerari eusteko ezohiko laguntza plana zehaztu du. Bi alderdiek aho batez onartu dute plana, Sozioekonomia batzordean, eta dirulaguntzak eta bestelako neurriak jasotzen ditu

Oihana Elortza OÑATI

Joan den astean herriko ostalarietara bilera egin ostean, Oñatiko Udalak sektoreko enpleguari eta jarduerari eusteko ezohiko laguntza plana zehaztu du. Udalbatza osatzen duten bi alderdiek aho batez onartu dute plan hori, Sozioekonomia batzordean, eta atzo egitekoak ziren azaroko ohiko osoko bilkuran azaldu eta onartu behar zuten. Hain zuzen, dirulaguntzak eta bestelako neurriak jasotzen ditu planak.

Laguntza zuzenak

Modu azkarrean tramitatu eta eskuratu daitezkeen laguntzak eskatu zituzten ostalarietara hartan, eta, behar horri erantzunez, dirulaguntza zuzenak eta inbertsioei aurre egiteko laguntza emango ditu Udalak. Dirulaguntzen artean, 120.000 euro laguntza zuzenarako izango dira, azarora eta abendura bideratuta; itxialdiko eta ondorengo gastuei aurre egiteko emango dira eta langile kopurua

hartuko dute oinarri: "Laguntza hauek izango lirateke: bi langile edo gutxiago dituztenendako, hileko 800 euro; beraz, 1.600 euro. Bi eta bost langile artekoendako, 1.000 euro hileko, 2.000 euro. Eta bost langiletik gorakoendako 1.200 euro, 2.400 euro guztira", zehaztu du alkateak, Izaro Elorzak, plan hau aurkezteko eguazten goizean udal ordezkarietara egin zuten prentsa agerraldian.

Dirulaguntza horien oinarriak atzoko osoko bilkuran onartu behar zituzten, eta, behin Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta, abenduaren 23ra bitartean eskatu ahal izango dituzte; eskaerak jaso ahalaz bat hasiko da Udala tramitatzeko. Eskuratzeko baldintza da laguntza jasotzen duen ostalariak gutxienez hilabetez zabalik izan beharko duela establezimendua.

COVID 19-ari aurre egiteko ostalarietara egin behar izan dituzten inbertsioei laguntzeko, bestalde, 25.000 euro bideratuko ditu Oñatiko Udalak: "Hau da,

adibidez, terrazetarako behar den materiala erosteko. Kasu horietan, Udalak lagunduko luke %60 arteko dirulaguntza ematen gastuetarako, 3.000 euroko mugaraino". Laguntza horiek eskatzeko inbertsioaren faktura aurkeztu beharko dute Udalean eta horretarako azken eguna abenduaren 23a izango da. Kasu horretan, baina, behin eskari guztiak jasotakoan hasiko dira laguntzak banatzen.

Tasen dirua itzuli

Oñatiko Udalak bestelako neurriak ere aurreikusi ditu ostalaritza laguntzeko. Hala, Udalak itzuli egingo die ostalarietara itxierari dagokion terrazetako tasen kostua, eta, murrizketek iraun

**GAO-N ARGITARATU
ETA GERO EGIN BEHAR
DIRA ESKAERAK;
ABENDUAREN 23A
AURRETIK**

bitartean, terrazetako itxitura edota toloak baimentzeko, egokitu egingo du hirigintza ordenantza; betiere irizpide batzuk jarraituaz: "Betiere, oinezkoen irisgarritasuna bermatu beharko da. Jarritako elementuak kendu eta gorde egin beharko dituzte, ezingo dira espazio publikoan jarrita mantendu. Ez dira onartuko erabat itxita dauden elementuak, baizik eta aireztapena bermatuko duten elementuak jarri beharko dira". Neurri horiek, baina, egoerak irautean duen bitartean eta salbuespen moduan izango direla gaineratu du alkateak.

Bestalde, *Kuttuna.org* eta *Oñati.bonoak.eus* plataformetan ostalaritza erabiltzeko erositako bonuen erabilera epea martxoaren 31ra arte luzatu dute.

Joan den azaroaren 17an egin zuten bilera udal ordezkarietara herriko ostalarietara, Santa Anan. Euren egoera zein zen eta zer laguntza mota behar zuten jakin gura zuten udal ordezkarietara, eta ostalarietara kezkak eta ekarpenak jaso ondoren ideia nagusi batzuk pilatu eta arlo horietara bideratzeko laguntzak emateko asmoarekin atera ziren bileratik EH Bilduko Izaro Elorza eta Xabier Igartua udal ordezkariak. EAJk ere joan den astean jakinarazi zuen hainbat neurri hartzeko proposamena egin ziotela alkateari. Hala, udalbatza osatzen duten bi alderdiek ikusi dute laguntzak behar dituela herriko ostalaritza sektoreak, eta bien artean adostutako ezohiko plana da Udalak aste honetan aurkeztu duena.

12 jatetxe eta 32 taberna

Herriko komertzioak itxita egon ziren asteetan nabaria izan zen herriko kaleetan haien hutsunea, falta, eta berdin gertatzen da orain tabernak eta jatetxeak itxita ikusita. Herriar askoren diru iturri ere badira negozio horiek, eta sektore zaurgarri horri laguntzak emateko erabakia hartu berri du Udalak.

Ostalaritza lotutako zerbitzu asko daude Oñatin. Ez tabernak bakarrik, baita jatetxeak eta lo egiteko aukera duten ostatuak ere. Udaleko Turismo Sailak jasota ditu zerrendan zerbitzu horiek zeintzuk diren eta ze ezaugarri dituzten. Hala, Oñatin, bost hotel, hamabi jatetxe, bi landetxe, aterpetxe bat eta 32 taberna daude.

Olakuan ere egingo dituzte pentsiodunek elkarretaratzeak

Astelehen eguerdietan elkarretaratzeak egingo dituzte erretiratuek eta pentsiodunek herriko plazan, pentsio duinak aldarrikatzeko. Hala, hemendik aurrera, Olakua auzoan ere egingo dituzte, urmaelaren ondoan. Hileko azken egubakoitzetan izango da, 12:00etan, eta gaur, azaroak 27, egingo dute lehendabizikoa.

'Mindfulness'-ari buruzko tailerra egongo da, online

Mindfulness-ari buruzko tailer irekia antolatu du Elkar Hezik, "haur, gazte zein helduentzat tresna bikaina pandemia garaia-ri aurre egiteko". Larraitz Urres-tilak gidatuko du eta online izango da, abenduaren 1ean, martitzenean. Aurrez eman behar da izena, eta horretarako bideak dira: 943 71 82 72 / 688 621 195 edo idezkaritza@elkarhezi.eus.

Argia kenduko dute herriko hiru auzotan abenduaren 2an

Eguaztenean, abenduak 2, argia kenduko dute Berezaio, Murgia eta Olabarrieta auzoetako hainbat ataritan. Hobekuntzak egin behar dituzte sarean, hautsi egin ziren zurtin batzuk aldatu behar dituzte. Lan hori egiteko, 08:30etik 11:00etara eta 17:00etatik 18:00etara kenduko dute argia. Aparatu elektronikoa deskonektatzea gomendatu du Oñargik.

'Aita Mari' ontzikoei laguntza bidali die Hotz Oñatik

Mediterranean erreskatatzen dituztenendako duintasun *kit*-ak eta haurrendako arropak bidali dizkie Hotz Oñatik *Aita Mari* itsasontzikoei. *Kit* horiek banakako poltsak dira eta arropa eta higiegi beharrezko materiala dute barruan. *Aita Mari* erreskate ontzia Sustapen Ministerioaren baimenaren zain dago itsasoratzeke.

EUSKARALDIA

"Herria ondo ulertzeko balio izan dit euskarak"

CAROL PALACIO EUSKALDUN BERRIA

'Belarriprest'-a izan zen Palacio duela bi urteko Euskaraldian eta 'ahobizi'-a da aurtengoan. Auzoko egitasmoko koordinatzailea da gaur egun Oñatin

Oihana Elortza OÑATI

19 urte zituela etorri zen Carol Palacio Cano (Callosa d'En Sarria, Valentzia, 1990) Euskal Herrira; Donostiara, zehazki, Psikologia ikastera. Orduan izan zuen lehen kontaktua gure hizkuntzarekin: euskal abestien letrak, lagunen arteko esaldi motzak, "egun on", "gabon" eta halako hitz solteak... Duela hiruzpalau urte etorri zen bizitzera Oñatira, eta euskara "ganoraz" ikasten hasi zen.

Nola hasi zinen euskara ikasten "ganoraz"?

Eskola intentsiboak hartzen hasi nintzen, egunero bost ordu. Udan barnetegira ere joaten naiz hilabetez.

Zergatik erabaki zenuen euskara ikastea?

Bi arrazoirengatik erabaki nuen euskara ikastea: batetik, valentziarra naiz ni, valentzieraz hitz egiten dugu etxean zein herrian. Txikitatik bizi izan dut hizkuntzaren garrantzia eta borroka, babesteko eta edozein arlotan erabiltzeko. Bestalde, uste dut hizkuntza ez dela bakarrik hitz egiteko modu bat, mundua ulertzeko modua baizik.

Zer moduzko tokia da Oñati euskara ikasteko eta egiteko?



Oso erraza egin zait hemen. Jendea beti prest egon da laguntzeko, animoak emateko, eta beti irribarre batekin.

Sarri entzun dugu euskal zaharrok pazientzia gutxi dugula euskara ikasten ari direnekin. Zer diozu?

Bai, niri ere esan zidaten euskaldun zaharrek bereziak zirela eta ez dutela pazientziarik. Baina niri kontrakoa gertatu zait. Lagunak zein herritarrak prest egon dira laguntzeko. Hel-du nintzenean, A2 maila nuen,

akats asko egiten eta poliki hitz egiten nuen, baina, maitasun handiarekin, lagundu didate egungo maila izaten.

Zaila da euskara ikastea?

Beste edozein hizkuntza ikastea besteko zaila, ez gehiago. Euskara ikasten ari direnek euskaraz ondo hitz egin gura dute, baina, horretarako, hasieran gaizki hitz egin behar duzula uste dut. Nahiz eta gaizki egin, euskaraz egin behar da.

Egun, euskara erabiltzen duzu ogia erosteko, autobusa hartzeko...

Bai, bai. Gaur egun, euskaraz bizi naiz ni. Lagunen artean zein lankideekin euskaraz hitz egiten dut.

Noiz erabiltzen duzu ama hizkuntza?

Bikotekidea oñatiarra da, baina badaki valentzieraz, eta harekin hitz egiten dut batzuetan. Baita txakurrarekin ere; saiatu arren, harekin ezin dut euskaraz hitz egin, Oñatin dudana Valentziako txokoa da bera.

Hizkuntza bat ez ezik, beste ezer ikasi duzu euskara ikasita?

Euskal Herria, herria, ondo ulertzeko balio izan dit. Eskimalek, adibidez, *zuria* esateko modu asko dituzte; hizkuntza bat jakitea ez da hitz egitea bakarrik, herria ulertzeko era ere bada.

GORA ETA BEHERA



Zikinak lurtean uztea, ohitura omen



San Martin auzoan aste barruan, martitzen goizean, atera duen argazki hori bidali du GOIENARA herritar batek, lurtean zenbat zikin dagoen ikusteak harrituta.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



NIRE USTEZ

ONEKA ANDUAGA

A-25

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Eguna. Izen potoloa, eta egun are potoloagoa. Gaur egun, oraindik arrazoi ugari dauzkagu emakumeok azaroaren 25ean kalera irteteko. Badaukagu oraindik zer aldarrikatu eta zer salatu.

Eraiketak, jipoiak eta mehatxuak nahiko erraz identifikatzen ditugu emakumeen aurkako indarkeria bezala; baina badira beste indarkeria mota batzuk, horren begi-bistakoak ez izanagatik ere, indarkeria izaten jarraitzen dutenak. Adibidez, lan bera eginagatik gizona ez baina gutxiago irabaztea; gure gorputzen gaineko erabakitze eskubideak murriztea; edo une oro gizarteak inposatutako edertasun kanon beteezinen menpe bizi behar izatea. Askok dira indarkeriaren adibideak, eta gehiegi pairatzen dituzten emakumeak.

Zalantzarik gabe, 2020a COVID-19aren urtea izaten ari da, baina ez da daukagun birus bakarria izango: emakumeen aurkako indarkeriaren bat gauzatzen den artean, ez gara gaitzetik libre egongo. Eta pandemia hori ez da berehalakoan desagertuko.



Eraman & Jan
ZERBITZUA

619 771 031

"Elurretan entrenatu ezin badut, ez naiz lehiatuko"

AXIER ALONSO KORRIKALARIA ETA MENDI ESKIATZAILEA

Txikitatik du gustuko mendia Axier Alonso oñatiarrak. Maiatzetik irailera arte korrika aritzen da; neguan, aldiz, elurra egiten duenean, eski gainean aritzea gurago du

Maialen Santos OÑATI

Epe laburrera begirako lasterketa guztiak etenda dauden arren, ahal moduan entrenatzen jarraitzen du Alonsok.

Korrika zein eski gainean, baina, edozelan ere, mendian...

Egia esan, txikitatik gustatu izan zait mendiaz gozatzea. Maiatz hasieratik irailera korrika egiten dut bertan, eta gainontzeko denboran eskiatzen aritzen naiz. Lagunartean ez bada, gutxitan joaten naiz mendira oinez.

Zertan ari zara orain?

Ekainean lesionatu egin nintzen, eta orain artean errekuuperatzen aritu naiz. Duela bi aste hasi nintzen berritoki korrika, ordura arte bizikletan aritu bainaiz.

Nola eragin dizu lesioak?

Inoiz ez da lesionatzeko garai ona, baina, lasterketa guztiak etenda daudenez, ez dit horretan askorik eragin.

Nola dago egoera, zehazki?

Lasterketa arruntik ez dago, eta ez dira egongo epe laburrera begira. Are gehiago, 2021ean egitekoak ziren asko dagoeneko utzi dituzte bertan behera.

Eski denboraldia, aldiz, orain da...

Bai. Egutegia irten da eta ari dira lasterketarako datak zehazten. Gauzak hobera badoaz, agian, izango dugu lehiatzeko aukera.

Noiz aurreikusten duzu lehiatzea?

Dena ondo bidean, urtarril erdialdean Sierra Nevadara joango naiz Euskadiko Selektzioarekin, Espainiako Kopako lasterketa jokatzera.

Itxaropena baduzu, beraz...

Urtarril erditik aurrera zerbait egin ahal izateko itxaropena daukat, bai. Badakit iazko moduko lasterketak ezingo direla egin, hala eta guztiz ere. Osasun krisiak nola eboluzionatzen duen ikusi beharko dugu, lehenbizi; esaterako, martxoan bi aste Alpeetan egitekoa nintzen, eta hori ere bertan behera geratu zait.



Axier Alonso, Zegama-Aizkorri mendi lasterketan parte hartzen. A.A.

"IAZ, SASOI HONETAN, IA ASTEBURURO JOATEN NINTZEN ELURRETAN ARITZERA, PIRINIOETARA"

Entrenatzen ari zara?

Oraindik ez du elurrik egin, eta, beraz, *rollerski*-ak erabiltzen ari naiz aste hauetan. Patinen gisakoak dira, eta makilak ere eramaten ditut. Arantzazura bidean, Gomiztegraino igotzen naiz horiekin, eski entrenamenduaren ordezkari baitira.

Elur barik, ezin eskiatu...

Elurra egiten duenean, Pirinioetara joateko ohitura dut. Iaz, adibidez, urteko sasoi honetarako, ia astebururo joan nintzen hara. Aurten, momentuz, ez du elurrik egin, eta, alde horretatik, lasaiago nago. Elurra egingo balu ere ez dakit hara joateko aukerarik izango ote nukeen, mugikortasuna mugatuta dagoelako.

Esfortzu bat eskatzen du horrek?

Esfortzu gehigarria da, bai. Elurra gutxitan egiten du hemen inguruetan, eta hori desaban-

taila da niretzat. Izan ere, astebururo mugitu behar izaten dut elur bila.

Lasterketara entrenatu barik joatea aukera bat da, orduan?

Ez. Garbi daukat elurretan entrenatu gabe ez dudala lasterketetan parte hartuko, uste dudalako beharrezkoa dela elurretan aritzea lehenengo. Urtarril erdian bada lasterketa eta astebete lehenagora arte ezin banaiz Pirinioetara joan, ez dut parte hartuko, hortaz.

Eta nola bizi duzu egoera zuk zeuk? Ziurgabetasun handiz. Sarri, pentsatzen dut ez dakidala zertarako ari naizen entrenatzen, gero parte hartzerik ez badut izango, agian. Eskerrak kirola egitea gogoko dudana eta ez zaidan hainbeste kostatzen.

Zer eskatzen duzu?

Kezkatu egiten nau pentsatzeak aurten, agian, ezingo dudala ezta eskiatzera joan ere. Une honetan sinatu egingo nuke lasterketa bat bera egin ez, eta, trukean, hemendik kanpo mendira edo eskiatzera joaten uztea. Lasterketek motibatu egiten naute, jakina, baina horien gaitetik eskiaz disfrutatzea da benetan gustatzen zaidana.



Zubikoan jokatu zuen denboraldiko lehen partidua, Irunen kontra. ZURBANO

Entrenamenduak erabat etenda ditu Mekalki saskibaloi taldeak

Bi partidu bakarrik jokatu dituzte, eta urtariletik aurrera gehiago jokatzeko itxaropena dutela azaldu dute

Oihana Elorza OÑATI

Erabat etenda du jarduna Mekalki Aloña Mendik saskibaloi taldeak. "Partiduak bertan behera geratu ziren duela aste batzuk, sei lagun baino gehiago ere ezin gaitzeko elkartu, oraingoz, eta horrela denok elkarrekin entrenatzea ezinezkoa da. Egia esatearren, ez dugu entrenamendu konkreturik prestatu bakoitzak bere kontu egin ditzan. Hala ere, jokalaria kirolzaleak dira eta bizikletan ibiltzen edo beste modu batera jarraitzen dute kirola egiten", dio entrenatzaileak, Aitor Ugartek.

Oraindik ez dakite noiz bueltatu diren kantxara, partiduak jokatzera, baina Ugartek badaki talde moduan itzuliko direla: "Batera ez entrenatu arren, eza gutzen dugu elkar, taldea ez da berria, eta ziur naiz entrenatzen hasten garenean berehala hartuko dugula talde izaera".

Aurtengo denboraldian bi partidu baino ez ditu jokatu taldeak. Urriaren 18ko asteburuan galdu egin zuen eta hurrengo asteburukoa, berri, irabazi. Hala, hiru puntu ditu talde oñatiarrak, eta, hamalautik seigarren postuan dago sailkapenean.

Federatu txartelak berrituta, baina ibilaldirik ez, oraingoz

Mendi sailak berritu ditu federatuen txartelak; datorren urteko irteeren egutegia egokitu egingo dute, bestalde

M.S. OÑATI

Aloña Mendiko mendi saila 2021erako federatuen txartelak berritzen aritu da azken asteetan. Mikel Otero saileko kideak azaldu du "gorabeherak" egon direla, batzuk bajaran izan eta beste batzuk federatu egin direlako. "Igarri dugu eskiatzera joaten direnen artean egon direla baja gehien, aurten, agian, ezingo direlako joan", zehaztu du. Gehitu duenez, mendiko bizikletako aseguruak egin du gora: "Askok izan dira mendiko aseguru eskatu dutenak. Izan daiteke

Oñatik horretarako aukerak eskaintzen dituelako". Orotara, iaz baino federatu txartel gehiago egingo dituztela adierazi du.

Irteerak, antolatzeke oraindik

Datorren urtera begira egingo dituzten irteerei buruz galdetuta, azaldu du iaz bertan behera geratu zirenak gauzatzen saiatuko direla, oraindik egutegia egokitzen hasi ez diren arren. "Egoeraren eboluzioa ikusteko esperoan gaude, behar moduan irteerak antolatzen hasi ahal izateko", aitortu du.

Lau emanaldiz gozatzeko aukera datozen asteetan

Abendurako eta urtarrilerako kultur egitarau oparoa antolatu du gaztelekuak. Willis Drummond, Mila Modu eta Zetak taldeak izango dira Oñatin, eta baita 'Go!azen' antzezlan ere. Sarrerak aurrez jarriko dituzte salgai –Willis Drummondenak izan ezik–

Maialen Santos OÑATI

Kultura eskaintza zabala presatu du Oñatiko gaztelekuak abendura eta urtarrilerara begira. Hain zuzen ere, zuzeneko hiru kontzertu –gaztelekuan egingo dituzte– eta antzezlan bat antolatu dituzte, herritarren gozamenarako. Azken hori Santa Ana aretoan izango da.

Willis Drummond musika taldeak irekiko du egitaraua, abenduaren 12an, 19:00etan. Sarre-rarik ez dago eskuragarri, salgai jarri eta ordu gutxira agortu ziren eta. Hori horrela, Ion Lopez Gazteria teknikariak azaldu du beste emanaldi bat egitea "pentsatzen" ari direla. "Apirilean



Zetak taldeko abeslari Pello Reparaz. ZETAK

zen taldea Oñatin egotekoa, baina, bertan behera geratu zenez, orain berreskuratzea erabaki dugu", zehaztu du.

Mila Modu talde oñatiarra ere igoko da gaztelekuko oholtza gainera, abenduaren 30ean, 19:00etan. *Absurdoaren paradisua* disko berria izango dute ardatz.

Azkenik, urtarrilaren 21ean, Zetak taldeak eskainiko du emanaldia Oñatin, estreinakoz. 19:00etan izango da hori ere.

'Go!azen' antzezlan ere bai

Go!azen telesaileko antzezleak abenduaren 10ean izango dira Santa Anan, eta bi saio egingo dituzte: 17:00etan eta 19:00etan. "Antzezlanaz gozatzeko aukera izango da, baina, osasun krisia- ren eraginez, ezingo da amaieran protagonistekin argazkirik atea- ra", argitu du Lopezek.

Mila Modu eta Zetak taldeen emanaldietarako sarrerak 6 eta 8 eurotan erosi ahal izango dira, hurrenez hurren. *Go!azen*-ekoek, aldiz, 5 euroko salneurria izan- go dute. Datozen egunetan ja- rriko dituzte salgai guztiak, Oñatiko Udalaren webgunean eta Txokolateixan.

Umoretik joango da gaurko 'Zarramarra' ikuskizuna

Gaur 19:30ean hasiko dute saioa, Santa Ana aretoan. Eta umore- tik abiatuta "askotariko gaiak plazaratzea" izango dute helbu- ru, Josu Zubia taldeko kideak azaldu duenez. "Umore herrikoaia, Oñatikoa, izango dugu ardatz, baina hemendik kanpo ere za- balduko dugu. Edozelan ere, umorea muturrera eramango dugu", zehaztu du.

Iker Plazaolak egingo ditu aurkezle lanak, eta beraiekin izango ditu zenbait kolabora- tzaile. Gonbidatu berezia ere izango dute: Jabi Sound DJa. Zubiak aitortu du musikariari "nolabaiteko aitortza" egingo diotela saioan, bere ibilbideari errepasoa eginez –umoretik–.

Aurrera begira, Zarramarra- ko taldekideek azaldu dute ikuski- zun gehiago egiteko asmoa du- tela, "herria eta inguruak alai- tzeko". Gaurko saiorako sarrerak agortuta dauden arren, Goiena telebista izango da Zarramarra ikusteko aukera, abenduaren hasieran eskainiko dute eta saioa.


GOIENA TELEBISTA
UDAZKENEKO
PROGRAMAZIOA



ORAIN ERE,
%100 EMATEN

'ITUÑER' FENOMENOA

ABENDUAREN 2AN, EGUAZTENEAN,
21:30EAN ETA 23:30EAN
ITZIAR ITUÑOK MUNDUAN IZANDAKO
ARRAKASTA AZTERGAI
'TTAP' ALDIZKARIAK EKOIZTUTAKO
ERREPORTAJEA



goiena
20 URTE ZUEKIN.



Ziklo-krosariak, Oñatiko lasterketako ikono diren eskailerak igotzen. LARTAUN ITURBE

Ziklo-krosa ere ez da betiko

ZIKLISMOA Oñatikoa izan da orain arte eskualdean iraun duen lasterketa bakarra, baina egungo egoerak ez du abenduko zita antolatzea ahalbidetuko. Antolaketa lanetan jardun dutenek "zail" ikusten dute ibarrean proba horiek egiten jarraitzea

Hasier Larrea ARRASATE

Lehortek ez diete mesederik egiten ziklo-krosean ibiltzen diren txirrindulariei. Lurzoru biguna nahiago dute, zirkuitu gorabeheratsuetan pedalei eragitea errazagoa delako horrela. Arrazoi horregatik antolatzen dira lasterketak udazkena eta negua bitartean. Zorua ureztatzear sortzen den lokatza da, azken finean, modalitate horren elikagai nagusia. Baina ez bakararra. Gainontzeko kirol-lehiaketetan gertatzen den bezala, antolaketa-maila handia eta sostengu ekonomikoa eskatzen du ziklo-kros lasterketak antolatzeak. Euria barra-barra egin dezake, baina, bi baldintza horiek bete ezean, ezin ikusi lokatzez gainezka pasatzen diren ziklistak zirkuituan barrena nor baino nor gehiago lehiatzen. Argi daukate hori Debagoienean

azken bi hamarkadetan lasterketak antolatzen ibilitakoek. Laguntzarik ezean, aurrerantzean lehortean murgilduko dira balarako ziklo-kros lasterketak.

Zailtasunak zailtasun, Aloña Mendi Kirol Elkarteak hamar urtez jarraian antolatu zuen iaz arte Oñatiko ziklo-kros proba. Eskualdean jarraipen luzea izan duen proba bakanetakoa izan da, azken urteetako bakararra. Arrasaten Dorletako Ama Txirrindulari Eskola hiru urtez murgildu zen Markuleteko lursaila zirkuitu bilakatzeko lanetan, 2016tik 2018ra bitartean.

"OÑATIKO PROBA HERRIKO ZIKLO-KROSLARIEI LAGUNTZEKO HASI GINEN ANTOLATZEN"

Eta hamarkada bat lehenago, ziklo-krosak eskualdean garai zailak bizi zituen urteetan, Bergarako Lokatza Ziklismo Eskolak berreskuratu zuen XX. mendean moda-modan egon zen lehiaketa antolatzeko ohitura.

Hiru lasterketa horiek aurrea ateratzeaz arduratu ziren, beste hainbat pertsonaren artean, Ruper Arkauz oñatiarra, Zigor Urain arrasatearra eta Iñigo Larrañaga bergarra.

Hirurek bat egiten dute txirrindulari gazteek halako ekitaldiak beso zabalik hartzen dituztela baieztatzeke orduan. Arkauzen esanetan: "Gure hasierako asmoa ez zen maila handiko lehiakideak erakartzea, ziklo-krosean hasiberri ziren herritarrei laguntasuna adieraztea baizik". Ildo beretik mintzatu da Larrañaga: "2006an Osintxun egin genuen lehen

proba esperimentu bat izan zen guretzat, eta, harrera ona eduki zuenez, hurrengo edizioan proba puntuagarria egitea otu zitzaigun". Bigarren lasterketa hura "paregabea" izan zela gogoratzen du Lokatzako kideak, "elurra egiteaz gain, Mikel Aristi herrikidea gailendu zelako guztien artean".

Tamalez kontuak "hain distiratsuak" ez direla uste du Dorletako Amari zirkuituak prestatzen lagundu izan dion Urainek, "lan handia eta askotan esker txarrekoa" egin behar baita horiek antolatzeko: "Zirkuituetako lursailak, maiz, jabego batenak izaten dira, eta, haiek ez badaude prest uzteko, guk jai daukagu, beste zirkuitu bat prestatu behar da...".

Belgika, "eredu"

Nonbaitera begiratzekotan, Urainek eta Larrañagak garbi daukate Belgikan mimatzen dela bereziki ziklo-krosa. "Sekulako afizioa dago han, eta txirrindulari nabarmenenak, izan errepidekoak edo ez, baldintza onekin bizi dira", dio arrasatearrak. Bergararrak formakuntzan ipini du fokua: "Gazteek hemen baino errazagoa daukate kirola uztartzea, ikasteko ordutegiak hala ahalbidetzen dielako. Hemen norbera autodidakta da, ez daukagu hango metodologia hori, eta emaitzetan igarri egiten da".

Errepidera pasa da dirua

Eliteko txirrindulari gehienak errepidean espezializatu izana ez dela "kasualitatea" uste du Urainek: "Ziklo-krosean hasi ziren Haimar Zubeldia, Iban Mayo, Gaizka Lejarreta eta Gorka eta Ion Izagirre anaiak, esaterako. Baina modalitatez aldatu zuten, gaur egun errepidetik bizitzera samurragoa delako".

Ziklo-kroseko euskaldun profesional gehiago egotea gustatuko litzaieke lasterketen antolatzaileei, "orain bizpahiru bakarrik daudelako". Modalitatea indartzeko funtsezkoa iruditzen zaie hori, "baina, horretarako, telebistek eta instituzioek interes gehiago adierazi behar dute".

"PROFESIONAL GEHIAGO BEHAR DIRA MODALITATEAN; HORI APUSTU SENDOA EGINEZ LOR DAITEKE"



IÑIGO LARRAÑAGA

LOKATZA ZIKLISMO ESKOLA

"Pasioak mugitzen gaituelako gaude klubean. 15 urte daramatzat hemen buru-belarri, eta esango nuke gure lanak eman dituela bere fruituak; Bergaran lau profesional atera ditugu ziklismoan: Eneko Lizarralde, Mikel Aristi, Julen Irizar eta Beñat Etxabe".



RUPER ARKAUZ

ALOÑA MENDI KE

"Gurea klub berezia da, kirol bakarrean zentratu ordez 15 sailetan banatuta gaudelako. Hasierako boluntarioek lan handia egin zuten elkarte modu horretan sortzeko. Ziklo-kros proba prestatzen sail ugaritako kideak egon gara, eta horrek hauspoa eman dio antolakuntzari".



ZIGOR URAIN

ZIKLO-KROSLARIA

"Bi erruberako modalitate guztiak probatu ditut, eta, zalantza gabe, ziklo-krosa da gehien maite dudana. Urte asko daramatzat inguruko probetan parte hartzen. Arrasateko karreretan Dorletako Amari lagundu nion arlo teknikoa prestatzen; gero, maillota jarri eta lokatz artera!".

Amaitu bezala hasi du MUK denboraldia

SASKIBALOIA Mondragon Unibertsitateari jarraikortasuna falta zaio, pandemia egoeran egonda hainbat partidu atzeratu egin behar izan dituzte eta. Baina, jokaturako hirurak irabazita, ligako indartsuenak izaten jarraitzen dutela berretsi dute

Xabier Urzelai ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak Durangoko Tabirakoren kontra jokaturako du zapatu arratsaldean (19:00). Eta batekoak zein beste-koak sailkapenean non dauden errepasatzeak ez du inongo zentzurik, liga hankaz gora jarri du-eta birusak. Esaterako, lider dagoen Solaresek dagoe-neko bost partidu jokatu ditu, horiek jarraikortasuna izan dute ligan. Kontrara, probintzia batzuetan lurraldeen arteko mugikortasuna lehenago mugatu zutelako edota taldean positiboren bat izan dutelako, Valle de Egues eta Zarauzko Ulaia taldeek partidu bakarra



MUK 67-64 irabazi zion joan den astean Ardoi. MIREIA BIKUÑA

jokatu dute. Pentsa zelako gorabeherak izango diren aurtengo ligan.

Erregularitasuna behar dute

Egoera horri guztiari ahalik eta ondoen aurre egiten saiatzen dabil MU. Orain arte, hiru partidu jokatu dituzte, eta hiru lehia horiek nahikoa izan dira ikus-teko taldeak iaz erakutsitako sendotasunari eusten diola: "Taldea erregularitasuna izateko partiduetan jarraikortasuna da behar duguna; hau da, partiduak astero jokatu ahal izateko zailtasunik ez izatea. Izan ere, aste barruan ondo entrenatzen bagabiltza ere, asteburua iritsi eta partidurik jokatzen ez baduzu igarri egiten da, koska bat egiten da behera", adierazi zion GOIENARI domekan partidua amaitu eta berehala Martxel Balanzategi kapitainak -67-64 Ardoiren kontra-.

Biharko kontrario Tabirako Baquek jokatu dituen lau partiduetatik bi irabazi ditu. Durangarrek ondo hasi zuten liga, bi garaipen jarraian eskuratuta, baina hurrengo biak, berriz, galdu egin dituzte.



Arizmendikoak defentsa lanean. X.G.

BOLEIBOLA Arizmendi, bigarren garaipenaren bila

Euskal Ligan diharduen Arizmendi talde sortu berriak denboraldiko bigarren garaipenaren bila egingo du bidaia bihar Hernanira (zapatua, 11:00). Joan den astean, 0-3 galdu zuten esperientzia handiagoa daukan Jatorkide taldearen kontra; izan ere, hainbat taldekiderendako lehenengo partidu ofizialak dira. Hernanik oraindik ez du partidurik irabazi.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behe
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behe
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA

Arkitektoa eta tradesperson formazioa
Tel.: 636 89 92 11
larraitz.arkiestudioa@gmail.com

"Sarrereren dirua musika eskolari emango diot"

IDOIA ASURMENDI MUSIKARIA

'Online.fairsaturday.org' atarian bihar 09:00etatik 23:00etara eskainiko dute Asurmendik domekan Bilboko Iberdrola dorreko heliportuan grabatutako kontzertua

Aitziber Aranburuzabala ARAMAIO Kultura ekitaldietarako garai oparoenak ez diren arren, proiektu askotan murgilduta eta lanez lepo da Aramaio musikaria. **Toki pribilegiatuan kontzertua grabatzeko aukera izan duzu. Pozik?** Oso esperientzia polita eta berezia izan da Bilboko Iberdrola dorreko heliportuan jotzea; sekulako eguraldia egin zuen, gainera; eskerrak! Esan zidate-nez, Kepa Junkerak orain dela urte batzuk grabatu zuen han, eta ni izan naiz bigarrena, ez dute beste halakorik egin.

Nola joan zen grabazioa?

42. solairua da, eta ni bakarrik nengoen han, nire gitarrarekin eta pianorekin. Bi kamera zeuden bertan, 360 graduko irudiak hartzen dituen eta beste txiki bat nire aurrean. Teknikariak beheko solairuan zeuden eta ni goian, baina eroso egon nintzen.

Non eta noiz ikusi ahalko da?

Bihar, zapatua, izango da ikusgai, *Online.fairsaturday.org/evento* loturan, 09:00etatik 23:00etara bitartean. Hiru euro ordaindu behar da.

Zelako kontzertua izan zen?

Ordu erdi iraun zuen; udaberrian kaleratuko dudako diskoan jasoko ditudan zazpi kantu izan ziren. Taldearekin grabatu ditut, baina bakarlarik formatuan eskaini ni-



Idoia Asurmendi. FAIR SATURDAY EKIMENA

tuen emanaldian. Abesti batzuk pianoarekin laguntzarekin kantatuta eta gainontzekoak, gitarra doinuen gainean. Nire tresna pianoa da, baina kantu batzuek gitarra gehiago eskatzen didate. **Zelako kantuak dira?**

Elkarren artean ezberdinak dira. Orain dela hiru urtetik hona sortutako kantuak dira, azken urteetakoak gehienak. Ez dute lotura zehatzik; diskoan istorio orokor bat sortu dut, baina kantu bakoitzak mezu argia dauka. Hitzei dagokienez, denetariakoak daude: orain dela hiru urte In-

darkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunerako Xabi Igoaren hitzekin sortu nuena dago; aitarien eta amamen istorioak jasotzen ditu beste batek; haurrendako ipuina da beste bat... Musika estiloari dagokionez, estilo askoren eragina dudanez, horien guztien nahasketa dela esango nuke. Gero eta argiago dut nire profila kantatutore batena dela.

Sarrerekin jasotako dirua Aramaio-ko musika eskolari eta Papargorri abesbatzari oparitutako diozu.

Hala da, bai, ilusioa egiten dit piano bat erosteko nire laguntzatxoa eskaintzea, Papargorri abesbatzan hasi nintzen eta. Orduan ez zegoen musika eskolarik Aramaion, eta Arrasatekora joan nintzen. Orain, Aramaion musika eskola sortzen ari dira, Larraitx Arriolabengoak gidatuta; oso lotura estua dut Larraitzekin, nire piano irakaslea izan da, baita abesbatzako zuzendaria ere. Orain, Donostian nago, baina garrantzitsua da nondik natorren ez ahaztea eta herriko musikariei laguntzea, sekulako harrobia dago eta.

Zer diote eurek?

Azken orduko gauza bat izan da, eta oso eskertuta daude; oso mezu hunkigarria bidali zidan Larraitzek aurrekoan.



Lauburu Sax Quartet taldeko hasierako kideak. LAUBURU SAX QUARTET

Lau saxofoik sortutako doinuen kontzertua Santa Ana antzokian

Domekan borobilduko dituzte 42. Musikegunak; sarrerak, 'Oñati.eus' atarian eta Txokolateixan, zortzi eurotan

A. Aranburuzabala OÑATI

Musikene Euskal Herriko goimailako musika kontserbatorio-ko lau ikasleek –Laurie Curutchet (saxo sopranoa), Claudia Llauro (saxo altua), Andrea Castaño (saxofoi altua) eta Raul Perez (saxo baritonoa)– 2018an sortutako proiektua da Lauburu Sax Quartet. "Euskal sinbolo ezaguna hartu dugu ikur, hark moduan gure proiektuak ere lau buru dituelako; hau da, jatorri eta izaera ezberdineko lau musikarik osatzen dugu", azaldu du Raul Perezek, eta zera gaineratu: "Domekako emanaldian, baina, beste hiru lagunekin izango naiz; izan ere, taldekideak atzerrian dira, eta, pandemiaren eraginez, ez dute hegaldirik hartzeko aukerarik. Hala ere, kontzertuarekin aurrera egitea erabaki genuen eta beste bi ikaskide eta Gasteizko Iñigo Setuain izango ditut alboan".

Publiko guztientzako

Ordubete inguru iraungo duen emanaldian, askotariko estiloe-tako piezak eskainiko dituztela azaldu du Perezek: "Joko ditugun gehienak oso kantu ezagunak dira, samur entzutekoak. Izan ere, estilo ezberdinen arteko nahasketa egin gura izan dugu erreperitorioan; hori horrela, besteak beste, *La boda de Luis Alonso* zarzuelaren pasarte bat, Piazzollaren *Historia de un Tango* izeneko eta iragar-kietan sarri entzundako piezak ere joko ditugu".

Kultura, "ezinbestekoa"

Urtarrilean egin zuen Lauburu Sax Quartet taldeak jendaurrean azken emanaldia; horregatik, nahiz eta ohiko taldekideak ez izan, "ilusio handiarekin" doaz Oñatira. "Eskertzekoa da antolatzaileen ahalegina. Kultura segurua eta beharrezkoa da".

GOIENA TELEBISTA
UDAZKENEKO
PROGRAMAZIOA



ORAIN ERE,
%100 EMATEN

GOIENA
20 URTE
ALBISTE

ABIADURA HANDIKO TRENIK MOTELENA

'GOIENA: 20 URTE, 20 ALBISTE' ERREPORTAJE SORTA
AZAROAREN 27AN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN
BADIRA HAMALAU URTE AHT-AREN OBRAK HASI ZITUZTELA



goiena
20 URTE ZUEKIN.

"Azoka Telebista, inoiz baino beharrezkoagoa"

NEREA MUJICA GEREDIAGA ELKARTEKO PRESIDENTEA

Abenduaren 4tik 8ra izango da "egoerara moldatutako" Durangoko Azoka. Online salmenta bakarrik egongo da eta aurkezpenek edukiera mugatua izango dute

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
55. Durangoko Azoka abiatuko du datorren egubakoitzean Gerediaga elkarteak. Egoerara moldatutako Azoka izango da, berrikuntza askorekin.

Egoera den modukoa bada ere, Azokarekin aurrera egitea erabaki zenuten. Zergatik?

Ez zen batere erraza izan erabakia hartzea, baina apirila ezkerreko elkartearen argi genuen aurten ere egingo genuela, zelan eta zelakoa definitzea zaila izan den arren, eta aitortu behar dut itzelezko lana izan dela. Kultura sektorea babestu behar genuela argi genuen eta inpaktu ekonomikoa handia dela ere bai.

Babestuta sentitu zarete erakundeen eta sortzaileen aldetik?

Orokorrean, bai; erabakia hartzeko ez dugu etxe barruan bakarrik aztertu eta eztabaidatu, horretarako egin dira galdetegiak eta elkarrizketak argitaletxeen elkarteekin eta sortzaile batzuekin, eta, jakina, koordinazio mahaian ere aztertu da. Erabakitakoa kultura arloko profil ezberdinetako lagunekin adostu eta gero, ni neu asko lasaitu nintzen. Erakundeei dagokienez, pozik gaude; ohiko Azokako dirulaguntza guztiak mantendu dituzte, eta, horrez gain, Azoka Euskal Herri osora zabalduko duen *Zu non, han DA!* ekimena egitea proposatu zigun Eusko Jaurlaritzak. Laguntza pribatuak ere, orokorrean, mantendu egin dituzte.

Azoka ezberdina izanik, antolaketak lanak ere halakoak izan dira?

Prozedura batzuk berdinak dira; hau da, kultura ekoizpenak salduko dira -2.300 produktu baino gehiago-, baina denda birtualean bakarrik, eta plataforma diseinatzea eta kudeatzea kanpora egin dugun enkargu bat izan da. Egitarauari dagokionez, aurten murriztagoa da, baina, hala ere, 100 kultur ekitaldi izango dira. Durangoko eta mugakide diren



Gerediaga elkarteko presidente Nerea Mujika, azoko aurkezpenean. TXOMIN MADINA

"OZEN ALDARRIKATU GURA DUGU, GUZION AHALEGINAREKIN, EZ DADILA ETEN KULTUR TAUPADA"

herrietako kultura-zaleek *Durangokoazoka.eus* atarian eska ditzakete aurkezpenetarako gonbidapenak. *Streaming* bidez ere eskainiko dira, zuzenean.

Azaldur egiguz online dendaren funtzionamendua.

Denda birtualeko katalogoa gure atarian dago eta kultura-zaleek dagoeneko produktuak hautatu ahal dituzte eta ordainketa abenduaren 4tik aurrera egin. Modu errazean aurkituko dituzue eskuratu nahi dituzuen ekoizpenak. **Aurten, estreinakoz, Azoka bukatu ondoren herriko liburu-dendetan izango dira produktu horiek salgai.** *Zu non, han DA!* ekimenak ahalbidetu du hori. Abenduaren 9tik urtarrilaren 8ra bitartean izango dute hala nahi duten liburu-dendek produktu horiek saltzeko aukera; horretarako, aurrez eskaera egin behar dute, eta bihar, zapatua, eguerdia bitartean egin

behar da, Elkar Banaketan eta Liburuen Ganbararen bitartez. **Ekimen beraren bidez Azokaren egunetan zortzi herritan kontzertuak izango direla iragarri duzue.**

Bai, hala da; Amurrión, Atarrabian, Azpeitian, Bermeon, Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Ondarroan izango dira. Guztira, 32 emanaldi. Sarrerak Azokako webgunean daude salgai.

Durango bi gune izango ditu Azokak: Landako Gunea eta Plateruena. Zer izango da horietan?

Plateruena 37 diskoren aurkezpenak egingo dira, eta Landako Gunean askotarikoak: familientzako ipuin aurkezpenak eta ikuskizunak, mahai-inguruak, literatura solasaldiak, liburuaren aurkezpenak, filmak, irakurketak dramatizatuak...

Azoka Telebista inoiz baino beharrezkoagoa izango da aurten, ezta?

Duda barik! Bi *streaming* kanal egongo dira Azokaren atarian: Landako Guneari dagokion bat eta Plateruena bestea.

Ze mezu zabaldu nahi duzu?

Taupada da aurten leloa, eta inoiz baino ozenago aldarrikatu gura dugu, guztion ahalegina-rekin, ez dadila eten kultur taupada.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko azaroko sariak!



Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: Saskia

Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeke, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
ONATZITAKO BAK

www.harnemandenda.org
Bideoa: Mikel Arrikutz

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" (bazkidearen zenbakia) 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrei dagokien LOPD 15/1997 egaren arabera, jakinarazten dugu zure datu pertsonalak Goiena komunikazio zerbitzuaren bitartez automatikoki estaltzen direla. Datu-bilaketak honen helburu bakarra da indarrei dagokien azterpena egitea. Erabakia erabakirik gabe hartu behar da, baina zuzentzeko edo ezarritako helburu horietatik kanpo erabakirik gabe. kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

SANTA ANA JATETXEARI ESKER

Behar duzu Puntua aldizkaria? Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: Abenduaren 15

943 25 05 05 kluba@goiena.eus

KLUBA Jostetuek
(bazkidearen zenbakia) 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantaila gozatzeko...



ESKINTZA BEREZIA!

Abenduan jaso Puntua doan, hurrengo urteko bazkidetza eginez

Deitu: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan. 654 88 42 60

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Kaixo! Arrasateko familia gara eta etxebizitza bila gabilta. Erdigunean bada hobeto. Eskerrik asko! 688 71 09 54 edo 675 98 96 17

Bergara. Errentan hartuko genuke etxebizitza, bi edo hiru logelakoa. Telefonoa: 631 13 16 57

Bergara. Errentan hartzeko etxebizitza bila ari dira neska arduratsu bat eta bere 11 urteko semea. Etxebizitza txiki bat eta erdigunean bada, hobeto. Telefonoa: 666 07 42 98

Oñati. Oñatien etxebizitza bila nabil, bi edo hiru logelarekin. Eskerrik asko! 679 62 69 64 (Jon)

105. ETXEAQ OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan egongela, sukalde eta bainugela partekatua izateko esku-bidearekin, unibertsitate-tatik oso gertu. Telefonoa: 650 92 52 99

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Oñati. 18 metro koadroko garajea itxia ematen da errentan, Kanpantxo kalea 1ean. Ate automatikoarekin. Telefonoak: 627 09 27 01 edo 660 61 44 30

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Haur zaintza. Bergarako pertsona baten bila gabilta, haurrak goizetan eskolara eramane eta eguerdian jaso eta bazkalten emateko. Interesatuta egonez gero, jarri nirekin kontaktuan. Telefonoa: 607 54 07 72

Haurrak zaindu. Eguerdian umeak eskolatik jaso eta bazkalten emateko Bergarako pertsona baten bila gabilta. Interesatuok deitu 605 70 83 93 telefonora.

402. ESKAERAK

Aretxabaleta edo inguruak. Emakume arduratsua nagusiak zaindu edota etxeko lanetan laguntzeko gertu. Telefonoa: 697 33 33 71

Aretxabaleta edo inguruak. Mutila gertu adinekoak zaintzeko eta laguntzeko, atariak eta etxeak

garbitzeko, arropa lisatzeko. 642 98 98 06

Aretxabaleta edo inguruak. Tailer edo igeltse-rotzako langile gisa eskaintzen ditut zerbitzuak. Oinarritzko ezagutzak ditut ura eta olio margotzeaz, elektrodoen soldaduraz eta metalezko arotzeria tailerretan esperientzia. 642 98 98 06

Arrasate edo inguruak. Goizetan atari, etxe eta abarrak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko gertu nago. Autoa daukat. Telefonoa: 636 11 23 40

Arrasate edo Oñati. Neska euskalduna gertu orduka etxean garbitzeko. 663 04 53 99

Arrasate eta inguruak. Astean zehar arratsaldetan edota asteburuetan zaintza eta garbiketa lanak egingo nituzke. 602 42 04 81 (Ismelda)

Arrasate eta inguruak. Astean zehar arratsaldetan edota asteburuetan zaintza eta garbiketa lanak egingo nituzke. Telefonoa: 647 51 48 07

Arrasate eta inguruak. Gauetan nagusiak zainduko nituzke. Legezko agiriak eta soziosanitario titulazioa daukat. Telefonoa: 642 41 72 62

Arrasate eta inguruak. Nagusiak zaintzeko gertu nago orduka zein etxean bertan bizi izaten. Esperientzia handia, legezko agiriak eta formazioa daukat. 647 11 06 14

Arrasate. Garbiketa eta lisatze lanak egiten edota ume eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 611 24 26 64

Arrasate. Zaintza eta atari, etxe eta abarren garbiketaren jarduteko gertu nago. Bi arloetako titulazioak daukat. Telefonoa: 632 83 32 44

Bergara eta inguruak. Bergarako neska euskalduna, Haur Hezkuntzako goi mailako zikloarekin eta haur hezkuntzako gradua egiten 14:00tik aurrera umeak zaintzeko prest. Asteburu eta jai egunetan ere bai. Telefonoa: 634 42 85 11

Bergara. Astelehenetik ostiralera bitartean, jai egunak kenduta, prest nagusiak zein umeak zaintzeko. Lanbide titulua dauka. 671 16 54 60

Bergara. Emakume euskalduna, soziosanitario titulua duena, arratsaldetan edo asteburuetan lan

egiteko eskaintzen da. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656 74 78 43

Debagoiena. Emakumea gertu umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. 632 62 76 07

Debagoiena. Erizain laguntzaile gaztea gertu orduka nagusiak eta umeak zaintzeko edota garbiketarako egiteko. Telefonoa: 620 23 58 15

Debagoiena. Esperientzia eta erreferentzia onak dituen mutila orduka nagusiak zaintzeko gertu. Baita baserrietan ere. Legezko agiriak eta Al- dundiaren ziurtagiria daukat. Autoarekin. Telefonoa: 662 43 08 54

Debagoiena. Etxeko langile moduan jarduteko gertu: garbiketarako zein zaintza lanak. Gauak ospitalean egiteko ere gertu. 722 45 58 75

Debagoiena. Etxez etxeko laguntzan jardungo nuke arratsaldetan edo asteburu zein jai egunetan. Autoa eta titulazioa daukat. 631 98 15 50

Debagoiena. Gaixok eta nagusiak zaintzen esperientzia daukan emakumea lan bila. Jaurlaritzako ziurtagiria daukat. Ospitalean edota etxean. 612 20 35 71

Debagoiena. Garbiketaren eta nagusi zein umeak zaintzen lan egingo nuke. Erreferentziak aurkez ditzaket. 603 21 91 32

Debagoiena. Gauetan edo egunean zehar orduka nagusiak zainduko nituzke. Legezko agiriak eta Jaurlaritzako ziurtagiria daukat. Telefonoa: 659 57 93 89

Debagoiena. Mutil gaztea, orduka zein asteburuetan lan egiteko prest. Pertsona nagusiak zaintzeko edo eta garbiketa lanak egiteko. Esperientzia dauka. 604 13 68 24

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaindu eta laguntzeko. Autoa daukat. Ordutegi aldetik, prestutasun osoa. 639 96 71 03

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. Telefonoa: 643 29 75 77

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke. Telefonoa: 688 77 34 95

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko gertu nago, baita orduka ere. 639 02 00 81

Debagoiena. Neska arduratsua eta legezko agiriak dituen, gertu orduka zein asteburuetan lan egiteko. Pertsona nagusiak zaintzeko zein garbiketara lanak egiteko. 666 07 42 98 (Claudia)

Debagoiena. Neska arduratsua lan bila. Orduka, etxean bertan bizi izaten eta baita asteburuetan ere. Berehala hasteko gertu. 631 64 56 46

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak zaintzeko prest. Orduka, etxean bertan bizi izaten eta baita asteburuetan ere. 632 37 65 40

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak zaintzeko prest. Orduka, etxean bertan bizi izaten eta baita asteburuetan ere. 658 92 43 73

Debagoiena. Neska euskalduna gertu jendaureroko lanak egiteko: harre- ran, supermerkatuan zein eskolako jangelan. Baita ere zaintzan, garbiketaren edota tailerretan. Telefonoa: 656 79 28 37

Debagoiena. Orduka garbiketarako egingo nituzke. 688 65 32 00

Debagoiena. Orduka nagusiak zaindu eta garbiketarako egingo nituzke. Legezko agiriak daukat. 677 00 90 26

Debagoiena. Zaintzan eta atari eta abarren garbiketaren lan egingo nuke. Orduka, etxean lo egiten edota ordezkapenak egiten. Soziosanitario titulazioarekin. 643 73 62 36

Debagoiena. Zaintzan eta garbiketaren lan egingo nuke. 634 94 30 78

Elgeta eta inguruak. Emakume arduratsua gertu etxeko lanetarako, nagusien eta umeen zaintzarako, atari garbiketarako eta abar. Telefonoa: 659 03 56 12

Eskoriatza eta inguruak. Mutil gazte langilea naiz, edozein lanerako prest, etxeetan, baserrietan, negozioetan, garbiketaren, nekazaritzan edota ilea mozten. 632 07 32 72 edo 631 67 51 01

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Pianoa daukat etxean eta jotzen ikasteko eskolak jaso nahi ditut. 686 63 54 35

CNC Tornuko programazioa. CNC Tornuko programazioko eskola partikularrak hartuko nituzke lehenbailehen. 8070 Programazioa *Simulator*-ekin. 605 88 33 51

6. MOTORRA

602. EROSI

Land Rover bila nabil. Land Rover Defenderra behar dut baserrirako. Berdin dio zein egoeratan dagoen: IAT gabe, maburatu, kolpearekin. 623 17 95 37

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumeak. Baserriko hiru katakume ematen dira opari, bi hilabeteren- kin. 610 31 02 61

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

ELGETAKO ALKATEARI ELKARRIZKETA

'Harira' Martitzena, 21:30 eta 23:30



GOIENA

'ITUÑER' FENOMENOA EZAGUTZEN

'Erreportajea' Eguaztena, 21:30 eta 23:30

EGUBAKOITZA, 27

09:00 Kantari Arrasate 5
09:30 Kantari Arrasate 8
10:00 Hemen Debagoiena
11:00 Eskulanak etxetik
11:30 Harira: Aramaio
12:00 Hemen Debagoiena
13:00 Harira: Arizmendiarieta
14:00 Hemen Debagoiena
15:00 Albisteak
15:30 Harmailatik
16:00 Albisteak
16:30 Elkarrizketa: Angel Ero
17:00 Albisteak
17:30 Adinberri 42
18:00 Hemen Debagoiena
19:00 Harira: Arizmendiarieta
20:00 Hemen Debagoiena
21:00 Elkarrizketa: Angel Ero
21:30 Erreportajea: AHT
22:00 Hemen Debagoiena
23:00 Lehen Irritiki: Pho-Bo
23:30 Erreportajea: AHT

ZAPATUA, 28

09:00 Kantari Arrasate 9
09:30 Kantari Arrasate 8
10:00 Kantari Arrasate 10
10:30 Erreportajea: AHT
11:00 Harira: Arizmendiarieta
12:00 Hemen Debagoiena
13:00 Lehen Irritiki: Pho-Bo
13:30 Harmailatik
14:00 Hemen Debagoiena
15:00 Astearen errepasoa
16:00 Harmailatik
16:30 Hemen Debagoiena
17:30 Harira: Aramaio
18:00 Hitzaldia: Mikel Reparaz
19:30 Lehen Irritiki: Pho-Bo
20:00 Elkarrizketa: Angel Ero
20:30 Erreportajea: AHT
21:00 Astearen errepasoa
22:00 Hemen Debagoiena
23:00 Harira: Aramaio
23:30 Hemen Debagoiena

DOMEKA, 29

08:00 Harira: Arizmendiarieta
09:00 Txantxariak
09:30 Kantari Arrasate 8
10:00 Kantari Arrasate 9
10:30 Kantari Arrasate 10
11:00 Hemen Debagoiena
12:00 Hitzaldia: Mikel Reparaz
13:30 Erreportajea: AHT
14:00 Elkarrizketa: Angel Ero
14:30 Astearen errepasoa
15:30 Hemen Debagoiena
16:30 Kantari Arrasate 9
17:00 Kantari Arrasate 10
17:30 Harira: Arizmendiarieta
18:30 Erreportajea: AHT
19:00 Hemen Debagoiena
20:00 Hitzaldia: Mikel Reparaz
21:30 Erreportajea: AHT
22:00 Astearen errepasoa
23:00 Hemen Debagoiena

EGUBAKOITZA, 27

'ABIADURA HANDIKO TRENIK MOTELENA'

'Goiena: 20 urte, 20 albiste'

21:30/23:30

ZAPATUA, 28

MIKEL REPARAZEN HITZALDIA

'Bereziak'

18:00



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista Edo eskaneatu aldameneko QR kodea.

ASTELEHENA, 30



GOIENA

KIROL MUNDUKO ERREPORTAJEAK

'Harmailatik'

21:30/23:30

EGUNERO

EGUNEKO ALBISTE AIPAGARRIENAK

'Albistegia'

15:00/16:00/17:00

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

OROIGARRIA

El Mehdi Ould El Id

Eskolako gurasoa

2020ko azaroaren 21ean hil zen.



Bat egiten dugu senideen saminarekin.



Kurtzebarri Eskolako ikasle, irakasle eta familiak. Aretxabaletan, 2020ko azaroaren 27an.

OROIGARRIA

Jose Arantzabal Leturia

'Etxebarri'

2020ko azaroaren 13an hil zen, 85 urte zituela.



Intxorta elkarteko joko-lagunok beti izango dugu gogoan.

Elgetan, 2020ko azaroaren 27an.

OROIGARRIA

Pedro Arregi Zufiria

'Peitto'

2020ko azaroaren 19an hil zen, 76 urte zituela.



Beti izango zaitugu gogoan.



Txantxiku-Txoko elkarteko zure lagunak. Oñatin, 2020ko azaroaren 27an.

OROIGARRIA

Asun Santamaria Bergareche



2020ko azaroaren 20an hil zen.



Asun, zu izan zara emaztea, ama eta amandria. Gure bizitzako eredu. Betirako gure oroimenean.

Etxekoak. Bergaran, 2020ko azaroaren 27an.

OROIGARRIA

Asun Santamaria Bergareche



2020ko azaroaren 20an hil zen.



Beti, beti, gure bihotzetan eramango zaitxugu. Eskerrik asko eman diguzun guztiagatik.

Jone, Garazi, Aitor, Mikel eta Arantza. Bergaran, 2020ko azaroaren 27an.

ESKER ONA

Maximo Elorza Goitia

(Lurgorrieta baserria)

2020ko azaroaren 19an hil zen, 80 urte zituela.



Nere hortzetan itzaliko den azken antzia beste batenetan loratuko den lehen irria izango da.

Agur aita, agur aitajuna.

Familiak jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak eskertu nahi dizkizue.

Oñatin, 2020ko azaroaren 27an.

HILDAKOAK

- Felix Iglesias Alonso.** Arrasaten, azaroaren 19an. 87 urte.
- Inazio Uribesalgo Erostarbe.** Bergaran, 19an. 91 urte.
- Pedro Arregi Zufiria.** Oñatin, azaroaren 19an. 76 urte.
- Maximo Elorza Goitia.** Oñatin, azaroaren 19an. 80 urte.
- Karmelo Azkoitia Galdos.** Aretxabaletan, 20an. 75 urte.
- Inaxio Irazabalbeitia Aldazabal.** Bergaran, 20an. 70 urte.
- Asun Santamaria Bergareche.** Bergaran, azaroaren 20an.
- Juan Retes Montejo.** Bergaran, azaroaren 20an. 90 urte.
- El Mehdi Ould El Id.** Aretxabaletan, azaroaren 21ean.
- Marga Ezenarro Zelaia.** Bergaran, hilaren 21ean. 68 urte.
- Lucia Alberdi Aranzabal.** Bergaran, hilaren 21ean. 92 urte.
- Segundo Lezeta Errasti.** Eskoriatzan, 22an. 85 urte.
- Salvador Peña Elipe.** Antzuolan, azaroaren 22an. 88 urte.
- Josefina Moral Morales.** Arrasaten, azaroaren 23an. 71 urte.
- Migel Martin Hidalgo Abdala.** Arrasaten, 23an. 69 urte.
- Jacinto Arrieta Gomez.** Arrasaten, azaroaren 24an. 88 urte.
- Pilar Urkia Uriarte.** Arrasaten, azaroaren 24an. 77 urte.
- Belen Egiluz Iriarte.** Bergaran, azaroaren 24an. 90 urte.
- Fermin Altube Irizar.** Oñatin, azaroaren 24an. 99 urte.
- Antoni Suinaga Azkarate-Askasua.**
- Bergaran, azaroaren 24an. 96 urte.

URTEURRENA

Julia Mendizabal Villar

Ricardo Echanizen alarguna

2019ko azaroaren 29an hil zen, 96 urte zituela.



Urteurreneko meza zapatuan izango da, azaroaren 28an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parroki elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2020ko azaroaren 27an.

URTEURRENA

Casilda Remiro Alvarez

Juan Zabalaren alarguna

2019ko azaroaren 28an hil zen, 93 urte zituela.





Urtebete pasa da, baina zure hutsunea ezin dugu bete. Asko maite zaitugu, ama. Zu beti gurekin.

Urteurreneko meza domekan izango da, azaroak 29, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, seme-alaben izenean. Arrasaten, 2020ko azaroaren 27an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 27	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
Zapatua, 28	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Domeka, 29	FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Astelehena, 30	IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Martitzena, 1	SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Eguaztena, 2	ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Eguena, 3	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 27	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Zapatua, 28	URRITIKOETXEA: Orizondo plaza 4 / 943 76 11 74
Domeka, 29	URRITIKOETXEA: Orizondo plaza 4 / 943 76 11 74
Astelehena, 30	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Martitzena, 1	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguaztena, 2	ESTELA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Eguena, 3	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 27	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Zapatua, 28	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Domeka, 29	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Astelehena, 30	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Martitzena, 1	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguaztena, 2	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguena, 3	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

ARRASATE GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2020ko abenduaren 31ra arte:
ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38
/ 943 77 16 30

BERGARA GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2020 osoan:
ESTELA: Mabiategi 5 / 943 76 19
63

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
CZF Gipuzkoas aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

Oroilore

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Jakin ezazue nahiz eta heriotz asegurua izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dat beti zuentzako.


Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA

Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37



BABESLEA

TXUTXU-MUTXUAK



Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizun batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizun bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

1. Argazki onenak

Javier Pedro Fernandez, Carlos Mediavilla, Carlos de Cos, Juan Antonio Unzurrunzaga, Aritz Gordo eta Juan Jose Lopez saritu zituzten Bergarako lehiaketan.

2. Aldarrikapen mezuak

Eskoriatzako Feminismoa Bizirik taldeko kideek zapatak ipini zituzten herriko hainbat txokotan, mezu esanguratsuekin. Azaroaren 25aren harira egindako ekintza izan zen.

3. Euskara ikasteko komeriak

Kutsidazu bidea, Ixabel musikalaraz gozatzeko aukera izan zuten Arrasaten. Eta baita ere Tolosako baserri batera euskara ikastera doan Juan Martin gaztearen bizipenez ere.

4. Santa Zeziliaren omenez

Emanaldi presentzialaren ordezkari, Bergarako Musika Bandak *Or kompon* piezaren moldaketa grabatu eta sarea sozialen bidez zabaldu du musikariaren zaindaria omentzeko.

5. Angel eta Milagros: 60 urte ezkontuta

"Gaur egungo egoera latza izan arren, halako hamaikari aurre egin diezue elkarrekin. Etxekoen partetik, zorionak! Jaso lerro hauen bidez patxo handi bana".

ZORION AGURRAK

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak


Etor zaitez Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik argitaratuko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.




ONATI
Enara Arrazola Aranburu
Abenduaren 3an, 6 urte. Zorionak! Horrenbeste itxaron duzun eguna heldu da. Gaztaina erriak janaz ospatuko dugu egun berezia. Patxo handi bat!



BERGARA/BAÑARES
Ander Aparicio Aranzabal
Abenduaren 2an, 6 urte. Zorionak, txapeldun. Egun ederra pasatu eta muxu handi-handi bat, etxekoan partetik.




BERGARA
Oier Fernandez Lopez
Azaroaren 30ean, 10 urte. Zorionak, mutil handi! Edarto ospatu zure urtebetetzia! Familia osoaren partetik, muxu pila!



ONATI
Urdax Erostarbe Aramburu eta Martin Lazkanoiturburu Erostarbe
Zorionak, bikote, zuen urtebetetzean, Urdaxek 3 urte eta Martinek 15. Oso ondo pasatu eguna eta besarkada handi bat, familia osoaren eta, batez ere, Ganixen eta Unaxen partetik!



BERGARA
Laia Urbina Laborda
Azaroaren 28an, 7 urte. Zorionak, Laia! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Patxo potolo bat, etxekoan partetik!



ONATI
Hodei Benito Alzelai
Azaroaren 27an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Asko maite zaitugu! Unaxen, aitaren, amaren eta familiakoan partetik! Muxu potolo bat!




ONATI
Mirari Zillaurren
Azaroaren 27an, urtebetetzea. Nahiz eta aurren topa egiterik ez dugun, zure lankideen partetik, egun berezi honetan, zorionik beroena!



ARRASATE
Liher Gallastegi Yarza
Azaroaren 27an, 4 urte. Zorionak! Txa txa txa! Muxu pila bat familiakoan partetik: amaxo, aitatxo, aitita-amamak, tia eta 'Pita'.



ARRASATE
Malen Etxeberria Agirreurreta
Azaroaren 26an, 4 urte. Zorionak, Malen! Aitonaren eta amaren partetik. Muxuak eta atxutxoi handi bat.




ARRASATE
Xabier Agorria Lumbreras
Azaroaren 26an, 5 urte. Zorionak, Xabier! Ondo pasatu zure egunian! Besarkada handi bat, danon partetik.



ONATI
Oihan Odrizola Larrañaga
Azaroaren 26an, urtebete. Zorionak, Oihan! Etxeko txikinak urtebete! Patxo pila bat familia danaren partetik.



ARRASATE
Aimar Hernandez Lopez
Azaroaren 25ean, 6 urte. Zorionak, Aimagor! Ondo-ondo ospatu zure seigarren urtebetetze eguna! Besarkada handi bat, etxekoan partetik.




ELGETA
Inhar Zabala Sarasketa
Azaroaren 24an, 4 urte. Zorionak eta ondo pasatu, etxeko danon partetik



ARETXABALETA
Jon Almeida Romero Azarsketa
Zorionak, politx hori! Ja urtebete pasatu da. Zelako aguro! Jarraitxu horrelako alai izaten! Asko maite zaitugu. Leor, amaxo, aitatxo eta aitia-ama.



ONATI
Naroa eta Maddi Iñarra Agirre
Zorionak, Naroa eta Maddi! Azaroaren 24an, Naroak 5 urte egingo ditu, eta abenduaren 2an Maddik, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako. Ondo ospatu zuen egunak.



BERGARA
Oihan Fernandez Plumed
Azaroaren 23an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Zure eguna heldu da! Egun zoragarria pasatuko dugu. Muxu handi-handi, familia danaren partetik.




BERGARA
Sara Taboada Muruamendiaraz
Azaroaren 23an, 8 urte. Zorionak etxeko txikiaren! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Muxu asko, familiaren partetik.



ARRASATE
Nora Axpe Pacios
Azaroaren 23an, 4 urte. Zorionak, Noratxo! Lau urte gure artean! Patxo handi bat, etxeko guztion partetik.



BERGARA
Pedro Urrutia Arribillaga
Azaroaren 21ean, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Zapatuan zazpi urte! Muxu pila eta ondo pasatu, etxekoan partetik!



ARETXABALETA
Xixili Olabe eta Garikoitz Blanco
Azaroaren 21ean, 77 eta 5 urte. Zorionak, Xixili eta Garikoitz. Ondo pasatu eguna! Milaka muxu etxekoan partetik.



ONATI
Goizane Zelaia Altube
Azaroaren 21ean, 8 urte. Zorionak, prexioxa! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo pila bat, asko gura dun danon partetik!



ARRASATE
Oiana Sanchez Gonzalez
Azaroaren 18an, 35 urte. Zorionak, txpaxsk! Lagunen artean onena eta aldaezina! Pena handia ematen digu zure eguna merezi duzun moduan ez ospatzea, baina, badakizu horrela ere ondoan gaituzula! AMZ.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 27

ARRASATE Jostailu truke merkatua

Abenduaren 12an egingo den azokarako jostailuak entregatzeko eguna da gaur.

Santa Marinako ludotekan, 17:00etatik 18:30era.

ARAMAIO III. bikoizketa lehiaketa

Aurrez eman dute izena parte-hartzaileek.

Kultura etxean, 17:30ean.

ARETXABALETA Pintura erakusketa

Gurutze Mujika aretxabaletarrak egindako bederatzai margolan. Urbia, Degurixa, Urkulu... udazken koloreekin ikusteko aukera, hilaren 30era arte.

Arkupen, 17:30ean.

BERGARA Kirol argazkien erakusketa

30. lehiaketara aurkeztutako lan onenak, abenduaren 6ra arte.

Aroztegin, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Matriuska' antzezlan

Beste etorkizun bat eraikitze giltza Mesias berriaren eta bere laguntzailearen esku dago. Iraia Eliasek eta Amancay Gaztañagak gorpuztutako pertsonaiak dira.

Sarrerak, bost euro. Zaldibar antzokian, 19:00etan.

OÑATI 'Zarramarra' ikuskizuna

—sarrerak, agortuta—

Telebistako *late-night* saioetan oinarritutako ikuskizuna. Umorearen muga, funanbulista-lanak egingo dituzte.

Santa Ana antzokian, 19:30ean.

ANTZUOLA 'Adela eta Martirio Bernarda Albaren etxean' antzezlan

García Lorcaen *La casa de Bernarda Alba* liburuan oinarrituta. Naita taldearen bertsioan, taldearendako erreferente diren elementu bisualak, musikak eta kulturalak erabili dituzte. Sarrerak, *Labur.eus* atarian.

Torresoroan, 19:30ean.

ZAPATUA 28

OÑATI 'Musika eta ahalduntzea'

Jabetze Eskolaren baitan, formakuntzarako saioak egingo ditu Olatz Salvador musikariak, musika munduan gertatzen diren genero desoreken azterketatik abiatuta.

Gaur egingo dute lehen saioa.

Gaztelekuan, 10:00etan.

ARRASATE Jostailu truke merkatua

Abenduaren 12an egingo den azokarako jostailuak entregatzeko eguna da gaur.

San Anton parkean, 12:00etatik 13:30era.

OÑATI Hondakinen Astea

12:00etan, informazio puntua, hondakinen karakterizazioa familiendako, *Hondakinen urrezko hiru arauak* izeneko muralaren margotzea 6-10 urte artekoendako; eta 16:30ean, hondakinen ginkana 8-12 urte artekoendako. Ekintza horietan guztietan parte hartzeko aurrez eman behar da izena.

Foruen plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Ipuin kontaketa

Apika taldearen saioa 3 eta 10 urte arteko neska-mutikoendako, Euskaraldiaren baitan.

Behoko auzoko plazan, 16:00etan.

ESKORIATZA Mahai-jolas berriak

Gaztelekuko jolasak probatzeko aukera izango dute gaztetxoek.

Aurrez hartu behar da txanda.

Gaztelekuan, 17:00etan.

OÑATI 'Txor-txor' bakarriketa

Euskaldunok eguneroko egoeretan ditugun harremanei buruzko gogoeta du ardatz Xabier Artiendaren saioak, umorearen ikuspegitik.

Santa Ana, 19:00etan.

BERGARA 'Birritan bortxatua' antzezlan

Taupaka Elkartearen eskutik. Nagorek, beldurak gaindituz, salaketa jartzea erabaki du. Baina orduan hasten da Nagoreren bigarren amesgaiztoa. Epaietan sufritutakoa eta herritarren aldetik

jasotako epaiak kontatzen ditu antzezlan honetan. Sarrerak, zortzi euro.

Seminarixoa, 19:00etan.

DOMEKA 29

BERGARA 'Heriotzako erromatar ohiturak Soriako Tierras Altas eskualdean' erakusketa'

Burdin Aroan hilarrietan egiten ziren inskripzioak interpretatzen ikasteko bilduma, abenduaren 20ra arte.

Laboratoriumen, 10:00etatik 13:00etara.

OÑATI 'Altxorraren bila'

Orientazio jolasa familiendako, ibilbide irisgarrian dauden zazpi pistak topatu ahal izateko. Aurrez eman behar da izena: 943-78 28 94 telefonoa edo *arantzazu@gipuzkoanatura.eus* helbidea.

Arantzazuko Parketxean, 11:00etan.

ESKORIATZA Mahai-jolas berriak

Gaztelekuko jolasak probatzeko aukera izango dute gaztetxoek.

Aurrez hartu behar da txanda.

Gaztelekuan, 17:00etan.

OÑATI Musikegunak: Lauburu Sax Quartet

Saxofoi-jole laukotearen emanaldia: Raul Perez, Laurie Curutchet, Claudia Llaurodo eta Andrea Castaño. Sarrerak, zortzi euro.

Santa Ana antzokian, 19:00etan.

BERGARA Irratsaio berezia Txapa Irratian

Euskaraldiaren baitan. Herritarrek euren esperientziak kontatzeko aukera izango dute FMko 97.20an.

Txapa Irratian, 19:00etan.

ASTELEHENA 30

ARRASATE 'Botereari buruko irudiak, antzintasunetik XV. mendera arte' hitzaldia

Urko Barrosek egingo du irudi horien errepasoa, Goienagusiren ikasturtearen baitako hitzaldian. Edukiera mugatua da, eta garaiz joatea aholkatzen da.

Kulturaten, 10:00etan.



MATRIUSKA

ESKORIATZA 'Matriuska' antzezlan

Beste etorkizun berri bat eraikitze giltza Mesias berriaren eta bere laguntzailearen esku dago. Iraia Eliasek eta Amancay Gaztañagak gorpuztutako pertsonaiak dira. Sarrerak, bost euro.

Gaur, egubakoitza, Zaldibar antzokian, 19:00etan.

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.

Foruen plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.

Herriko Plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.

Herriko Plazan, 12:00etan.

ARETXABALETA 'Haurrak pandemia egoeran' hitzaldia

Beldurak, dolua, etxeko harremanak eta egoeraren inguruan sortzen diren zalantzak kudeatzeko aholkuak emango ditu Nerea Mendizabalek. Izena emateko: *gazteria@aretxabaleta.eus*.

Arkupen, 18:00etan.

ELGETA Argazki lehiaketa: lanak aurkezteko azken eguna

Gaur da azken eguna. Erretratuak bidali behar dira *danonartian@elgeta.eus* helbidera. Elgetan erabiltzeko 50 euroko bonua jasoko du irabazleak.

Elgetan.

MARTITZENA 1

ARETXABALETA Jostailu bilketa

Materiala egoera onean egotea eskatu dute: mahai-jolasak, liburuak, patineteak, jostailuak... Loratuko kideek desinfektatuko

dute material guztia herritarren esku ipini aurretik.

Udaletxe zaharrean, 16:00etatik 20:00etara.

OÑATI 'Mindfulness'-ari buruzko tailer irekia, telematikoki

Larraitz Urrestilak gidatuko du saioa. Aurrez eman behar da izena.

Telematikoki, 18:00etan.

ARRASATE 'IKTak eta aisialdi birtuala' solasaldia

Lau komunikatzaile elkartuko dira: Igor Leturia (Elhuyar), Olatz Artola (AZK), Maitane Junguitu (Game Erauntsia) eta Aiora Mujika (*youtuber*-a). *Streaming* bidez, *Goiena.eus* atarian.

Kulturaten, 18:30ean.

BERGARA Bingo herrikoia

Online bidez egingo dute, Jardunek gidatuta, Euskaraldiaren baitan.

Bergaran, 18:30ean.

OÑATI 'Noka, emakumeon euskalduntzerako tresna' saioa

Ingo Xonau egitasmoa kide Beatriz Irizarren laguntzarekin, noka egiten duten emakumeen esperientzietara gerturatuzko aukera.

Gaztelekuan, 18:00etan.

BERGARA 'Mateo, gure oparia' ipuinaren aurkezpene

Displasia Fibrosoa sufrizten duen Mateo haurraren bizipenak jasotzen ditu. Haurren inklusioaren eta integrazioaren garrantzia azpimarratzen duen lana.

Seminarixoa, 19:00etan.



APIKA TALDEA

ANTZUOLA Ipuin kontaketa

Apika taldearen saioa 3 eta 10 urte arteko neska-mutikoendako, Euskaraldiaren baitan. Edukiera mugatua denez, garaiz joatea aholkatu dute antolatzaileek. Debalde.
Bihar, zapatua, Beheko auzoko plazan, 16:00etan.

ARRASATE 'El uso saludable de las redes sociales y los videojuegos' hitzaldia
6-12 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoendako berbaldia, gazteleraz, Udaleko Prebentzio Sailaren eskutik.
Kulturaten, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Erradikalak ginen' antzezlan
Ane Labaka bertsolaria eta Beatriz Egizabal ipuin kontalari eta aktorea oholtza gainean, Euskaraldiaren baitan. Sarrerak, bost euro.
Arkupen, 19:00etan.

EGUAZTENA 2

ARRASATE Sasoibide irteera
Arteaga jatetxearen inguruetaara joango dira, Garagartza aldera.
Biteri plazan, 15:00etan.

ARETXABALETA Jostailu bilketa
Materiala egoera onean egotea eskatu dute: mahai-jolasak, liburuak, patineteak, jostailuak... Loratuko kideek desinfektatuko dute material guztia.
Udaletxe zaharrean, 16:00etatik 20:00etara.

BERGARA Eguaztenetako azoka
Herriko baserritarren garaian garaiko produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

ARRASATE 'Bookface' lehiaketa
12-16 urte arteko nerabeendako. Elkar liburu dendan gatzatzeko 150

euroko bonua irabaziko du lanik onenak. Abenduaren 15era arte: *kulturate@arrasate.eus. Bibliotekan, 18:00etan.*

EGUENA 3

ARRASATE Sasoibide irteera
Aretxabaletarainoko joan-etorria egingo dute.
Biteri plazan, 10:00etan.

ARRASATE Bizipenen arigunea
Bigarren Euskaraldiak utzitako bizipenak kontatzeko aukera izango dute herritarrek, egun osoan zehar.
Euskara plazan, 10:00etatik aurrera.

OÑATI Garbigune ibiltaria
Herritarren materiala batuko dute egun osoan zehar.
Azoka plazan, 10:30etik 21:00etara.

OÑATI 'Ez dok ero' antzezlan
Mikelote eta Pantxo komikoen ibilbide artistikoaren azken urratsak erakutsiko ditu Tartean taldeak, Mikel Martinez eta Patxo Telleria aktoreekin. 12:00etan ikasleendako eta 19:00etan herritar guztiendako.
Santa Ana antzokian.

ARRASATE Jostailu truke merkatua
Abenduaren 12an egingo den azokarako jostailuak entregatzeko eguna da gaur.
San Anton parkean, 12:00etatik 13:30era.

ARRASATE 'Sare sozialen eta bideo-jokoen erabilera osasuntsua' hitzaldia
6-12 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoendako berbaldia, euskaraz, Udaleko Prebentzio Sailaren eskutik.
Kulturaten, 18:00etan.

ANTZUOLA 'Txor-txor' bakarrizketa
Ahobizi-ek eta belarriprest-ek dituzten portaerak gizarteratzeko saioa egingo du Beatriz Egizabalek, Euskaraldiaren baitan.
Torresoroan, 19:00etan.

ARRASATE Ingelesezk
elkarrizketa taldea
Hamabostean behin, eguenetan batzen dira, Jay Mannek gidatuta.
Bibliotekan, 19:30ean.

EGUBAKOITZA 4

OÑATI Odol ateratzea
Urteko azken deia.
Enpresagintzan, 17:00etan.

ARAMAIO 'La inocencia' filma
Zineklubean.
Kultura etxean, 18:30ean.

ARRASATE 'Sare sozialen eta bideo-jokoen erabilera osasuntsua' hitzaldia
6-12 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoendako berbaldia, euskaraz, Udaleko Prebentzio Sailaren eskutik.
Kulturaten, 18:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Regreso a Hope Gap
Zapatua eta domeka: 19:00.
Astelehena: 20:00.
Trolls 2
Zapatua eta domeka: 16:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

Arzak since 1897
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.
Como perros y gatos
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

El año que dejamos de jugar
Egubakoitzetik astelehenera: 19:00.
Trolls 2
Zapatua eta domeka: 16:30.

EIBAR

COLISEO

Hil kanpaia (jatorrizko bertsioan)
Zapatua eta domeka: 16:00, 19:00.
Astelehena: 19:00.
Corpus Christi
Zapatua eta domeka: 16:00, 18:30.
Astelehena: 18:30.

ANTZOKIA

El arco magico
Zapatua eta domeka: 16:00.
El año que dejamos de jugar
Zapatua, domeka eta astelehena: 18:30.

GASTEIZ

GORBEIA

Como perros y gatos
Egubakoitza eta zapatua: 17:15.
Domeka: 12:00, 17:15.
Ane
Egunero, domeka izan ezik: 19:15.
Domeka: 12:00, 19:15.
Trolls2
Egubakoitza eta zapatua: 17:45.
Domeka: 12:00, 17:45.

La brujas de Roal Dahl
Egubakoitza eta zapatua: 17:05, 19:10.
Domeka: 12:00, 17:05, 19:10.
Astelehenera: 17:00.

Sentimental
Egubakoitzetik domekara: 19:35.
Astelehenera: 17:15.

Corpus Christi
Egunero: 18:55.

Erlauntza
Egubakoitza eta zapatua: 17:20.
Domeka: 12:00, 17:20.
Astelehenera: 19:05.

La trinchera infinita
Egubakoitzetik domekara: 18:00.
Astelehenera: 17:30.

Los Fixies contra los Crabots
Egubakoitza: 17:25.
Domeka: 12:00.

Ni de coña
Egubakoitza eta zapatua: 17:25, 19:20.
Domeka: 12:00, 17:25, 19:20.
Astelehenera: 19:05.

La Ilorona
Egubakoitza: 19:20.
Zapatua eta domeka: 17:25, 19:20.
Astelehenera: 17:10.

Desafio total 4K
Egunero, domeka izan ezik: 17:10.
Domeka: 12:00, 17:10.

Hil kanpaia
Egunero: 19:20.

Erase una vez...
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:25.
Domeka: 12:00, 17:30, 19:25.
Astelehenera: 17:05, 19:25.

Ire donde tu vayas

Egubakoitzetik domekara: 17:35, 19:25.
Astelehenera: 17:35.

FLORIDA

Dehesa, el bosque del lince ibérico
Zapatua eta domeka: 12:00.

Los Fixies contra los Crabots
Zapatua eta domeka: 12:00.

El arco magico
Zapatua eta domeka: 12:00.

Las aventuras de Tintin: el secreto del unicornio
Zapatua eta domeka: 12:00.

Pequeño gran lobo
Zapatua eta domeka: 12:00.

Ane
Egubakoitzetik domekara: 17:40.
Astelehenera: 19:15.

Trolls 2
Egubakoitza: 15:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 15:30.

Sentimental
Egubakoitzetik domekara: 16:00, 19:35.
Astelehenera: 17:30.

La brujas de Roald Dahl
Egubakoitzetik domekara: 15:50.
Astelehenera: 17:20.

Adam
Egubakoitzetik domekara: 15:20, 17:20, 19:20.
Astelehena, eguaztena eta eguna: 17:20, 19:15.
Martitzena: 16:40.

Erlauntza
Egubakoitzetik domekara: 15:35, 19:25.
Astelehenera: 19:20.

Palabras para un fin del mundo
Egubakoitzetik domekara: 17:30.
Astelehenera: 17:20.

Hil kanpaia
Egubakoitzetik egunero: 17:20.

Matar a Pinochet
Egubakoitzetik domekara: 17:55, 19:35.
Astelehenera: 19:30.

De Gaulle
Egubakoitzetik domekara: 19:10.
Astelehenera: 19:05.

Las ventajas de viajar en tren
Martitzena: 18:30.

Sin señas particulares
Egubakoitzetik domekara: 15:30, 17:20, 19:20.
Astelehena, martitzena eta eguna: 19:20.
Eguaztena: 17:25, 19:20.

2020
Egubakoitzetik domekara: 15:20, 17:15.
Astelehenera: 17:10.

El año del descubrimiento
Egubakoitzetik domekara: 17:40.
Astelehenera: 17:30.

Y en cada lenteja, un Dios
Zapatua eta domeka: 12:00.
Astelehena, martitzena eta eguna: 17:25.

Los papeles de Aspern
Egubakoitzetik domekara: 15:30, 19:20.
Astelehenera: 19:15.
Peter Rabbit
Zapatua eta domeka: 12:00.



De Gaulle pelikulararen kartela. 'FOTOGRAMAS'



AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA

Aupa, aupa!

"Aupa, Maurixia!", esaten zion Maurixia Aldeiturriagak bere buruari, ahoz gora. Leon eta Maurixia erromerietan ibiltzen ziren, trikiti doinuak zabaltzen. Eta panderoa astintzen zuen bitartean, bere burua animatzen zuen Maurixiak. Izango zuen animo beharra, emakume gutxi ibiltzen baitzen plazetan sasoi hartan. Ez zegoen ondo ikusia. Beraz, emakume guztion aldarria ere bada "aupa, Maurixia!".

"Aupa, Joxe!", esaten zion Joxe Aranzabalek bere buruari, goizero. Minbiziari aurre egiteko indarra biltzeko. Eta bere esperientziari buruz liburua idazteko adorea ere bildu zuen: *Medikuak esan dit minbizia dudala* (Elkar, 2005). Egoera berean dauden irakurleek ere "aupa!" esan diezaiotela euren buruari, amore eman gabe.

"Aupa, Ido!", esaten dio Idoia Etxeberriak bere buruari. Erronka bat duenean. Triste dagoenean. Ohetik jaikitze gogorik ez duenean. Goienako iritzi artikulua zeri buruz idatzi ez dakienean... Egia esan, egoera askotarako balio du.

Animo beharra dugunean, ezin gara besteek gu animatzeko zain egon. Beraz, aupatu ditzagun geure buruak!

EUSKARALDIA, GERTU!



Eguazten goizean Kulturaten egin zuten Mintzodromoa ekimenaren une bat. KARMELE URIBESALGO

Giro gozoan euskaraz berba egiteko, Mintzodromoa

Euskaraldiaren baitan, euskaldun zaharrak eta euskalduntzeko bidean ari direnak batu ziren eguaztenean egin zuten Mintzodromoa izeneko ekimenean, Zahar Berri egitasmoak proposatuta; bi saio egin zituzten: goizean bat eta arratsaldean bestea

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Ikasgelatik kanpo ezezagunekin euskaraz jarduteko aukera eskaintzen du Mintzodromoak. "Euskara plazaratzea da helburua. Mahai gainea gai batzuk jarri, eta taldeetan banatuta bizipenak partekatzea. Eguaztenean ez genuen, beste batzuetan moduan, taldeen arteko errotaizorik egin. Talde berean

jardun zuten hainbat konturi buruz", azaldu du Arrasateko Zahar Berri ekimeneko teknikari Nerea Zugastik.

Eguneroko gaiak osatzen dute proposatutako gaien zerrenda. "Euskara maila ezberdinetako jendea batzea da helburua; hortaz, gai arruntak dira, bakoitzak bere bizipenak kontatzeko. Oraingoan, honako hauek: COVID-19a;

sakelako telefonoen erabilera, erosketak egiterakoan ditugun joera edo ohiturak, feminismoa, itxuraren garrantzia...". Eta, antza denez, asmatu zuten proposamenekin, goizeko saioan parte hartu zuen Aintzane Barronetxea-Arandok dioenaren arabera: "Ziztu bizian pasatu zaigu denbora. Gai bat bukatu behar zenerako, guk oraindik

gauza asko genituen esateko. Lehenengo aldia izan da Mintzodromoan, eta ekimen intergarria iruditu zait". "Dagoen egoerari buruz apur bat amorrut egin dugu berba. Niretzako ere lehenengo Mintzodromoa izan da, eta oso pozik eta gustura egon naiz. Oso berritsua naiz eta berbalagunak oso jatorrak iruditu zaizkit", kontatu du Montse Gallastegi.

Arratsaldean jende gehiago

Bi saio egin zituzten Kulturategiko areto nagusian. AEK euskaltetikiko ikasleak, Zahar Berri ekimenaren Mintzalagunak ekimeneko parte hartzaileak eta, orokorrean, herritar guztiak zeuden gonbidatuta. Goizekoan baino jende gehiago batu zen arratsaldekoan.

Euskaraldia, "beharrezkoa"

Honela dela dio Aintzane Barronetxea-Arandok: "Euskara bultzatzeko tresna baliagarria da, eta, bere eraginez, orain, Arrasaten eta inguruetan euskara gehiago egiten da. Aurrekoan ez nintzen apuntatu, eta pena nuen; aurten, *Ahobizi*-a naiz, aita moduan. Amak ez du euskara ondo menperatzen, baina bion laguntzarekin ikasten ari da".

Euskaldun zaharra da Montse Gallastegi, eta berarentzako ere garrantzitsua da. "Ikasten ari den jendeari bultzada emateko, animatzeko eta erakusteko ze polita den euskaraz egitea eta bizitzea. *Ahobizi*-a naiz ni".

Idea moduan oso ona dela dio Zugastik: "Honetara dedikatzen garenok emozio handiz bizi dugu; eta bukatutakoan ere, atek beti zabalik izango ditugu".

ALKIDEBA

SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU

MAKINERIA ALOKAIRUA
ERAIKUNTZARAKO ETA
INDUSTRIARAKO

alkideba@alkideba.net

Saskibaloi taldearen babeslea



NILFISK-en
banatzaile
ofiziala



Máizaga - Soraluez errepedea.
Tel.: 943 75 15 54 • Soraluez (Gipuzkoa)

Goitondo industriagunea, 3. pabillioia
Tel.: 943 17 13 62 • Mallabia (Bizkaia)